

Goienkaria

2010eko ekainaren 18a > Egubakoitza > X. urtea > 426. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10
Urte

www.goiena.net

TOKIKOM

"Euskal kutzak batu aurretik, krisi finantzarioa gainditu egin behar da"

Xabier Iturbe
Kutzako presidentea > 09



G2a

Motorrero Eguna
egingo dute bihar
Arrasaten > 29

ARRASATE
Krisiak eraginda dirulaguntzak
%20 jaitsiko dira, batez beste > 12

BERGARA
0-5 urtekoendako aisialdigunea
egokituko dute Zabalotegin > 16

ARAMAIO
Erre zen Obena baserriaren aldeko
jaialdia ekainaren 27an > 26



ESKARI UGARI Askotariko eskariak jaso zituzten Realeko kideek. Bi neskatook, esaterako, Martin Lasarte entrenatzailearekin egin zuten argazkia.

JULIO CALLEJA



Baskoniako kideak Euskadiko Kutxako ordezkariekin Arrasaten.

MIREN MANIAS

KIROLA > FUTBOLA ETA SASKIBALOIA

Realeko eta Baskoniako jokalariek gurean izan dira babesa eskertzen

TXAPELDUNAK Zaleen babesa jaso zuten taldeetako kideek > 02-04 eta 28

AURKIBIDEA

Debagoiena > 05-06
Elkarrizketa > 07
Iritzia > 08
Gutunak > 09
Herriak > 11-27
Kirola > 28
Kultura > 30-31
Gazteak > 58
Saikatuak > 59
Telebista-Irratia > 60
Berri-zakua > 61
Eskelak > 61
Non-zer > 62-63

Sanjuanen gainera berezia

Arrasateko San Juan jaien gainera informazio guztia barruko orrialdeetan.



JENDARTEA > ELKARTASUNA

Saria jaso dute odola emateagatik

Zortzi debagoiendarrek omenaldia jaso dute Bartzelonan, 60tik 75era arteko odol emate egiteagatik > 05

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
ONATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48





Realeko jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak Arantzazuko santutegian Iñaki Beristain eta Juan Inazio Larrea frantziskotarrekin.

JULIO CALLEJA

REALA > TXURI-URDINAK DEBAGOIENEAN

Txuri-urdinen pasioaren lekuko izan ziren Realeko jokalaria Debagoienez

Arantzazuko Ama Birjinari lore sorta ederra eskaini zioten txuri-urdinek

Bergarako plaza umez beteta aurkitu zuen segizioak udaletxera igo aurretik

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Txuri-urdinez jantzi zen atzo ibarra. Lehen mailara igo izana ospatzeko, Gipuzkoan barrena egindako ibilaldiak Debagoienez ere izan zuen geldialdia. Oñatin eta Bergaran izan ziren Realeko jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzakoak. Herri guztietan ezin egon eta, horrek haserreak sortu zituen, batez ere, Arrasateko zaleen artean. "Presidenteari eskatu diot irailean entrenatzera etortzea Arrasatera", esan zigun Mikel Gonzalezek atsekabeturik.

Iñaki Beristain frantziskotarrak hartu zuen Realeko segizioa Santutegian. Ongi-etorrian esan zuen Realaren arrakastaren giltza taldearen batasuna izan dela. Aperribai presidentek eta Lasarte entrenatzaileak Arantzazuko Ama Birjinari lore sorta eskaini zioten ondoren, eta Arantzazuko ohorezko liburuan sinatu zuten segidan, banan-banan, Realeko guztiek. Kripta bisitatzeko aukera ere izan zuten ostatura jo aurretik. Han hartu zituzten Arantzazu Gaur Funda-

ziokoek. Plaka oroigarri bat eman zioten Realekoei. Bapo bazkaldu ostean, Bergarara egin zuen txuri-urdinen autobusak.

PLAZA LEPO

Han aurkitu zuten San Martin plaza umez beteta, eta argazkiak atera eta sinadurak egin ostean, udaletxera jo zuten. Enara Minguez alkateordeak artatu zituen han, lobaren txuri-urdin kamiseta soinean zuela. Eta berba batzuk eskaini zizkien bertaratutakoei udalbatzaren izenean. Esan zien,


futbol zalea izan ez arren, "ohore bat" zela Bergarara etorri izana eta gogoan izan zuen kartzelan dagoen Iker Sarriegi Realeko jokalaria ohia. Unibertsitateko ikaskide izandakoak zirela aipatu zuen.

Arantzazun bezala, ume, gazte zein helduekin argazkiak atera eta autografoak sinatzeko unea hartu zuten jokalariek, aurpegian nekea antzematen zitzairen arren. 17:30ak ingururako alde egin zuten Bergaratik. Zatia gertzen zitzairen Donostiara iritsi aurretik. Merezi izan zuen.



Patxi eta Inazio Aranburu
Oñati

"Abizen bera dugu eta horregatik etorri gara Aranburu agurtzera. Realzale sutsuak gara, jaiotzetik hil arte!", diote. Eta Inaziok: "Bazkide naiz, eta Anoetan ikusi nuen partidua. Gainera, gure semea oso zalea da, eta orain urte batzuk Aranbururekin atera zuen argazkia Bergaran. Hori gogoratu diot. Semea ere gustura egongo litzateke hemen!".



Jon Ander Aramendi
Oñati

"Hiru urte txar pasa ditugu eta egun hauek oso politak dira. Domekan ez nintzen Anoetan egon, etxetik jarraitu nuen partidua eta oso polita izan zen".



Martin Lasarte
Realeko entrenatzailea

"Lagun taldea baino gehiago gara, anaiak gara. Hori izan da garaipenaren sekretua. Arantzazura ez gara etorri ezer eskatzera, eskertzeraz baizik".



Oihan eta Luken
Bergara

Oihanek atezain jokatzeko duela diosku eta "bereziki, Zubikarai" atsegin duela. Luken, aldiz, Xabi Prietoren jarraitzailea da. "Pozik goaz lortutako autografoekin".



Oñatiko mutil koadrila Mikel Gonzalezekin.



J.C. Gonzalez Jon Ander Aramendirekin. J.C.



David Zurutuza kamiseta sinatzen zale gaztetxoei.

J.C.



Mikel Aranburu eta Johnatan Estrada. J.C.



Jokin Aperribai Arantzazuko Santutegiko liburuan sinatzen.

J.C.



Aperribai eta Lasarte Ama Birjinari loreak eskaintzen.

J.C.



Realeko jokariak autobusetik jaisten Arantzazun; lehenengo planoan, Xabi Prieto.

J.C.



Maialen, Ismene eta Marina
Bergara

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan jokalarien zain ziren hiru lagunak. "Realeko jarraitzaile finak gara; hamabostean behin Anoetara joaten gara", esan zuten. Jokalaririk gustukoena aukeratzeko orduan ez dira ados jartzen, baina. Maialenek Zurutuza aipatzen du; Ismenek, Zubikarai; eta Marinak, Griezsmán. Argazkian, hirurak Mikel Labakarekin.



Jon Etxeberria
Bergara

"David Zurutuzaren kamisetarekin etorri naiz plazara", esan zigun. Bere idoloarekin argazkia atera zuten. Hainbat jokalarik sinatu zioten Realeko kamiseta.

#Gipuzkoa



Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

Obra publikoa eta azpiegiturak

Gipuzkoan badugu Plana:

Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bide-sare ezin hobea izan dezan.



GIPUZKOA
zurekin, aurrera



Zaleen zoramena Bergarako San Martín plazara heldu zirenean.

J.C.



Nsue, Agirretxe, Ansotegi, Carlos Martínez..., zaleei kantuka.

J.C.



Minguez alkate ordea eta Aperribai.

J.C.



Biloba eta aitajauna, adi-adi.

J.C.



Markel Bergara zaleei autografoak sinatzen Bergaran.

J.C.

Mikel Gonzalez > Realeko jokalaria

"Lehenengo maila oparia da zaleendako eta guretako; onenen aurka jokatuko dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARANTZAZU

Penatuta zegoen Mikel Gonzalez autobusa Arrasatetik, bere herri-
tik, pasa ez zelako. Arantzazun eta
Bergaran izan ziren atzo Realeko
jokalaria. *Gontxa*-k egun hauetan
bizi izandakoak kontatu zizkigun.

Reala lehenengo mailan; zorionak,
Mikel! Zenbat bider amestu duzu
une hau?

Jaitsi ginenetik amestu dugula
esan daiteke. Lehenengo bi
urteetan ez dugu lortu, baina
aurten bai. Oso polita eta emozioz
betea izan da.

Pasatako tentsioak alde batera
utzita, lasaiago zaude orain?

Hainbeste jende, eta azkeneko
egunetako ekitaldi guztiak... apur
bat izarrei begira gaudela ere esan
daiteke. Horregatik ditugu orain
oporak, apur bat lasaitzeko.

Zenbat jende batu zen Anoetan!
Nola bizi izan zenuen momentu
hura?

Emozioz. Jende guztia kalera
irten zen: umeak, helduak nega-
rrez... horrek asko hunkitzen du.

RIP taldearen *Mondra* abestiare-
kin agurtu zenituen zaleak, eta
sekulako erantzuna jaso zenuen.
Momentu horretan zer etorri
zitzaizun burura?

Jendea harrিতa geratu zen;
gainera askok ez zekiten abestia...
Baina momentuan hori atera
zitzaidan, eta polita izan zen.

Zein da inoiz ahaztuko ez duzun
unea?

Domekako onena, ahaztuko ez
dudana, Anoetari eman genion
itzulia izan zen. Lagun asko eta zale
asko ezagutu nituen, eta ni
horrekin geratuko naiz.

Aldageletan jarraitu zenuten
festarekin. Su Ta Garren musika
entzuten zen pasilloetan!

Bai, azkenean tentsio eta presio
guztiak nonbaitetik irten behar du.
Musika jarri genuen eta xanpaina
ere ireki genuen. Beste guztia ezin
daiteke esan!

Anoetan Vila-Realen aurka sartu
zenuen golak lehenengo maila



JULIO CALLEJA

gertuago jarri zuen. Nola balora-
tzen duzu egin duzun denboral-
dia?

Beti ilusioarekin hasten da
denboraldia. Gainera, oso ondo
hasi genuen. Lehenengo hiruren
artearen egon ginen, eta azkeneko
partiduetan lehenak izan gara.
Zaleek ere bat egin dute gurekin

**"RIP taldearen 'Mondra'
abestia momentuko
kontua izan zen, hala
atera zitzaidan"**

**"Urte txarretan normala
da jende gutxiago joatea
Anoetara, baina zaleak
beti egon dira gurekin"**

eta denok batera egin dugu
denboraldi amaiera.

**Nola moldatuko da Reala lehenen-
go mailan?**

Ikusiko dugu! Horretarako dago
lehiaketa, eta lehiaketak bakoitza
bere lekuan jartzen du. Orain,
lasaitu egin behar gara.

**Realak golegile bat behar du.
Llorente eta Sutil fitxatu dituela
entzun da. Gehiago beharko dira?**

Udako kontuak izaten dira
fitxaketak. Hori ikusiko dugu, beste
batzuen esku dago eta eurak
arduratuko dira.

**Zaleendako sekulako oparia da
lehenengo mailan egotea. Aspaldi-
ko partez Athletic-Real derbiak
ikusteko aukera izango dute.**

Eurentzako eta baita guretako
ere. Giro oso oneko partiduetan
izaten dira derbiak. Bartzelona,
Real Madril... horien aurka jokatzea
denek gura duguna da. Azken
finean onenak dira eta denei
gustatzen zaigu onenekin jokatzea.

**Urte hauetan zer igarri duzu
faltan?**

Urte txarretan normala da
jende gutxiago etortzea Anoetara.
Baina zaleak momentu txar
guztietan gurekin egon dira. Akaso
lehenengo mailak duen profesio-
naltasuna igarri dut faltan.

**Pena duzu ospakizuna Arrasate-
raino ez delako joan?**

Bai, noski! Eskatu dut irailean
entrenamendu bat egitea han.

**Jose
Antonio**
ile apaindegia

Ondo pasa
Sanjuanetan!



Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10



TABERNA-JATETXEA
CENTRO EXTREMEÑO



BEREZITASUNAK:
plater konbinatuak,
kazolatxoak eta tapak

Jai zoriontsuak!

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE.

Tel: 646 21 99 67

ELKARTASUNA > 'OPORRAK BAKEAN' PROGRAMA

Saharako 15 neska-mutiko iritsiko dira uztailaren hasieran Debagoienera

Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi elkarten eskutik, 13 haur izango dira aurtengo udan; Bergarako Bubisherrek, berriz, bi ekarriko ditu

MIRIAN BITERI > BERGARA

Urtero moduan, Tindoufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak etorriko dira gurera, *Oporrak bakean* programaren harira. Nubi elkarteko kide Agurne Juldainek azaldu digu aurreko urteotan baino ume gehiago etorriko direla aurtengo udan Arrasatera eta Aretxabale-tara: "Nubiren eskutik Arrasatera bederatziko datoz, bost mutiko eta lau neska; eta Iesbaaren bidez lau etorriko dira. Oñatin eta Eskoriatzan ez dituzte hartuko".

Oso pozik daude esandako bi elkartetan, programan familia berriak sartzea lortu dutelako. Horren harira, aipatu du Arrasaten bost ume lehen ere etorriko direla eta lau ume berri har-



Joan den urtean Bergarako Udak ume sahararrei egindako harrera.

GOIENKARIA

tuko dituztela, eta Aretxabaletan aurretik egondako hiru mutil eta neska berria izango direla.

Bestalde, Bergarako Bubisher elkartean eskutik, ume gutxiago datoz aurtengo udan. Bi haur etorriko dira; bat Bergara-

ra eta bestea Antzuolara. Aurretik gure artean egondako neska dira biak.

UZTAILAREN 8tik 10ERA

Bi hilabete emango dituzte guztiek Debagoienera. Uztailaren

8tik 10era bitartean iritsiko dira eta irailaren hasieran dira joatekoak. Juldainen arabera, "epe horretan, familiek umeak jantzi, jaten eman, familiako ekin-tzetan parte hartu eta osasun azterketak egitera eramango

DATUA

5

FAMILIA BERRI

Aurten, Debagoienera bost familia berri sartu dira *Oporrak bakean* programan. Horietako lau Arrasatekoak dira eta gainerakoa, Aretxabale-takoa.

ESANAK

"Familiek jantzi, jaten eman, familiako ekin-tzetan parte hartu eta osasun azterketak egitera eramango dituzte"

Agurne Juldain > Nubiko kidea

dituzte; hain justu ere, etxeko beste kide bat balitz moduan egongo dira haur hauek familietan".

Urtero legez, udaletan harre-ra egiteko asmoa dago, baina oraindik zehazteke dago horiek noiz egingo diren.

ELKARTASUNA > SARIAK

Antzuola, Bergara eta Oñatiko zortzi odol emaile omendu dituzte asteen, Bartzelonan

Elgetan urriaren 24an egingo duten ekitaldian jasoko dituzte dominak zortzi debagoiendarrek

M.B. > BERGARA

Odol Emaileen Egunaren harira, Gipuzkoako 41 emakume eta 54 gizon omenduko dituzte asteen Bartzelonan, 60tik 75era bitarteko odol emate egin dituztelako. Besteak beste, zortzi debagoiendar daude: lau antzuolar, hiru bergarar eta oñatiar bat. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartetik azaldu digute lagun horiek urriaren 24an Elgetan egingo den ekitaldian jasoko dituztela dominak.

DIPUTAZIOA SARITUA

Bestalde, ekitaldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009. urteko *Odol emaile altruisten merezimendua aitortzeko Espainiako saria* jaso zuen, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak proposatuta. Odol emate altruistaren alde frogatu duen eskuzabaltasunarengatik saritu zuten Aldundia; erakundeko funtzionarioen eta enplegatuen jokaera eskertu nahi izan zuten modu horretan, odola ematearen aldekoak izan dira eta 45 urtetan.

Emaille sarituak

ANTZUOLA

> Itziar Manzisidor.
> Iñaki Arregi.
> Juan Francisco Lamariano.
> Migel Angel Lizarralde.

BERGARA

> Mari Kruz Sanchez.
> Xabier Areitio.
> Xabier Zabaleta.

OÑATI

> Luis Mari Maiztegi.

HEZKUNTZA > MURRIZKETAK

Jaurlaritzaren proposamen berria positiboki baloratu dute eskola publikoetakoek

Hezkuntza Sailak murrizketak aurreikusten baditu ere, negoziatzeko gertu azaldu da; zuzendariak asteen elkartuko dira osterara ere

M.B. > BERGARA

Azken asteotan zeresan handia eman dute hainbat ikastetxe publikotako zuzendariak. Hase-re agertu dira Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak planteatu dituen langile murrizketekin, eta murrizketok aurrera eginez gero, dimititzeko asmoa ere erakutsi dute. Jaurlaritzak proposamen berria egin die orain: murrizketak egongo dira, baina ez handiak, eta negoziatzeko gertu agertu da.

Hezkuntzak urtero bidaltzen dizkie ikastetxe publiko-ei hurrengo ikasturterako zentro bakoitzean aurreikusten duen langile kopurua. Aurtengo hasierako aurreikuspen horrek planteatzen dituen murrizketek kalitateko hezkuntza eskaini ahal izatea oztopatzen dutela uste dute zuzen-

dariek. Maiatzaren 24ko astean jakinarazi zieten hori zuzendariak, eta haiek berehala hasi ziren mobilizatzen. Ekainaren 9rako, 175 zuzendari baino gehiagoren atxikimenduak jaso zituzten.

Joan den astean, baina, bigarren proposamen bat jaso zuten, zuzendarien ustez aurrekoa baino onargarriagoa. Eskoriatzako Luis Ezeizako zuzendari Arrate Landaren arabera, "hainbat murrizketa daude eta oraindik badauka zer hobetu, baina lehengoarekin alderatuta izugarriko aldea dago".

HILAREN 25EAN, BATZARRA

Zuzendariak berriz ere elkartuko dira hilaren 25ean, egoera orokorrean aztertu eta denentzen artean dagokion erantzuna emateko.

islada
ile-apaindegia

SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.

Gora, Sanjuanak!

Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: isladaileap@hotmail.com



Markel Olano diputatu nagusia, Iñaki Arriola Garraio sailburua eta Mikel Cabieces Espainiak EAEn duen ordezkaria, lehen harria jartzeko ekitaldian.

JOKIN BEREZIARTUA

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Bergara-Antzuola arteko lehen harria jarri dute

Lau kilometro pasatxo izango ditu tartea eta ia zati osoa tunel barruan joango da: 3,9 kilometro, hain zuzen

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA
80 kilometro izango ditu AHTren Gipuzkoako zatiak, eta horietatik lau kilometro Bergara eta Antzuola artekoak izango dira. Tarte hori Jaurlearitzak egingo du.

Astelehenean jarri zuten Bergara-Antzuola zatiko lehen harria. Kukubaso mendian egin-

dako ekitaldian, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburu Iñaki Arriola, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano eta Madrilgo Gobernuak EAEn duen ordezkari Mikel Cabiecesek hartu zuten parte, besteak beste. Arriolak AHTren lanekin aurrera egiteko Jaurlearitzak duen "konpromisoa" berretsi zuen, eta, horrez gain, orain arte egin diren lanak ingurumenari "zor zaion errespetu handienarekin" egin direla adierazi zuen.

Bergara-Antzuola tarteko zati handiena tunel barruan joango da: tartea duen 4,2 kilometroetatik, ia 3,9 kilometro tunela izango da. Modu horretan, ingurume-

nari kalte txikiagoa egingo zaio-
la uste du Garraio sailburuak. Hiru urteko epea izango dute lanak amaitzeko eta aurrekontua da 106 milioi euro eta erdi.

DATUA

4,2

KILOMETROKO TARTEA

Bergara-Antzuola tartea lau kilometro pasa izango ditu. Ia zati osoa tunelean joango da: 3,9 kilometro. Jaurlearitzak inoiz esleitzeko eman duen luzeena da.

PROTESTA EKITALDIA

AHTren kontrako zenbait ekin-tzailek, *Txikitzaileek lehen harria, naturazaleok lehen landarea* lelo hartuta, zuhaixka bat landatu zuten protesta modura.

Horrez gain, bihar Bilbon egingo den manifestaziora deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak, AHTaren hipotekak itotzen gaitu! AHTrik ez! lelopean. Jesusen Bihotza plazatik irtengo da manifestazioa, 17:30ean. AHTren aurkako ekitaldira joan gura duenak autobusa izango du Arrasaten: Garibai plazatik, 15:30ean.

ESANAK

"Teknikariek goitik behera begiratu dute proiektu bakoitza, begi eta soinu inpaktuak ahalik eta txikienak izateko"

Iñaki Arriola > Garraio sailburua

> HERRIGINTZA

Jose Luis Elkoro Libre legezatzeko bigarren mahaia bihar plazan

Legeak ezartzen dituen bete-beharrak osatuta, Jose Luis Elkoro Libre plataformako kideak elkarteko kide berrien bila ari dira. Hala, atzo mahaia bat jarri zuten Bergarako Irizar kalean, eta bihar, zapatua, helburu berarekin jarriko dute beste mahaia bat, plazan (12:00-13:00). Bestalde, uztailaren 2an bizikleta martxa egingo dute kaleetan zehar, Elkoro aska dezaten eskatzeko.

> ERAIKUNTZA

Balorzio erabat ezberdinak grebaren jarraipenaren gainean

Eraikuntza sektorean izaera mugagabeaz eguaztenez hasitako grebaren jarraipenaren gainean askotariko irakurketak egin zituzten ELA eta LAB sindikatuek eta Adegik. Sindikatuek Gipuzkoako eraikuntza sektoreko langileen "gehiengo zabalak" greba egin zuela diote.

Adegik, berriz, grebaren jarraipena "oso txikia" izan zela jakinarazi du.

> OSASUNA

Anbulatorioak aste osoan zabalik izateko eskatu du ELAK

Debagoieneko ELAK eskatu dio Osakidetza-ri aste bukaeretan ambulatorioak irekita edukitzeko. Osakidetza bihar bertan ekingo dio ambulatorioak ixteari. Bada, ELAK zapatuko kontsulta zerbitzua herri-tarrendako "oso garrantzitsua" dela gogorarazi dio Osakidetza-ri. Hala, erabaki horrek gizarte zerbitzuak pribatizatzeko ereduari jarraitzen diola uste du sindikatuek.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAIbargarai 1 20570 BERGARA. • Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40 • Faxe: 943 76 38 41 • e-posta: imaltuna@sarenet.es

ESKAINITZA PARTZIALA

GOI MAILA

- FABRIKAZIO MEKANIKOA. Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa.
 - Zenbakizko kontrol bidezko mekanizazioa 240 ordu
 - Ordenagailuz lagundutako fabrikazioa 40 ordu
 - Produkzioaren programazioa 120 ordu
 - Ingeles teknikoa 40 ordu
 - Laneko prestakuntza eta orientabidea 99 ordu

ERDI MAILA

- ELEKTRIZITATEA. Ekipo eta Instalazio Elektronikoak.
 - Elektroteknia 198 ordu
 - Barneko elektrizitate instalazioak 297 ordu
- FABRIKAZIO MEKANIKOA. Mekanizazioa.
 - Mekanizazio prozesuak 165 ordu.
 - Txirbil harroketa bidezko fabrikazioa 363 ordu

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOKO SARRERA PROBAREN PRESTAKETA

ATAL KOMUNAK

- Lengua – Euskara.
- Matematikak.

INSKRIPZIOA

Ekainaren 25era arte
Lana eta ikasi batera egiteko aukera

Lan erreforma beharrezkoa dela dio Xabier Iturbek. Halere, dio ez dela "mito bihurtu" behar. "Lortu behar da lan gehiago eta hobeto egitea". Eta, hori lortzen dela, "produktibitate handiagoarekin, lanordu gehiagorekin edo jende gehiagorekin". Vital Kutxak proposatutakoategite hotzaren aurka dago: "Diru beharra dutenek erabiltzen dute formula hori eta guk ez daukagu premiarik".

Xabier Iturbe > Kutxako presidentea

"Euskal kutxak batu aurretik, krisi finantzarioa gainditu egin behar da"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Bi urte dira Xabier Iturbe Kutxako presidente dela. Euskal kutxen bate-ratze prozesuak porrot egin ostean, krisiari aurre egiteko neurri eraginkorrak bultzatu ditu Kutxak. Kritikak iritendakoan, kutxen bate-gitea bultzatu beharko dela uste du.

Bizi dugun krisi hau finantza erakundeek sortutakoa dela esan izan da. Hala da?

Egia da, krisi honetan, finantza erakundeok badaukagula erruaren zati bat. Komeni baino kreditu gehiago eman dugu, baina kredituak eman ditugu jende-ak eskatu dizkigulako.

Herritarrak oso kritikoak dira bankuen erreskatearen gaiarekin. Horrek ekarri ei du estatu-zen zorpetzea eta une honetan bizi izaten ari garen krisia...

Ez dut uste hori hala denik. Hemen, esaterako, estatuak oraindik ez du dirurik ipini finantza erakundeak erreskatatzeko. Estatuaren arazoa da gastatzen duela gehiago jasotzen duena baino. Orain hemen jokoan dagoena da jendarte ongizatea. Hori kudeatzen jakin behar da orain.

Krisiari aurre egiteko Zapaterok hartu dituen neurrien inguruan ze iritzi daukazu?

Neurriak hartu behar ziren askoz ere lehenago. Diagnostikoa ez dute asmatu. Pentsatu dute edo pentsatu nahi izan dute krisi hau eskaera krisia zela, kontsumo faltagatik sortua. Eta argi geratu da krisiaren arrazoia ez dela hori. Eskaintza arazoak, lehiakortasunik ezak sortu du krisia. Txinatarrak, indiarrek... sartu dira indartsu merkatuan eta horiekin lehiatzeko arazoak izan ditugu.

Lehiakorrak izateko eredu aldatu beharra azpimarratu du Zapaterok.

Bai, baina hori esatea da gauza bat eta beste bat gauzetik egunera eredu aldatzeko. Euskal Herrian industriaren alde egin dugu beti. Hori izan da gure motarra eta Debagoiena da horren erakusle. Madrildik sarri esan izan dute industria politikarik ez dela behar.

Kutxak ze neurri hartu ditu krisiari aurre egiteko?

Orain dela urte bi hasi ginen eta lehenengo helburua izan zen euskal kutxen bategitea bultzatzea, krisiari hobeto aurre egite-

aldera finantza erakunde indartsua edukitzeko eta, batez ere, gure bezeroei, herriari, babes handiagoa emateko. Hori ez zen lortu, eta, hala, kutxa bakoitzak hartu zituen bere neurriak, bakarka: efizientzia eta errentagarritasuna handitzea, produktiboak ez diren aktiboak baztertzea, marjinaren eta arriskua- ren kudeaketa egokia.

Lan erreforma beharrezkoa da?

Argi dago beharrezkoa dela lan erreforma bat. Langabezia handiari aurre egiteko eta lanpostu berriak sortzeko premia izan da lan merkatua berritzea. Halere, lan erreforma ez da mito bihurtu behar. Lortu behar dena da lan gehiago eta hobeto egitea. Hori egiten da produktibitate handi-agoarekin, lanordu gehiagorekin edo jende gehiagorekin. %20ko langabezia tasa daukan jendarte bat lehiakorra izatea eta bere kontu publikoak positiboak izatea oso gaitza da.

Nondik nora joan beharko luke lan erreforma horrek?

Malgutasuna beharrezkoa da, baina ondo ulertutako malguta- suna. Konturatu behar dugu enpresa denok garela, langileak eta nagusiak. Lanpostuak ez dira sortzen legez edo dekretuz. Enpresa ondo badao, lanpostuei eutsi-ko zaie eta berriak sortuko dira.

Sindikatuak grebarako egin duten deia- ren gainean, ze iritzi?

Sindikatuak jokoz kanpo dau- dela iruditzen zait. Greba oroko- rrak ez du ezer konponduko.

Noizko euskal kutxen bategitea?

Egoera apur bat baretzen denerako. Krisi finantzario hau gainditu egin behar da lehenbi- zi. Bestetik, kutxen gaineko legea aldatzera doa eta jakin arte lege berria zela geratuko den ez da komeni ezertan hastea. Gure borondatea da euskal kutxak batzea. Batetik, elkartzeko boron- datea daukagulako, kutxa euskal- dunak garelarako; bestetik, tekni- koki edo funtzionalki, hiru kutxa osagarri garelarako; ez daukagu sarerik bikoiztuta...

Fusio edo bategite hotza aipu- tu du Rojok, Vital Kutxako presidentea. Zer da hori?

Tarteko figura bat. Ez da bate- gitea, elkarlana gauzatzeko modu bat baizik. Bategitea gogorra da langileendako, zuzendarienda- ko, batzarkideendako... Bategi-



Xabier Iturbe, martitzenean, Goiena Telebistan.

ENEKO AZKARATE

BEZEROAK

"Jendea zuhur jokatzeko ari da eta aurrezten dabil lehen baino gehiago"

BANKA EREDUA

"Internet erosteko ona da, baina saltzeko zaila; horregatik, beharrezkoak dira sukurtsalak"

tean, aulkiak murriztu egiten direlarako. Bategite hotzarekin, oster, aulkiak ez dira murrizten, gehitu baizik.

Eta egokia da bategite hotza euskal kutxendako?

Ez dut sinisten fusio hotzetan. Diru beharra daukatenek erabil- tzen dute formula hori eta guk ez daukagu diru premiarik.

Igarri duzue enpresetan, indus- trian-eta, hasi direla inber- tsioetarako kredituak eska- tzen?

Gutxi. Enpresaren mundua gelditu dago. Urteko lehen sei hila- beteotan apur bat mugitzen hasi da, esportazioekin-eta, baina oso gutxi. Batez ere eguneroko jar- dunari laguntzeko, baina inber- tsioetarako-eta oso gutxi.

Eta erakunde publikoak diru asko eskatzen dabilta?

Horiek bai. Beharrak dituzte, defizitak dituzte, eta finantza- tzeko premiei erantzuteko eska- tzen dituzte kredituak.

Gipuzkoarron zorpetze maila zenbatekoa da? Hau da, zela daude Gipuzkoan familiak?

Gipuzkoakoa ekonomia sen- doa da: industria-ehun indartsua dago, asko esportatzen da, balan- tza komertziala positiboa da. Hor- taz, aurrezte maila egokia da. Horregatik dago Kutxa dagoen posizioan eta egoera onean. Gai- nera, bizi dugun egoeratik, jen- dea zuhur jokatzeko ari da eta aurrezten dabil.

Sinatu berri duzue hitzarmen- na Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin, bertako enpre- sak nazioarera zabaltzen laguntzeko?

Sortu dugu enpresa bat: Kufi- nex. Helburua da Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainei lagun- tzea kanpora irteten. Komertzial- ki, Merkataritza Ganberak beze- roari lagunduko dio, baina enpre- sek kanpoan saltzeko finantza- zioa behar dute eta Kutxak lagundu- ko die horretan.

Inbertsio handiak ditu Kutxak higiezinetan?

Ez. Inbertsio batzuk egin gen- tuen bere sasoiaren mediterraneo aldean, baina besterik ez, beste- ak beste, Gipuzkoan ez zelako izan beste lurralde batzuetan gera- tu zen higiezinaren boom hori. Bere- kortasun tasa txikia daukagu, sektorearen erdia, eta etxebizitza gutxiarekin geratzen gabiltza.

Norantz doa banka eredu- a?

Azkeneko urteotan asko alda- tu dira sukurtsalak. Lehen ziren eragiketarako egiteko tokiak. Orain, apurka-apurka, bihurtzen ari dira harreman komertzialerako gune- ak. Internet erosteko ona da, bai- na saltzeko oso zaila. Horregatik beharrezkoa dira sukurtsalak. Kutxak ditu 350 sukurtsal.

goiena.net/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.



zabalik

Diego Martiartu

Enkantea

Enkante aretoa jendez leporaino bete da. Batzuk, aulkirik ezan, aretoaren ertzetan pilatu dira zutik. Bertakoak nahiz atzerriarrak, denak daude urduri enkantea noiz hasiko zain. Enkantegilea enpresaburu aski ezagun bi alboan dituela dago eserita mahaian. Goizeko bederatzietan eguneko lehen eskaintza atara dute enkantera.

–Egun on, denoi, gure lehen eskaintza 1.000 euroan jarri dugu, nork ematen du gutxiago?

–900! –oihu egin du andre nagusi batek aretoaren barrenetik.

–800! –gainjarri zaio aurrekoari ahotsean hegoamerikar doinua ezagun duen gizontxo beltzaren bat. Isiltasuna barreiatu da gelan...

–650! –eztarria urratzeraino oihu, sudurrean *piercing*-a ageri duen neska gazte ilehoriak gelaren erdialdetik.

–500! –beste hegoamerikar batek aldamenetik. "Oraingoan autoa saldu beharko dugu, eta txoped eta mortadela gehiago jan, baina zer egingo diogu ba...!", esan dio belarri ertzeraz emazte aurpegi goibelari.

–400! –Europa ekialdeko azentudunak lehen lerrotik. Zurrumurrua zabaldu da jendardean, harridurazko keinuekin lagunduta.

Enkantegileak alde banatara eserita dituen enpresaburu biei begiratu die eta baiezko keinua bueltatu diotenean, mailutxo eskuan hartu eta esan du:

–400 euro... bat... 400 euro... bi... eta...

–Nik 300!!! –bigarren lerrotik etorri da txilioa. Mundu guztia hasi da buruen artetik 300ekoa bota duena nor izan den ikusi guran.

Enkantegileak egurrezko mahaia mailuz jo eta esan du:

–Esleitua! Lanpostua bigarren lerroko gazte zarpailarentzat da.

Enkantegilearen ondoan dauden enpresaburuak irribarre egin dute eta kontratua sinatzera deitu dute esleipenduna. Jarraian bigarren lanpostu eskaintzaren enkanteari ekin diote.

usteak uste

Edu Mendibil

Marmota eguna Hegoafrikan

Harri berarekin bi aldiz estropezu egiten duen bakarra gizakia da", zioen aspaldiko iragarki batek. Munduko futbol txapelketa hasiera doan bakoitzean faboritua da beti Espainia... estropezu egiten duen arte. Berdin dio: hurrengoan ere kirol kazetariak ia-ia errespetua galduko diote aurkariari eta ahoa beteko zaie Espainia (barkatu, *La Roja*) goraiatzatzen. Errudunak topatzen ere ez dira makalak: epailea ez bada, Luis Aragonesen itzal luzea, edo *Manolo el del Bombo* (vuvuzela artean galduta)... edo Sara Carbonero, atezaina despistatzearen.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Jarduera orduak

Pello Zabala

<http://berria.info/blogak/pellozabala/>

Goizeko hamarterdiak pasatxo. Zozoak isilik. Jatordua ote? Jarduera orduen taulan erreparatu eta, halaxe izan. Arrainak bezalaxe, hegaztiak ere badituzte beren jarduera orduak, auskalo zerk, sei ordutik sei ordutara jatena bila, otordutara daramatzatenak. Gaur goizeko 10,22ean zuten otordutarako. Euritan jardun behar, -euriak ere bere jarduera uneak baititu-, goseak janbila abiarazi dituenetik: abiarazi, (ez habiarazi), kabitatik kanpora dabiltz aspaldian eta. 11 zozo, zortzi gazte, udaberri honetako kumatakoak libertiaraz naute orduerdi pasatxo. Gurasoak ere hor zituzten, inguruan, bi ikusi ditut moko hori luzexka kanturako ez baino, landalan prest zutela, huntzaren pipita beltz bustiak kazka-kazka, jandajan...

Isats beltzak buxti-buxti ta mela-mela dauzkate, euripea gutxi balitz, huntzaren hosto-

tartean baitabiltz; huntzak gustuz eusten dio urari: kumatakoak ere, isatsa soil beltzaren, ondo bustia; gainerakoa oraindik lumaje arre lehen hilabetetako izan, abuztu aldera etorriko baitzaie mudaldia.

Gaztetzaren hauek ere, jolasgurak aparte uzten badakite jarduera orduak barrutik behartzen ditueneko. Huntzaren azpiko nahiz zeharkako ta gainetiko kaleak eta koxkak, semafororik ez daukate, hemendik sartu handik irten, haruntzaxego mokadua, honuntzarakoan kizk-kizk... momentu askotan, halere, lumak guztiz bustitakotan, nago jolasjale areago dabiltzala huntzaren pipitetan kozka-kazka baino...

Hamaikak, hamaikak eta bost, hortxe bukatu dira harat-honatak eta jolasjanak... kotaratuta egon apur batez... eta hor abiatu dira kantu norgehiagokan moko horidunak. Kumatako gazteak, entzun eta ixo... berriro jolasgurak arindu eta pizarazitakotan kotatik bota dituen artio... Hamaika ta erditan, euri aterrean, nork geldiaraz zortzi jolasti gazteon olgura ta olgabeharrak...?

koplak

Andere Arriolabengoa

Errealia aurten primeran

Aurten Errealia ibili da talde bezala primeran, hiru urte pasatu ondoren berriro ere primeran.

Lehen postua lortu dute ta demostratu horrela, diru gutxi ta ilusioz edozer lor daitekeela.

Nahiz eta afizioa egon beraien gainean aurten, Arantzazuko Ama Birjinak ere lagunduko zuen.

Afizioak gozatu zuen Errealaz azkenean, Donostia txuri ta urdina bihurtu zen igandean.

Esan behar da jarraitzaileak dira sutsu ta galako, momentu on eta txarretan beti egon direlako.

Gipuzkua osoa ageri da ilusioz beteta, gozatu eta ospatu beraz merezi duze eta.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Saietako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriaketa Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Iñaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Leges Gordinak: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • **Tirada**: 20.000 ale • **Difusioa**: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Euzko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Aintzane Oiarbideri erantzuna

Mikel Etxaniz

(Aralarko zinegotzia Bergaran) Bergara

Eztabaida antzuetan denbora galtzeko asmorik gabe aurreko astean Aintzane Oiarbidek idatzitako mezuaren gainean Bergarako Aralar Udal Taldeak hurrengo azalpenak eman nahi ditu:

-Gobernuko kide garen heinean gure egiten dugula Agurne Barrusok ekainaren 4ko mezuan permutaren gainean adierazitakoa.

-Aintzane Oiarbide ez da inor ez Aralar, ez EAE, ez EA, ezta PSEko udal taldeetako zinegotziek gai honen inguruan duten iritzia eta erabakiak gutxiesteko. Gaur egun taldeotako zinegotziok Udalbatzaren gehiengoa osatzen dugu, 12 kide, eta EAJko zinegotziak 5 besterik ez dira. Beraz, permutak EAJ ez beste alderdi guztien babesa dauka; alegia, bergararren ordezkartzaren gehiengoaren babesa.

-Bai, aurreko legegintzaldian Gobernu Taldean izan ginen EAJ eta EArekin batera. Ez dugu horren inongo damurik, behin baino gehiagotan adierazi dugin bezala, eta orduan, gaur egun bezala bergararren alde lanean saiatu ginen, inongo alderdikeria barik. Gauza batzuetan ados geunden, beste batzuetan ez, baina elkarlanean errespetuz saiatu ginen denok, hiru taldeetako kideok. Aurpegiratzen diguzu bai guri eta bai EAri iritziz aldatu dugula. Eta hala da. Guk, behintzat, iritziz aldatu dugu; izan ere, legegintzaldi honetan aukera berriak sortu dira, lehen ezagutzen ez genituenak. Guri, behintzat, ez zitzaigun gaur egun permuta posible egiten duten baldintzen informaziorik iritsi. Informazioa eta aukera horiek legegintzaldi honetan sortu dira, eta horregatik aldatu dugu iritziz, eta ez EAJren aurka egitearren, Aintzanek aditzera ematen duen bezala. Eta beste kontu bat: "Joan den legealdian gurekin (EAJ) batera Gobernu batzordetik guk egindako kultura plangintza babestu zuena" aipatzea ez zaigu batere egokia iruditu. Zuek egin zenutena? Ez geunden ba elkarrekin gobernuan?

-"Zuek diozuen Euskal Herriaren aurkako alderdi espainolistaren..." babesa dugula txarresten duzula dirudi. Adierazpen tamalgarrria erabat. Gehiengoa lortzeko beharrezkoa izan gabe, PSEko ordezkariek beraiek eman dute

aldeko botoa. Ez dut uste orain zu hasiko zarenik PSEko kideen botoak gutxiago balio duenik esaten... Beste kasu batzuetan zure alderdiak, behintzat, ez du hala egiten.

"Ekin ezazioue (sic) zuek ere, diputatu nagusi Markel Olano jaunak dioen bezala, kultura politiko berri bati". Horren inguruan apunte pare bat, Aintzane Oiarbide batzar-kidea: espero dugu kultura politiko berri horren ondorioz zure mezuen tonua eta edukia aldatzea, zure azkeneko mezuak eraikitzailetik gutxi baitauka (mezu luze horretan benetako eztabaidagaia denari, permutaren auziari, inongo ekarpen berririk ez, eta deskalkifikazio gehiegi).

Eta bestetik, badirudi iritziz aldatzea ez duzula oso gustuko, eta, gainera, harro eusten diozula EAJk Bergaran jarrera berdina mantentzeari. Ba, gure iritziz, batzuetan jarrera mantentzea bertutea da eta beste batzuetan ez. Kasu honetan, denborak aukera berriak jarri dizkigu mahai gainean, eta gure ustez, EAJk lehengo jarrera mantentzea oker bat da. Baina errespetatzen dugu Bergarako EAJ Udal taldearen iritzia, eta ez dugu horregatik auzo-lotsarik pasatuko.

Zero zabor II

Rebeka Ubera

(Aralar)

Elgeta

Gutziz ados, Lasagabaster jauna: hondakinak ez nahastea ez da borondatezkoa izan behar. Nork esan du borondatezkoa izan behar dela? Hain zuzen ere, Foru Aldundiak orain arte 5. kontenedoreari eman dion borondatezko izaeraren ondorio dira materia organikoaren bilketak izan dituen emaitza kaskarrak. Emaitza horiek ez dira kasualitate izan. Atez atekoaren kasuan eta kontenedore klasikoaren ereduaren kasuan, eredua nola ezartzen den, edo ematen zaion izaerak, beste neurri batzuekin gertatzen den bezala, ba emaitzetan bere ondorioak ditu. Ikusteko daude oraindik 5. ontziak eman ditzakeen emaitzak herri guztian eta herri guztietan zabalduz gero, berorren erabilera formakuntza egoki baten bidez bideratzen baldin bada, edo eta materia organikoaren bilketara iritsi aurretik herritarrekin lan serio bat egiten baldin bada. Ez dezagun gure burua engaina, eta ez ditzagun herritarrak nahasi. Atez atekoaren eta 5. ontziaren artean dagoen eztabaida faltsua da. Faltsua da, ez direlako kontrajarriak. Adibide gisara

hor ditugu kubotxoa eta 5. ontzia elkarlanean bai Usurbilen eta bai Hernanin.

Halaber, hainbat kontu argitu nahi nizuke. Argitu nahiko nizuke biltzen den guztia ez dela birziklatzen. Gauza bat dela bilketa eta beste bat birziklapena. Biltzen den guztia zoritxarrez ez da aprobetxagarria, biltzen den paperetik, plastikoetatik, baita materia organikotik dena ezin da birziklatu, dena ezin da konpost bihurtu. Beraz, bilketa datuak hor daude, bai atez atekoarenak eta 5. ontziarenak. Zalantzarik gabe, atez atekoak Usurbilen erakutsi du bere bilketa gaitasuna bikaina dela. Baina Usurbilen eta bilketa. Ez ditugu birziklapen datuak ezagutzen, nahiz eta eskatu. Ez dugun ezagutzen bezala 5. ontziko bilketaren datuak zeintzuk izango ziratekeen martxan jarri den herrietan herri osora zabalduz gero. Zorionez, edo zoritxarrez, herri guztiak ez dira berdinak.

Lasagabaster jauna, ados bilketak bere garrantzia duela eta bere eragina duela. Eta oso oso garrantzitsua dela bilketa era egokian ezartzea eta gauzatzea. Baina bilketa besterik ez da. Ondoren zaborrak tratatu egin behar dira. Edo zer egin behar dugu biltzen dugunarekin? Zabortegira eraman? Paperaren zati bat birziklatuko da; bestea? Plastikoaren zati bat birziklatuko da; beste zatia? Materia organikoaren zati bat konpostatuko da; eta bestea? Zabortegietara, zuek esaten duzuen bezala? Non jarriko dugu zabortegia, Eskoriatzan?

Gakoa, bihotza, prebentzioan dago. Ahalik eta zabor gutxien sortzean. Hau da, gure gizarte ereduan, kontsumoan. Gutxiago sortu, gutxiago biltzeko. 1-Gutzitzea (minimizazioa); 2-Berrerabilpena; 3-Birziklapena. Zaborren kudeaketa bere osotasunean ikusi behar da, era integral batean, ikuspegi partzialetatik ihes eginez. Ikuspegi soziala, ambientala eta ekonomikoa barne. Osotasunean. Baina zoritxarrez, inon, inon ezin errealitate bilakatu zero zabor.

Zoritxarrez, gizarte kontsumista batean bizi gara, gizakiok kontsumitu eta kontsumitu egiten dugu. Batzuek gutxiago eta beste batzuek gehiago. Ondorioz, energia ere kontsumitzen dugu, eta gero eta gehiago, gainera. Energia ere nonbaiten sortu behar dugu. Zergatik ez zaborretik? Hor dugu aukera paregabea, erronka: hondakina, errefusa, energia berriztagarri bihurtzea. Eta hori gasifikazioarekin egin genezake. Egia da gasifikazioan, aurretik metal astunak kentzen ez baditugu kutsadura maila

altua sor dezakegula. Errausketa beste. Baina Aralarrek proposatzen duena da gasifikazio plantara eraman aurretik metalak kentzea tratamendu termiko baten bitartez, eta hain juxtu tratamendu horretan berriro zaborretan bereizketa egitea, birziklatze zirkuitura itzularaziz oraindik aprobetxagarriak izan daitezkeen platikoak, materia organikoa eta paperak. Eta geratzen dena, geratzen den hondakina gasifikazio plantara konbustio anaerobio baten bidez tratatu. Horregatik, gasifikazio plantak errausketa plantak baino gutxiago kutsatzen du. Ez du dioxinarik, furanorik... isurtzen. Kantitate txikiagoetan ere bideragarria da; horregatik, makroazpiegiturek ekiditeko aukera ematen digu eta hurbiltasun printzipioa errespetatzeko aukera ere bai. Hor dago aldea, gasifikaziora eraman aurretik jartzen dugun azpiegitura metalak kentzeko. Aipatu ere, gasifikazioaren bidez erregai desberdinak lor genitza-keela.

Eta gehiago luzatu gabe, nahiz eta pasioak pizten dituen gai honekin luze jarrai dezakegun. Lasagabaster jauna, legealdi hasieran, hau da, orain dela 3 urte, Aralar eta Batasuna mankomunitateko gobernuan sartu zirenean, eskaini genizun, proposatu genizun bion artean zaborren kudeaketaren inguruan proposamen bat lantzea. Ez genuen erantzunik izan. Gaur arte. Zertara datoz orain, legealdi bukaeran presa hauek? Atez atekoa, zergatik ez duzu jarri alkate zaren zure herrian martxan? Goazen gauzak ondo egitera, patxadaz, ematen ditugun pauso guztiak berme guztiekin ematera. Gero gure kontra ez etortzeko. Atez atekoa bai, baina beste proiektuekin egiten den moduan bideragarritasun plana, ekintza plana, gauzatze egutegia eskuetan izanda. Izan gaitezen serioak.

Errausketarik ez! Goazen denon artean zaborren gai konplexu honi elkartasunetik eta korresponsabilitatetik irtenbidea ematera. Bandera politikoetatik haratago.

AHT, hezkuntza eta PNV

Ibai Redondo Beitia

Bergara

Aste honetan hasi dituzte AHTren obrak Bergaran, Iñaki Arriola (Jaurlaritzako Garraio sailburua, PSE) eta Markel Olano (Gipuzkoako diputatu nagusia, PNV) izan dira lehen harria jartzen. Harri hori eta atzetik etorriko diren milioika metro kubiko porlan bergarar,

gipuzkoar eta euskal herritar guztion poltsikoetatik ordainduak eta gure bizkar gainean jarriak izango dira. 2.000 milioiko gastua Gipuzkoan! Historian gure herrialdean egin den obrarik handiena, zertarako? Tren hau ez da soziala: ez du balio bergararrak edo debagoiendarrak gure eskualde barruan mugitzeko edo hiriburuetara joateko; tren hau, izatekotan, hegazkinari alternatiba da, distantzia luzeetarako. Proiektu honek ez ditu herritarron beharrak asetzen, desastre ekologikoa eragingo du (ikusi nahi duena joan dadila Untzilla aldera) eta krisi garaian diru xahutze ikaragarria da. Zeinen mesedetan egiten ari dira trena? 2.000 milioi euro horiek poltsikoratuko dituztenen mesedetan, noski, ladrilloaren eta porlanaren negozioan jarraitu nahi dutenen mesedetan. Gipuzkoan bereziki PNVren itzalpean lan egiten duten eraikuntza enpresa handiek egingo dute negozioa (Amenabar, Usabiaga, Altuna y Uria), EAJ berriz ere Partido del Negocio Vasco bilakatuz.

2.000 milioi euro! Patxi Lopezek EAErako egin duen aurrezte plana 150 milioikoa izanik, pentsa zein gastu egingo duten trenarekin. AHTn horrenbeste diru xahutzen duten bitartean herritarrok gerrikoa estutu behar dugu, eskubide sozialak murrizten dizkigute, laguntza behar gorrian dauden herritarrak (langabeak, etorkinak, emakumeak, gazteak, pentsionistak) miseriara kondenatzen dituzte, lan baldintzak okertu, udaletxeak larru gorritan utzi, gastu soziala murriztu (osasuna, garraio publikoa, hezkuntza, adibidez).

Hezkuntza izan beharko litzateke krisitik ateratzeko apustu nagusietakoa. Belaunaldi berriei kalitatezko hezkuntza euskalduna eskainiz, etorkizuneko Euskal Herriaren garapen ekonomiko, politiko, sozial eta kulturala ziurtatuz. Baina ez, hobe norberaren poltsikoa eta negozioak zaindu hezkuntzan inbertitu baino. Ez gaitatzela engainatu, Euskal Herria Europa mailan gastu sozialean azken bagoian dago, are eta gehiago hezkuntzan (%4 Espainiaren atzetik). Orain, adoktrinamendu espainolistarako neurriak onartu ondoren (euskara baztertzen duen trilinguismo legea, Euskal Herria desagerarazten duen curriculum dekretu berria edo biktimen lege iraingarria) eskolei irakasle kopurua murriztu diete eta hauek baldintza okerragoetan lan egin beharko dute. Biktimak ikastetxeetara eramaten dituztenean, gogoratu daitezela beraien politikekin guztiok bilakutzen ari garela biktima!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonaoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonao:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giriro!


Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetscea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



Herriak


Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Dragoi berria izango da jaietan, Kukubiltxok egindakoa > 13



> **OÑATI**
Pake Lekuko zuzendari berriak bere asmoez hitz egin digu > 20



> **ARETXABALETA**
Bidexka zaharrak berreskuratu gura dituzte etzi, VI. Mendi Martxan > 23



> **ARAMAIO**
Alex Mendikutek herriko txokoen argazkiak dauzka erakusketan > 26

BERGARA > ARGITALPENAK

PDF formatuan eta Internetez argitaratuko du Udalak ikerketa bat

SERORAK 'Serorak: gizarte bizitzaren analisia Deba Garaian (XVI-XVIII)' lana argitaratuko da

BEKA Udal Artxiboak ikerketak bultzatzeko emandako lehen bekarekin egindako lana da

EGILEA Mikel Larrañaga Arregi bergararrak egin du ikerketa; pozik dago argitaratu egingo delako

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Bergarako Udal Artxiboak ia geru dauka PDF formatuan eta Interneten argitaratuko duen lehenengo liburua: Mikel Larrañaga Arregi bergararrak idatzitako *Serorak: gizarte bizitzaren analisia Deba Garaian (XVI-XVIII)* delako ikerketa lana. Aipatutako formatuetan bakarrik emango da argitara, eta paperean inprimatu nahi duenak horretarako aukera izango du, PDFa jaitzita. Liburua jaitzi ahal izango da Bergarako Udalaren webgunetik (www.bergara.net).

Honakoa da Bergarako Udalak PDF formatuan eta Internetez argitaratuko duen lehenengo lana, baina ez da azkena izango. Esandako liburua Udal Artxiboen bidez Udalak ematen duen beka batekin egin du Mikel Larrañagak, eta Udalaren asmoa da beka horren bidetik datozen hurrengo lanak ere modu horretara argitaratzea.

Ikerketak hemendik aste gutxira ikusiko du argia. Udal Artxiboa hainbat tramite egiten dabil: batetik, liburua diseinatzeko dihardute; eta, bestetik, harendako identifikazio zenbakia (ISBN delakoa) eskatu dute, eta hori jasotzeko zain daude. Depositua ere egin behar da. Hau da, beste edozein libururekin bete behar diren eginbeharrak eta tramiteak bete behar dira.

ESKURATZEKO SAMURRAGOIA

Mikel Larrañaga Arregi bergararrak Historia arloko doktore-tza egiten ari zenean erabaki zuen beka deialdira aurkeztea, baita hura irabazi ere. Honakoa dio: "Oso ondo ikusten dut nire


lana Interneten argitaratzea; liburu formatuan baino samurrago eskuratu ahal izango da horrela, eta lana zabaltzea den guztia ondo iruditzen zait".

Larrañagari 2007an eman zioten beka hori. Bera Filosofian lizentziaduna da eta Antropologia ikasketak ere egin ditu, baina garai hartan, doktoretza egiten ari zen eta Historia aukeratu zuen horretarako. Seroren gainean ikertzea erabaki zuen, bere esanetan, "jakin-mina piztu" ziolako eta "erlijioa eta emakumeen gaia oso gutxi ikertuta" zegoela iruditu zitzaizolako: "Erlijioarekin lotuta, gizonezkoak ikertu izan dira gehiago, eta serorak alde batera utzi izan dira, nahiz eta presentzia handiagoa zuten; Bergaran eta Debagoien osoan, asko zeuden".

Ikerketa-lana eta tesia, biak batera egin behar izan zituen Larrañagak; hori dela eta, hasieran bere buruari ipinitako epea luzatu egin behar izan zuen. Laguntza aldetik ere, Udalarena bakarrik jaso zuen: "Dirulaguntza aldetik, ez zegoen ezer ikerketa mota horietarako, ez Eusko Jaurlaritzatik, ez Espainiatik... ezertxo ere ez".

PROIEKTUAK AURKEZ DAITEZKE

Bergarako Kultura eta Ondare zinegotzi Mikel Elkoroberezibarren esanetan, Udalaren asmoa da beka horrekin lagundutako datozen ikerketa-lanak ere Interneten eta PDF formatuan argitaratzea. Eta dei hau egiten du: "Bergararekin zerikusia duen ikerketa-lanen baterako proiektua dutenak edozein momentutan etor daitezke Udal Artxibora".



Bergarako moja klaratarren komentua. Irudi txikian, Mikel Larrañaga ikerlarria.

ENEKO AZKARATE

LABUR

Aiztogintza eta artazigintza ikertzen dihardu Azpiazuk, iazko beka irabazita

Serorak: gizarte bizitzaren analisia Deba Garaian (XVI-XVIII) izan da Bergarako Udalak ikerketa-lanak laguntzeko sortu zuen bekaren lehenengo emaitza; bada, bigarrena ere martxan dago, eta hori ere PDF formatuan argitaratuko da Bergarako udal webgunean. Hain zuzen ere, Oñatin bizi den Jose Antonio Azpiazu historialari legazpiarrak idatziko du ikerketa-lana, eta gaia izango da hauxe: *Cuchillería y tijerería de la Edad Moderna*. Udal arduradunek "interesgarritzat" jo zuten gaia; gainera, Aro Modernoaren gainean asko ikertutakoa da Azpiazu.

2010eko dirulaguntzari dagokionez, gaia zehaztu egin du Udalak: *Ilustrazio garaia Bergaran*, hain zuzen ere.



Jose Antonio Azpiazu.

GOIENKARIA

EKONOMIA > 2010EKO DIRULAGUNTZAK

Krisiak eraginda, dirulaguntzak %20 jaitsiko dira batez beste

Datorren astean zabalduko dute laguntzak eskatzeko epea; BAZen, Musakolako kiroldegian edo Udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Asteon onartu dute aurtengo dirulaguntzen deialdia. 743.567 euro banatuko ditu Udalak herriko talde eta elkarten artean. Horrek esan gura du jaitsiera nabarmena izango dutela dirulaguntzek iazkoekin alderatuta: %20koa, batez beste. Kopuruari begiratuta, 125.000 euro pasa gutxiago banatuko ditu Udalak 25 proiektu edo jardueratarako.

Udalean galdetuta, adierazi dute laguntzetan jaitsiera izan arren, ez dutela laguntza bat bera ere kenduko. Asmoa da "jaitsiera lineala" aplikatzea guztietan.

ESKAERAK UZTAILEAN

Eskaerak egiteko epea datorren astean zabalduko dute, uztailearen 23-26ra arte. Entregatu behar dira BAZen, Udal Erregistroan edo Musakolako kiroldegian.

ZERTARAKO ESKA DAITEKEEN

Dirulaguntza eska daiteke, adibidez, erretiratuen elkartetarako eta jardueretarako, zergak ordaintzeko, kirol edo kultura elkarterarako, ikastetxeetarako, gobernu kanpoko erakundeetarako eta musika taldeendako.

Gizarte Ongizate Sailak banatuko du kopururik handiena: 294.000 euro eta Hezkuntza dator ondoren, 188.500 euroekin.

1.000 euroko saria musean, Doke tabernan

Bihar, zapatua, 16:30ean dute hitzordua sanjuanetako 14. mus txapelketarako, Doken. Sari ederrak iragarri dituzte: irabazleek 1.000 euro eta urdaiazpikoak hartuko dituzte; bigarrenak 500 euro eta opariak; hirugarrenak 300 euro eta opariak; eta opariak laugarrenak. Izenematea da 40 euro bikoteko.



ROMAN LOPEZ

OMENALDIA > LEINTZ IBARREKO GIDARIEN ELKARTEA

Kepa Otxoa arrasatearra omendu zuten elkartekideek

U.M. > ARRASATE

Ibarreko gidarien elkarteak omenaldia egin dio Kepa Otxoa kide arrasatearrari, eta Jose Meabe bazkidea ere gogoan izan zuten. 35 bazkidek bat egin zuten ekitaldian. Joan den zapatuan (ekainaren 12an) egin zuten, Udalan.

1957an sortu zen Leintz Ibarreko Gidarien Elkarteak, Arrasaten, Lorentxo tabernan. Elkartearen helburua da gidarien artean laguntzea; bereziki, lankideren bat hiltzean hura gogora ekartzea, haren alarguari laguntzea eta halakoak.



Gidarien elkarteko bazkideak zapatuko omenaldian, Udalan.

GOIENKARIA

> LAN ESKAINTZA

Zehaztu dituzte lehenengo azterketak

Udaleko lan eskaintzarekin lotutako hiru azterketaren datak zehaztu dituzte: uztailearen 8an izango da ehorzle lanposturakoa, uztailearen 13an administrariena eta 20an Aukeako gerente izateko. Ehorzle eta administrariaren kasuan, Uarkapen egingo dituzte, etorriko den jende kopuruarengatik: 200dik gora.

> ZERBITZUAK

Udaltzaingoak telefono zenbaki berria du: 092

Udaltzaingoak telefono zenbaki berria aktibatu du: 092. Helburua da herritarrei Udaltzaingoarekin harremanetan jartzeko bidea erraztea. Orain artekoa baino motzagoa da; hori da arrazoietako bat. Edozein telefono motatetik dei daiteke, baita mugikorretatik ere. Dena den, orain artekoa ere erabil daiteke: 943 25 20 10.

KIMETZ

taberna

Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburgesak
Pintxoak
Razioak

943 10 97 30

Maalako Errebala 15. ARRASATE

JON

PORTALOIKO LIBURU ETA PRENTSA DENDA

Ondo pasatu Sanjuanak!

Erdiko kale 9 • 943 79 34 37




kuadroak eta markogintza

ARTE LENIZ

Ondo pasau jaixak!

Leintzibar 4, ARRASATE Tel.: 943 79 37 64

ONDO PASAU JAIXAK!

ARRASATE
Maalako Errebala 27 - Tel.: 943 79 70 11

ZABALA

oinetakoak

60 urtean
elkarrekin
ibili gara

Erdiko kalea 18

Tel.: 943 79 14 27



Haur danborradak historiarako hamaika argazki utzi dizkigu; irudian, 1985eko desfilea Herriko Plazara heldu zenean. SUBC

OSPAKIZUNAK > HAUR DANBORRADA

30 urte gutxienez, eta gero eta haur gehiago

Etxeko txikienak izango dira protagonista bihar; aurten 240 haur eta zazpi konpainia irtengo dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Danbor hotsek ez dute etengo diren itxurarik. Danborrada antolatzen bizitza erdi daraman Jesus Mari Egidazuk haur danborra-

dak "gutxienez" 30 urte bete dituela dio eta azken urteetan gero eta haur gehiago irteten direla adierazi du. Aurten 240 neska-mutiko irtengo dira, eta zazpi konpainia.

Besteak beste, barrilero neska eta mutikoak, danbor-joleak -eskoziarrak, soineko berdedunak eta soineko urdindunak- eta kantinerak. Horiez gain, umezaintzako haurrak ere irtengo dira. Desfilea 19:00etan irtengo da Zaldibartik.

UDALETXETIK SAN VIATORRERA

Maiatzaren 8an hasi zituzten entseguak. Bada, Egidazuk gogoratu du lehen urteetan entseguak udaletxeko goiko solairuan egiten zirela. Handik frantziskotarren klausuroetara pasa ziren; bertan hainbat urtean egin ziren. Azken urteetan San Viator Handin -Gaztelupe gunea da egun- egiten dira.

OSPAKIZUNAK > HAUR DANTZARIEN EGUNA

400 bat umek dantzan jarriko dute Arrasate etzi

Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko dantzariak etorriko dira aurten gurera

J.B. > ARRASATE

Euskal dantzek Arrasate hartuko dute domekan, Haur Dantzarien Eguna izango da-eta. Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu dantza taldeen eskutik 400 dantzari inguru etorriko dira gurera, ia Euskal Herri osoetik: Otsagabia, Aramaio, Legazpi, Pasai-Antxo, Durango,

Soraluze, Oñati, Aretxabaleta eta Antzuolatik. Egitarauak ez du aldaketa handirik izango: 10:00etan Herriko Plazan elkartuko dira dantzariak, eta hamarretakoa egin ostean dantza erakustaldiak egingo dituzte. 13:30ean dantzariak plazara egingo dute berriz, arrasatearren etxeetan bazkaltzeko.

EURIA EGITEN BADU, UARKAPER

17:15ean bueltatuko dira dantzariak Herriko Plazara azken emanaldiak egiteko. Eguraldi txarra egiten bada, Uarkape pilotalekuan dantzatuko dute.

> SANJUANAK

Dragoi-janerako txartelak gaur jarriko dituzte salgai; aurten, haurrendako menua ere egongo da

Aurten ere dragoi-janak ez du hutsik egingo San Juan egunean. AEDren eta Erdu-AEK euskaltegiaren eskutik, berrikuntza jositako dator hain arrakastatsua izan ohi den ekitaldia. Besteak beste, haurrendako menua egongo da: dragoikume menua, hain zuzen. Menu horretan makarroiak eta izozkia sartu dute, eta, egiten den lehen urtea denez, 50 txartel atera dituzte; txartel bakoitza zortzi eurotan jarri dute. Ohiko dragoi-janeko menuak, noski, ez du aldaketarik izango: txuleta patatekin eta piperrekin, postrea, kafea eta kopa. Txartelaren prezioa 15 euro da eta AEDko bazkideendako, 12 euro. Txartelak gaurtik aurrera eros daitezke Irati, Monte eta Kajoi tabernetan, AEKn eta AEDn.



Zenbaki Aholkulariak



• **Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epailetak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:**

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• **Fiskala:**

- Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontabilidadea:**

- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABAleta

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es



Iñigo Uribarren, argazkian eskuman, aurten podiumera igo den aldieta baten.

ARRASATE ATLETIKO

ATLETISMOA > SALTO HIRUKOITZEAN ERREKORRA

Mikel Uribesalgok urteko saltoa Mataron (14,26 m)

Asteburuan Lloret de Marren lehiatuko da klubeko beste atleta batzuekin batera

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Arrasateko Atletiko taldeko neska-mutilak marka guztiak birrintzen ari dira, baina ez pertika saltoan bakarrik. Salto hirukoitzean, gazte mailako atletak -16 urte- ezustea eman zuen joan den astean Mataron (Bartzelona) estatuko urteko salto onena egin-

da gazte mailan (14,26), eta Arrasateko errekor berria ezarrita. Aurreko marka Rafa Paezek zuen, 1986an lortutakoa, Salamancan (14,26 metro). Hala, Mikel Uribesalgoren aginduetara lanean dabilen Uribarrenek ezustea eman dezake Espainiako txapelketan.

LLORET DE MARRERA

Asteburuan, berriz, Iñigo Uribarren, Chen Jian, Eukene Dorransoro eta Maialen Axpe Lloret de Marren lehiatuko dira. Eta Durangon kadete mailako Euskadiko txapelketa egingo dute.

Bestalde, Mendizorrotzan egindako beteranoen txapelketan Maria Jose Gilek zilarra jantzi zuen 1.500 metroko proban (3,69) eta urrea 5.000 metroko proban (24,06).

> GIMNASIA ERRITMIKOA

Arrasate Dragoi gimnasia taldekoek erakustaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Seber Altuben

Urtero moduan, sanjuanei ongietorria ematen hasteko, Arrasate Dragoi taldeko neskek erakustaldia egingo dute Seber Altuben -euria bada Uarkapen egingo dute-. Erakustaldia 17:30ean hasiko dute, eta 7 urtetik gorako gimnasta guztiak hartuko dute parte.

> PLATER TIROKETA

Leintze elkartearen eskutik plater tiroketa saioa izango da bihar, zapatua, Oñatin

San Juan jaiak direla-eta, Arrasateko Leintze arrantza eta ehiza elkartearen plater tiroketa saioa antolatu dute biharko, zapatua. Oñatiko Txopekuara joango dira plater tiroketan jardutera. 15 euro ordainduta 25 plater izango dituzte.

> ATLETISMOA

Remi Diosdadok birritan jantzi zuen zilarra suhiltzaileen eta poliziaen atletismo txapelketan

Valentzian egin zituzten Espainiako poliziaen eta suhiltzaileen atletismo txapelketan, Remi Diosdado arrasatearra bigarren izan zen 100 eta 200 metroetako probetan. Hala, uztail hasieran Andorran lehiatuko da, Europako txapelketan.

> ESKALADA

Espainiako kopan lehiatzen dabilta Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko ordezkariak

Espainiako kopako bigarren jardunaldian, Bilbon, Mirian Mulas seigarren izan zen. Iñaki Velasco 10.a izan zen eta Kepa Bruña bosgarren. 20 urtez azpikoetan Jone Martinez hirugarren sailkatu zen, Iñaki Viejo laugarren eta Aritz Dominguez bosgarren.

> SKATEA

Txatxilipurdik eta 'Erdigunea piztu' ekimenak skate jaia egingo dute gaur Zaldibarren

Gaur, egubakoitza, skate jaia egingo dute Zaldibarren. 18:00etan hasita 12-17 urte bitartekoendako txapelketa egingo dute, eta ondoren estilo askean ibiltzeko aukera izango da.

MENDIZABAL OKINDEGIA



ONDO PASAU
SAN JUANETAN!

Sebero Altube 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 60



Lore

Lurrindegia eta
estetika zentroa

Olarte 10 • ARRASATE
943 79 52 50

JOSE MARI SALEGI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Euskal okela eta etxean egindako hainbat produktu
(txorizo, tripakiak...)

943 794 555
Olarte kalea 20
ARRASATE

SAN JUAN
ZORIONTSUAK !

A R K I T E K T O A K

mgarq@coavn.org



MENDIETA GOIATXE

Iturriotz 17, beheka b 943 793 793

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

JENDARTEA > JAIK

Arrasatearren nortasuna islatuko du dragoi berriak sanjuanetan

Santa Barbarako dragoian dago inspiratuta eta haren anaia nagusi moduan egin dute

Sistema piroteknikoarekin, su koloretsuagoa eta fantasiosoagoa botako du dragoiak

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE
Arrasatearren duten indar hori atera omen zaio dragoi berriari; hori dio, behintzat, Josu Camarak, Kukubiltxoko zuzendariak.

DESKRIBAPENA

Aurreko herensugearekin alderatuta, dragoi berria ez da horren potoloa. Haren aldean, gorputza apur bat estilizatuagoa du eta gaztetxoagoa da. Baina, hala ere, plataforma gainean eta buruaren gainean daukan gangarraren azken puntutxoak lau metrora iristen da. "Muturretik buztanak buelta ematen dion leku horretaraino, bost metro pasa ditu", dio Camarak.

Zabaleran, berriz, hegoekin hiru metrora iristen da. Handia da, beraz, dragoi berria.



Kukubiltxok egiten diharduen dragoia.

KUKUBILTZO

PLATAFORMA

Plataforma laua izango du, 60 zentrimetroko altuera dauka eta gurpilak izango ditu dragoia Arrasateko kaleetan zehar mugitu ahal izateko.

Kukubiltxokoek kontuan hartu dute herritarrek dragoia ikusteko gora begiratu beharko dutela. Geldi dagoenean, itxura lasaia dauka, baina keinu dinamikoa du.

SUAREN SISTEMA

Dragoiaren errituala finkatuta dago eta sua botatzeko gaitasuna ere badu dragoi berriak. Kalean doanean, ez du surik botako, baina amaieran, San Juan suaren su-meta pizteko botako du.

Lehen, butano sistema erabiltzen zen, baina arriskutsua zenez, sistema piroteknikoa jarri diote. Horrela, gainera, sua koloretsuagoa eta fantasiosoagoa izango da.

JARRAITUTAKO EREDUA

Kukubiltxokoek dragoi berria egiteko Santa Barbarako dragoia hartu zuten eredu moduan. Dragoi hori Arrasate zaintzen dagoela ematen du eta hegan irteteko prest dagoela dirudi. Horrekin alderatuta, beste herensuge batzuek irudi klasikoagoa eta barrokoagoa dutela esan digu Camarak, baina dragoi berria modernoagoa da.

MUSIKA ESKOLA

Urte amaierako saioa gaur Amaian

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Arrasate Musikalek gaur egingo du kurtso amaierako kontzertua. 18:00etan izango da, Amaia antzokian. Ikasle askotxok parte hartuko du emanaldian: orkestra gaztekoek, balletkoek eta akademiako txikiak.

Bestalde, kantu ikasleek ere egingo dute emanaldia; 18:45ean izango da, gaur, Monterron jauregian, Tere Fernandez gidaritzapean.

GOIKOBALU

Goikobalu Txikik eta Goikobalu Gaztek astelehenean, ekainak 21, kontzertua eskainiko dute. Kulturateko areto nagusian izango da saioa, 19:00etan.

> KONTZERTUA

Des-kontrolak zuzeneko grabatuko du Monterronen

Arrasateko taldeak zuzeneko diskoa grabatuko du Arrasateko uztailearen 3an -zapatua-. Monterron parkean egingo dute kontzertua; han, Arrasateko taldeaz gain, Arkada Social arrasatearrak, Fridays Crew -Azpeitia- eta Frontkick -Berlin- igoko dira taula gainera.

King's
Ile-apaindegia

Ondo pasau jaietan!

Zarugalde 23. ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88

OINETAKOAK

Yoar

MBT
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
KOLLFLEX
WONDERS
GEORGES
LUPO
STONFLY
BRUNO
PREMI
BARRAS

Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

Uarkape
jatetxea

San Juan zoriontsuak!

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Eguneko menuak
- Karta

Otalora Lizentziaduna 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

Tapiceri
AINUR

Tapizatu lanak
Sofak,
Besaulkiak,
Aulkiak,
...

Garro Jenerala kalea 2

Kontsulta gaitzazu:
680 826 555 - 943 791 943 telefonoetan

UDALA > ZERBITZUAK

0-5 urtekoendako txokoa egokituko dute Zabalotegin

Udazken-negu partean, gurasoak umeekin aterpean egoteko aisialdigunea izango da

Ez da begiralerik egongo; bai, ordea, jostailuak umeendako

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Seme-alaba txikiak dituzten familiei beste zerbitzu bat eskainiko die Udalak irailetik aurrera: *Txiki-txokoa* egokituko dute Zabalotegiko eskola zaharrean 0-5 urte bitarteko umeendako.

Batik bat, eguraldi txarra egiten duenean adin horretako familiei egoteko lekua eskaini nahi die Udalak zerbitzu horrekin: "*Txiki-txoko* honen helburu nagusia da hotza eta euria egiten duenean hurrekin egoteko espazio bat izatea", esan du Nagore Narbaitzak, Hezkuntza teknikariak.

Narbaitzaren esanetan, haurrak gurasoekin egoteko leku bat izango da, ez da begiralerik egongo. Horrez gain, *Txiki-txokoan*



Zabalotegiko eskola.

MONIKA BELASTEGI

egongo diren jostailuak guztiok erabiltzekoak izango direnez, egoera onean mantentzeko arduraz guztiona izango dela ere azpimarratu du Narbaitzak. Izan ere, Udala arduratuko da txokoa jostailuz hornitzeaz.

Eraikinari dagokionez, obrarik ez du behar, baina Narbaitzak

aurreratu duenez, lekua txukundu egingo dute eta zoruan mokedu edo antzekoa jarriko dute.

Astelehenetik egubakoitzera arteko zerbitzua emango du, oraingoan, 16:30-20:00 orduetartean. Narbaitzak aurreratutako duenez, asteburura ere luza liteke, erabiltzaileek eskatuz gero.

GURASOEN ARTEAN INKESTA

Zerbitzua martxan jarri aurretik adin tarte horretako umeak dituzten gurasoen artean inkesta egin zuen Udalak. Narbaitzaren esanetan, 139 familiak esan zuten halako zerbitzua erabiliko luketela, eta hori erabakigarria izan zen Udalak asmoarekin aurrera egiteko.

SAN MARTZIAL

Mahaiak alokatzeko epea ireki dute

M.B. > BERGARA

Uztailaren 4an egingo den San Martzialgo erromeriarako mahaiak eta aulkiak alokatzeko epea zabaldu dute. Hilaren 24ra arte egongo da zabalik, astegunetan 18:00-21:00 orduetartean, kultura etxean.

Mahai bakoitzak 20 euro balio du eta horrekin batera 100 euroko fidantza ere jarri beharko du eskatzaile bakoitzak. Era berean, ezingo dira bost mahai baino gehiago alokatu eta mahai bakoitzeko zortzi aulki. Egindako eskaerarekin agiri bat emango dute.

Mahaiak eta aulkiak banatu dituzte uztailaren 3an, 17:00-20:00 orduetartean, San Martzialgo kantina ondoan. Eta entregatu uztailaren 4an, 19:00-21:30 orduetartean, leku berean. Materiala entregatzen duenari Udaleko zigitua jarriko diote, eskaria egin zuenean jasotako agirian.

Materiala esandako egun eta orduan eta egoera onean entregatzen ez duenari, ez diotela zigitua jarriko eta fidantza galduko du. Fidantza jasotzeko egunak dira uztailaren 6tik 13ra, 18:00-21:00 orduetartean, kultura etxean. Zigitatutako agiria eraman behar da.

GAZTEAK > AISIALDIA

Ikasturteari agur esateko jaia egingo dute bihar gazteek

Gazteria Kontseiluaren barruan antolatu dute eta egongo dira, besteak beste, paella lehiaketa eta dantzaldia

M.B. > BERGARA

Bihar, zapatua, gazte jaialdia egingo dute herriko 12 eta 16 urte arteko gazteek. Gazteria Kontseiluaren barruan sortu eta antolatutako jaia da eta modu horretan gazteek amaiera eman nahi diote ikasturteari eta ongietorri esan

udarako prestatu duten ekintza sortari.

Ikasturteari agur esateko egun osoko egitaraua prestatu dute, paella lehiaketa eta guzti. Hain justu ere, 13:30erako egin dute lehiaketarako hitzordua, Munibe plazan. Ordu horretan

hasiko dira paella prestatzen –norberak eroan behar du janaria–, koadrilaka antolatuta, eta paella onenak 15:00etan jasoko du saria. Hain zuzen, koadrila guztiarendako txangoa irabaziko dute.

Prestatutako paellekin eta koadrila bakoitzak eroandako bestelako jaki eta edariekin –ezingo da alkoholdun edaririk eraman– bazkaria egingo dute Muniben, eta bazkaldu eta gero koadrilen arteko jolasak egongo dira.

Egunari bukaera emateko dantzaldia ere antolatu du Gazteria Kontseiluak. Hori horrela, 18:30-21:30 bitartean Bat Bitan

taldearekin dantza egiteko aukera izango dute gazteek, eta nahi duten herritar guztiak.

UDARAKO EKINTZA SORTA

Ekintza sorta zabala prestatu dute udarako. Lehenengoa izango da Lasturrera irteera *paintball*-ean egitera eta Debako hondartzara ekainaren 30ean. Izene-matea da ekainaren 16tik 23ra kultura etxean eta prezioa da 18 euro. Uztaileko beste irteera batzuk dira: Arcachongo aquaparkera, Gorrilara, kanpatzera; *rafting* egitera, Bidarraira; eta Zarautzera, surf ikastarora.

Gure plateren **prezioak ez ditugu igo.**

Eta gainera, **plater berriak dauzkagu.**

Proba itzazu!

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

Xanpainetzko **sangria BERRIA**

Certificado ISO 9001 por **Bvqi**

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com



Seminarioaren fatxada garbitu eta zatitxorik ez erortzeko egonkortu ere egingo dute, besteak beste.

ARTXIBOA

HIRIGINTZA > OBRAK

Uztail hasieran hasiko dira UNEDeko lanak, Seminarioan

Lan nagusiak dira teilatua eta teilatupea konpontzea eta igogailua jartzea

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

UNEDeko egoitza egokitzeko lanak uztail hasieran hasiko dira. Halaxe jakinarazi du Juanjo Alvarez zentroko zuzendariak. Eskolarik ez dagoela aprobetxatu eta ahalik eta lan gehienak opor garaian egin nahi dituzte, urrian berriz ikasturteari ekin ahal izateko, nahiz eta ordurako lan guztiak bukatuta egongo ez diren.

Hori horrela, Alvarezek gehitu du prestakizun tekniko guztiak martxan daudela, lanak ahalik eta azkarren hasteko. "Proiektua asteon aurkeztu dugu Udaleko bulego teknikoan eta lanak esleitzeaz daude", gehitu du.

TEILATUA, LAN NAGUSIA

Eraikinaren egiturari dagokionez, teillatu osoa konponduko

dute—ez soilik UNEDi dagokion teillatu zatia— eta baita teillatupea egonkortu ere. Alvarezen esanetan, gainera, egoera kaskarrean dago eta berehalako konponketa behar du.

Horrez gain, igogailua jarriko dute eraikin barruan; fatxada eraberrituko dute—garbitu eta egonkortu egingo dute beharrezkoa den lekuetan zatitxorik erori ez dadin—; eraikin guztiko leiho-

DATUA

1,8

MILIOI EURO

Horixe da UNEDeko lanen hasierako aurrekontua —BEZa barne—. Patronatua egingo da horren kargu: Aldundiak, %67 ordainduko du; Kutxak, %23; eta Udalak, berriz, %10.

en itxiturak berrituko dituzte eta komunak ere berriak egingo dituzte. Lanon hasierako aurrekontua da 1,8 milioi euro ingurukoa —BEZa barne.

PP, PERMUTAREN ALDE

PP alderdiak bat egin du Batzar Nagusietan jaso den Arrizuriaga-Seminarioa trukerako proposamenarekin. Inigo Arkauz PPko batzarkideak erredakziora bidalitako oharrean dio: "Proposamenak aurrera egingo ez balu, UNEDendako kaltegarria izango litzateke, baina baita Bergara eta Gipuzkoarendako ere, unibertsi-tateak herria laga ahal izango lukeelako".

Horrekin batera, uste du Arrizuriagan UNEDek egoki handitzeko aukera izango lukeela eta gainera, parkea herriarendako berreskuratzea ekarriko lukeela. Bestalde, hauxe dio: "Seminarioa herri erdian dago eta leku egoki eta estrategikoa da Udal liburutegia egiteko eta baita kulturarako instalakuntzak ere. Eta hori gutxi balitz, Aranzadirendako irtenbidea ere izango litzateke, Seminarioan jarraituko lukeelako, baina hobetutako instalakuntzetan".

oharrak

AISIALDIA

> Seminarioko elizako aztarnategia ikusteko bisita gidatua

Bihar, zapatua, egingo dute, 11:00etan, eta doan da. Ikerketa historiko-arkeologikoko bigarren faseko lanen berri emango dute. Informazioa eta izenematea Turismo Bulegoan, 943 77 91 28 zenbakian.

BAZKARIA

> Umore-Onako bazkideek urteroko bazkaria egingo dute

Ekainaren 27an egingo dute, San Martzialen. Bazkide bakoitzak gonbidatu bat eroan ahal izango du. Izenematea da hilaren 20a baino lehen, elkartean.

HEZKUNTZA

> Ekitaldi ugari San Martinen, ikasturtea agurtzeko

Ekainaren 17an hasi eta 23ra bitartean askotariko ekintzak egingo dituzte San Martin herri eskolan. Hain justu ere, Euskal Astearekin agurtuko dute ikasturtea San Martingoek irailaren 7ra arte.

HEZKUNTZA

> Aranzadik ikasturte bukarako jai egingo du 23an

18:30ean jaialdia egingo dute, Udal Pilotalekuan. Ikasleek hartuko dute parte eta marrazki eta kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte. 20:30ean afaria egingo dute eskolako jolaslekuan eta 22:00etan, San Juan sua eta dantzaldia.

JENDARTEA > ARKITEKTURA

Zetabiko arkitektoak finalista irisgarritasun lehiaketa baten, Boluko igogailuekin

M.B. > BERGARA

Bergarako Zetabi Arkitektura Bulegoa finalista izan da Zaragozako Fundacion DFAk —mugikortasun urria dutenen fundazioa— urtero antolatzen duen *Accesibilidad universal* sariketan. Hirigintza arloan izan da finalista, Boluko igogailuen proiektua-

rekin. Izan ere, arkitektura bulego horrek egin zuen Boluko auzotarren irisgarritasuna bermatzeko proiektua, Udalaren eskariz. Aitor Zubiak, Xabi Zabalak Uzuri Larrañagak, Larraitz Valenciak eta Jon Crespok osatzen dute Zetabiko lantalde gaztea eta oso pozik daude Zaragozako aitor-

tzearekin; besteak beste, "era honetako proiektuak erabiltzen dituen elkarte batek emandakoa delako".

Irizar jauregia zaharberritzeko proiektua eta haurreskolarena egin dute Zetabikoek eta San Pedro egokitzeko proiektua ere haiiek egiten ari dira.



Zabala, Zubiak, Crespo eta Valencia bulegoan, sariketako oroigarria erakusten. M.B.



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

- Etxebizitzaren zaharberritzeak
- Berogailuen instalazioak
- Aire egokitua
- Bainurako altzariak, iturriak eta era guztietako osagarriak
- Edozein konponketa lan



SASKIBALOA > BKE

Saskibaloia astea Bergaran martitzenetik aurrera

Saskibaloia gainera mahai-inguru interesgarria izango da egunean Miguel Altunan; hurrengo astebururako, hiruko txapelketak iragarri dituzte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergara KEko saskibaloia sailaren eskutik, ekainaren 22tik 27ra Saskibaloia Astea ospatuko da Bergaran. Saskibaloia gaztetxoaren artean duen harrera bikaina ikusita, saskibaloia gainera hainbat ekitaldi iragarri dituzte datozen egunotarako. Martitzenetik, hilaren 22an, *Coach Carter* filma emango dute Zabalotegi aretoan, 19:00etan. Sarrera doan izango da.

MAHAI-INGURUA EGUENEAN

Prestatu duten programako hitzordu interesgarrietako bat eguneko izango da. *Balances to moderno e historias* izenburupean, mahai-inguru izango da Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. Gonbidatuak ez dira nolana hikoak, gainera: Pablo Laso Gipuzkoa Basketeko entrenatzailea eta jokalaririk ohia; Miguel Santos, Donostiako taldeko presidentea izandakoa eta Gipuzkoako saskibaloiko bultzatzaile



Marian Mellado, Itziar Elgarresta, Josean Arteaga eta Gerardo Puente.

E.M.

nagusietako bat; eta Ander Garzia jokalaririk bergararra, amaitu berri den denboraldian EBA ligako Santa Polan jokatu duena. Gerardo Puente kirol kazetari ezaguna izango da moderatzailea. Bergara KEko saskibaloia saileko zuzendaritzako kide ere bada Puente, eta, haren hitzetan: "ACB ligako jokalariren bat ekartzeko asmoa ere badugu, baina orain-

goz ezin dugu ezer gehiago aurreratu".

HIRUKO TXAPELKETAK

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 25ean, txosna jarriko dute eta disko gaua izango da 23:00etatik aurrera. Asteburuan jokatu den hiruko txapelketaren ataria izango da. Benjamin, alebin, infantil, kadete, junior eta senior

mailak bereiziko dituzte. Izene-matea taldearen webgunean egin daiteke: www.bergarake.com.

Iazko ekitaldian 160 lagun lehiatu ziren maila ezberdinetan eta aurten ere kopuru horren bueltan ibiltzea da antolatzaileen asmoa. Saskibaloia saila osasuntsu dago Bergaran: 100dik gora neska-mutil ari dira talde ezberdinetan.

PILOTA

Finalerdiak zapatuan Udal Pilotalekuan

Eskualdeko Udaberri txapelketako finalak Bergaran jokatu dira baita ere

E.M. > BERGARA

Bihar, zapatua, eskualdeko Udaberri txapelketako finalerdiak izango dira Udal Pilotalekuan, 16:00etan. Alebin mailako bi finalerdi izango dira; horietako baten, Ander Kerexeta eta Eneko Larrañaga bergararrek Atxurbide Idiazabalgo ordezkarien aurka jokatu dute.

Senior mailan beste bi finalerdi izango dira, lau terdiaren barruan. Beñat Iñarra eta Aritz Rezusta bergararrak dira tartean; euren partidua aurrera ateraz gero, elkarren kontrako finala izango lukete hurrengo zapatuan, Bergaran bertan. Izan ere, eskualdeko Udaberri txapelketako finalak (alebin, infantil, kadete eta senior mailak) Bergaran jokatu dira, hilaren 26an.

BEÑAT REZUSTA, TXAPELDUN

Bestalde, Beñat Rezustak Barakaldoko lau terdiko txapelketa eskuratu zuen eguztenez, Markinako Antsoategiri 22-12 irabazita. Bihar, zapatua, Altsasuko binakako finala jokatu du Beñat Rezustak. Aste borobila izan dezake pilotari bergararrak.



POL-POL

Pol-Polekoak, Europako Mendietan

Pol-Poleko beterranoek bi eguneko irteera egin zuten Europako Mendi aldera aurreko aste bukaeran. Bergaratik 42 lagun atera ziren; Puerto San Gloriotik, Leon eta Kantabria arteko mugatik, Coriscaoraino (2.209 m) ibilaldia egin zuten zapatuan, eta Espinama herrian amaitu. Domekan, berriz, Allende herritik Pelea izeneko lepoa hartu eta La Hermida herrira jaitsi ziren. Argazkia La Rasa parajea dago aterata (atzean, goian, Coriscao inguruak). Uztailaren 11rako Aritzakun bailara irteera iragarri dute.

IGERIKETA > DOMINAK

Igerilari gaztetxoek emaitza onak Arrasateko topaketan

E.M. > BERGARA

Arrasate, Oñati eta Bergarako igerilarien arteko topaketa jokatu zen aurreko zapatuan Arrasaten, Musakolan. Bergara Igeri Elkarteko gaztetxoak domina bana lortuta bueltatu

ziren etxera, poz-ozik. Benjamin eta alebin mailako probak izan zituzten eta sasoi onean direla erakutsi zuten mahoneroek. Zapatuan beste topaketa bat jokatu dute Oñatiko kiroldegian.



Bergarako igerilariak Arrasaten, aurreko zapatuan.

IGERI ELKARTEA

MUSIKA > KONTZERTUA

Euskal doinu "berriak", Irala girotzeko gertu

Jardunen eskutik Arramazka taldea dator bihar; euria egiten badu Munibe plazan joko dute (22:00)


JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Lasarte, Alegia eta Aguraingoak dira Arramazka taldeko kideak. Sei dira egun, baina bi kidek taldea utziko dute laster, beste proiektu baten murgiltzeko. Irala kalean joko du seikoteak bihar (22:00), Jardunen eskutik.

Euskarazko kultura eskaintza osatzea helburu, proposamen "ezberdina" eskaini gura izan dutela adierazi du Nerea Mendizabal Jarduneko kideak. Ezberdina denik ez dago zalantzarik: "Pop-

rock freskoa, etiketarik gabekoa eta mezuari garrantzi handia ematen diona: euskal musikaren barruan musika berria" da eta Arramazka, Aitzol Lasa taldeko gitarristak jakinarazi duenez.

Musika ez dute kontsumorako ikusten, sorkuntzarako mekanismo moduan baizik: "Dagoeneko topiko bihurtu da, baina egunerokotasunak eskaintzen dizkigun arazo eta pozen inguruan idazten dugu. Eta horretarako, metafora eta poesia dira gure



Arramazka taldeko kideak.

baliabide ohikoenak". 2009ko udaberrian ekin zioten proiektuari, eta beste hainbat taldetan jo izandakoak dira kide gehienak. Besteak beste, Apurka, Gartzen, Karratua Borobila Da eta Gaueko Itzalak taldeetako kide ohiek osatzen dute egungo taldea. Eta ez hori bakarrik, musika oso gertutik bizi izan dute txikitatik. Aitzol Lasa, esaterako, musika irakaslea da eta haren aita ere musika irakaslea izan zen. Eta ez da taldeko kasu bakarra. Beraz, teknika aldetik goi mailako emanaldia izango da biharkoa.

DISKOA, SANJUANETARAKO

Biharko kontzertuaren ostean bi kidek beste proiektu bati ekingo diote, eta taldea hankamotz utzi: "Bateria-joleak eta beste gitarristak taldea utziko dute eta udarako planak asko aldatu zaizkigu. Ahalik eta lasterren saiatuko gara kide berriak aurkitzen", dio Lasak. Izan ere, sanjuanetarako diskoa kaleratuko dute; diskoaren aurkezpenaren osteko kontzertuak lotzeko bi kide behar dituzte.

Azkenik, esan behar da eguraldi txarra egiten badu Munibe plazan izango dela kontzertua.

IKUSKIZUNA > HAURRAK

Animalien munduan barrena bidaiak fantastiko baterako proposamena bihar Zabalotegin

'Animaliak' antzezlana ikusteko aukera izango dute bihar etxeko txikienek, 18:00etan; sarrera hiru euro ordaindu beharko da

J.B. > BERGARA

La Dinamika antzerki taldearen *Animaliak* izeneko haurrentako ikuskizuna egongo da bihar Zabalotegi aretoan (18:00). Antzerkia eta dantza uztartzen dituen antzezlana da eta ia ordubete irausten du. Ikuskizunak bidaiak fantastiko bat proposatzen du. Loreak eta landareak dantzan izango dira, baita zizareak eta bestelako izakiak ere. Hala, guztia etengabe mugitzen eta aldatzen den mundu bat erakutsiko dute



Animaliak antzezlaneaneko une bat.

LA DINAMIKA

La Dinamika taldekoek. Kolore eta mugimenduekin aho bete hortz geratuko dira umeak; paradisu galduan murgiltzeko aukera izango dute, dantza eta poetika eszenikoaren bidez.

EZAGUNAK DEBAGOIENEAN

Ez da lehen aldia gure ibarrean *Animaliak* ikusteko aukera duguna; iaz Arrasaten antzeztu zuten, adibidez. Sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

> ERAKUSKETA

Rikardo Azkargortaren ikasle izandako Julia Otaegiren lanak Hamaika tabernan ikusgai

Julia Otaegi pintore bergararraren margolanek osatutako erakusketa eguaztenean zabaldu zuten Espoioia kaleko Hamaika tabernan. Rikardo Azkargortaren ikasle izandakoaren lanak hila-bete inguruz egongo dira ikusgai. Izan ere, ez dute erakusketa-aren itxiera data erabat zehaztu, baina haren lanak ikusi gura dituenak uztaile erdialdera arte izango du horretarako aukera. Erakusketak tabernaren ordutegi berbera izango du.

Erakusketan bederatzi koadro jarri ditu artista bergararrak eta koadro horien artean olioak dira nagusi. Otaegi artista ezaguna da herrian, besteak beste, Beart Bergarako margolarien elkarteko kide delako.

> MUSIKA

Pop-rock talde ezagun batek inauguratuko du Tartufo jatetxeko aretoa San Juan egunean

Tartufo jatetxeak kultura eskaintza bultzatu gura du, eta, horretarako, jatetxearen atzealdeko aretoa egokitu dute. Joan den egubakoitzean antzerkia izan zuten. Bilbo eta inguruetako Yonunka antzerki taldearen *Bla, Bla, Bla* antzezlaneanekin inauguratu zuten Tartufoko kafe-antzerki formatua. Bada, orain, musika areto moduan inauguratzea falta da. Antolatzaileek sorpresa moduan gorde dute taldearen izena, baina, diotenez, pop-rocka egiten duen talde "oso ezaguna" da. Kontzertua sanjuanen barruan antolatu dute, auzoko jaiak, hain zuzen. Sarrera gehienak gonbidapenen bidez banatuko dituzte, aretoan 200 pertsona bakarrik sartzen dira-eta.

OSPAKIZUNAK > GAZTETXEAK 10 URTE

Musika nagusi urteurrenari amaiera emateko asteburuan

Biharko, egun osorako egitaraua prestatu dute

J.B. > BERGARA

Aste bukaeran amaituko dira Bergarako gaztetxearen 10. urteurreneko ospakizunak. Joan den egubakoitzean hasi ziren eta

lehen aste bukaeran leporaino bete zen gaztetxea; ekitaldi arrakastatsuen egubakoitzeko afari-merienda izan zen. Eguraldi eskasari umore onez egin zioten aurre.

EGUN HANDIA, BIHAR

Musika izango da nagusi urteurrenari amaiera emateko. Gaur Bergarako taldeen txanda izango da: Katabatik, Red District, Rombos Negros eta Extorsion. Biharko, azkenik, egun osorako jaiak prestatu dute: 12:00etan poteoa, 14:30ean bertso bazkaria, 18:00etan grafiti erakustaldia eta 22:00etan Fly Shit eta Fuguren kontzertuak. Jaiak DJ Elvis Cainok itxiko du. Domekan garbiketa tailerrak egingo dituzte.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Ana Mari Zumalde > Pake Lekuko presidentea

"Bakarrik dauden lagun askorendako irtenbidea da Pake Leku elkarte"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Apirilaren 14an egin zuten Pake Leku elkartearen urteko batzarra. Zuzendaritza batzordeko bost kide berri aukeratu zituzten. Hurrengo biurteetan Ana Mari Zumalde izango da presidentea. Aurrerantzean egin beharko duen lanaz eta erretiratuen elkarteaz egin dugu berba harekin.

Zuzendaritza berritu zenuten apirilean. Hasi zarete lanean?

Bai. Gainera, kargua hartu eta Erretiratuen Astea antolatzea tokatu zitzaigun. Hortaz, bete-bete ekin genion lanari. Bidaiekin ere lanean gabilta. Esku artean ditugu Turkiara eta Lesakara egingo ditugun irteerak. Aurrerantzean Portugalerara, Gernikako azokara eta Errioxara joango gara.

Zu zeu nola moldatu zara presidente kargura?

Pake Leku elkartearen ohitura dugu presidente kargua hartu aurretik, presidenteorde lanak

egiteko. Hortaz, zuzendaritza batzordea berritzean presidente kargua hartzen duenak urtebete egin du presidenteorde moduan. Nik lan hori egin nuen Mari Angeles Moiu presidentearekin. Horregatik guztiagatik, aurretik ezagutzen nuen egin beharko nuen lana.

Zeintzuk dira zure lanak?

Erretiratuen elkarte lausaitan banatzen dugu: kultura, bidaiak, mantenua eta barnerregimena, hain zuzen ere. Nire ardura da horiek guztiak koordinatzea. Gainera, kulturako arduradun naizenez, urtean zehar antolatzen ditugun ekitaldiez arduratzen naiz.

Bestalde, norbait ideia berrien batekin edo arazoren batekin etortzen denean, laguntza ematen diet.

Zenbat bazkide dituzue erretiratuen elkartearen?

Urteko bazkide kuota ordaintzen dugunak 1.123 gara. Horietatik 490 dira 81 urtetik gorakoak. Adin horretatik gorakoek ez dute kuota ordaintzen, baina ez dute botorik batzarretan.

Elkarte aktiboa zarete. Herri-tarrek nola erantzuten dute?

Oso pozik gaude. Tabernan jende pilo batzen da egunero, eta ikastaroak beteta daude: solfeoa, euskal dantzak, areto-dantzak eta euskara ikasten lagun mordoa dabil. Gainera, abesbatza eta antzerki taldea ditugu.

Egia esan, ezin gara kexatu. Oso dinamikoak gara.

Azken urteotan asko gaztetu da Pake Leku.

Bai, hala da. Jendeak pentsatuko du adinean oso aurrera doazen lagunak biltzen direla gurean. Baina, azken urteotan, gazte sentitzen diren 60-70 urte arteko lagun asko dabil.

Herritar batzuek ez dute erretiratuen elkartearen beharra, beste ekintza batzuk dituztelako. Baina, bakarrik sentitzen diren lagun askorendako irtenbidea da Pake Leku. Horietako asko lagun taldetxoak egin dute.

Zeintzuk dira urtean antolatzen dituzuen ekitaldi nagusiak?

Erretiratuen Astea, Santo Tomas eguna, Aratustea, udaberriari ongietorria egiteko ekitaldia, hitzaldiak, bingo-jokoa...

Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen erronkak?



Pake Lekuko zuzendaritza batzorde berriko kideak.

MIREIA BIKUÑA



Ana Mari Zumalde erretiratuen elkartearen sarreran.

MIREIA BIKUÑA

Duda barik, erakunde publikoetan lan gehiago egin gurako genuke.

Gipuzkoako erretiratuen elkartearen batzarreko presidentea Jose Riviere arrasatearra da. Berak garbi dauka Diputazioarekin eta udalekin lan handiagoa egin behar dugula. Besteak beste, kontseilu sozialak eratu, guri dagozkigun gaien jarraipenak egin ahal izateko: etxeko laguntzak, egoitzak...

Etorkizunerako beste erronka bat ere badugu: Nagusien Eskola sortu gurako genuke.

Nagusilan elkarteari nolako laguntza ematen diozue?

Egia esan, gura baino laguntza txikiagoa ematen diogu. Lan ona egin daitekeela uste dugu, pertsona asko laguntza beharrean daude-eta. Baina, askotan oso zaila da ezezagunak diren familietan sartzea.

ZERBITZUAK > KIROLDEGIA

Etzitik aurrera Zubikoa kiroldegia zabalik egongo da domeka eta jaiegun arratsaldeetan

Hilaren 20an indarrean jarriko dute udako ordutegia uztaile bukaera arte; abuztuan ordutegi berezia izango dute

M.B. > OÑATI

Zubikoa kiroldegian udako ordutegia indarrean ipiniko dute domekatik uztaile bukaera arte. Neguko ordutegiarekin duen aldaketa nabarmenena zera da:

domeka eta jaiegun arratsaldeetan kirol instalazioak zabalik egongo direla. Hain zuzen ere, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute kiroldegia -neguan, domeketan eta jaiegunetan, 14:00etan ixten dute-.

Uztaile bukaera arte, aste osoan zehar zabalduko dute kiroldegia: astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era erabili ahalko dira kirol instalazioak.

Bestalde, igerileku kanpoan dagoen berdegunea zabalik egongo da kiroldegia zabalik dagoen orduetan.

ABUZTUAN

Abuztuan, herrian jende gutxiago geratzen dela kontuan hartuta, beste ordutegi bat ipintzen dute Zubikoan. Alde batetik, astelehenetan itxita egoten da. Beste alde batetik, martitzenetik domekara, ordutegia murriztu egingo dute: 10:00etatik 20:00etara zabalduko dute.

KIROL KANPAINAKO IZENEMATEA

Bestalde, udako kirol kanpainako behin betiko izenematea gaur bukatzen da. Lehen txanda ekainaren 28tik uztailearen 9ra izango da.

> TURISMOA

Hirugarren urteurrenean Arrikruzen egingo dituzten deskontuak oñatiarrendako bakarrik dira

Arrikruzt-Oñatiko koben hirugarren urtemuga dela-eta deskontuak egingo dituzte sarreratan hilaren 22tik 27ra; baina, beherapenak bakarrik oñatiarrendako izango dira. Egun horietan udako ordutegiarekin zabalduko dituzte kobak: goizetan, 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldetan, 15:00etatik 19:00etara. Eguneko azken bisita koba itxi baino ordubete lehenago egingo dute.

> EMANALDIA

Ganbara Txikikoek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute bihar Santa Ana antzokian, 19:00etan

Ganbara Txikikoek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute bihar Santa Ana antzokian, 19:00etan. Emanaldia hasteko *Eskolopendra* delako ipuin musikala eskainiko dute. Ondoren, taldeka, azken hiruhilabetekoan ikasitakoa erakutsiko dute. Bukarera, talde guztiek elkarrekin abestuko dute. Miren Plazaola eta Aitor Biain izango dira zuzendariak, eta Eli Mendiartza eta Miren Plazaola piano-jotzaileak. Sarrerak kultura etxean eros daitezke.

KIROLA > SARI BANAKETA

Herriko kirolari gazteek eskola kirolaren azken jaietan parte hartuko dute bihar

Gurasoendako jolasak, sari banaketa ekitaldia eta luncha egingo dituzte; Udaberri Txapelketako talde onenak sarituko dituzte, baina jokalariek guztiendako egongo dira sariak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Eskola kirola programari bukaera emango diote bihar. Ikasturtean zehar eskola kirolean ibili diren neska-mutikoei, gurasoek eta arduradunek amaiera festa egingo dute kiroldegiko kantzara berdean. Gainera, 36. Udaberri Txapelketari dagokion sari banaketa ekitaldia egingo dute. Talde onenak sarituko dituzte, baina neska-mutiko guztiendako sariak egongo dira.

JAI BUKATZEKO, LUNCHA

Amaiera festa 09:15ean hasiko dute gurasoek. Eurak izan dira eskola kirolean parte hartu duten taldeetako arduradunak. 10:30era arte jokoak egingo dituzte. Jarraian, sari banaketa ekitaldirako prestaketa lanak egingo dituzte. Sariak 11:30ean banatuko dituzte. Festa bukatzeko, 13:00etan, luncha egingo dute parte-hartzaile guztiak.

URRIAN HASTEN DIRA

Udako oporren ondoren eta sanmigelak bukatuta hasten dute eskola kirola programa herriko ikastetxeetan. 5 urtetik DBHko laugarren mailara arteko umeek eta gaztetxoek askotariko kirol ekintzak egiten dituzte. 2009-10 ikasturtean 542 neska-mutiko ibi-



Argazkian, iazko Udaberri Txapelketako irabazleetako batzuk.

GOIENKARIA

li dira eskola kirolean: 252 Txanxiku Ikastolakoak; 145 Elkar Hezi eta Mikel Aozaratza ikastetxeetakoak; eta 145 Errekalde Herri Eskolakoak eta Zuazolakoak.

Neska-mutiko batzuk zapa-tuetako partiduetara joaten dira bakarrik; beste batzuek, aldiz, astegunetan egiten dituzten entrenamenduetan parte hartzen dute. Horietan ikasten dituzte kirol bakoitzari buruzko oinarriko arauak.

DATUA

542

NESKA-MUTIKO

Horiek guztiak ibili dira 2009-10 ikasturtean eskola kiroleko ekintzetan. Urrian hasita askotariko kirolak landu dituzte; eskubaloia, areto futbola, saskibaloia, pilota, futbola...

GURASOEN LANA

Ikastetxe bakoitzak eskola kiroleko koordinatzaile bat du, eta eurek antolatzen dituzte aste bukaerako partiduetak. Dena den, gurasoen inplikazioa ezinbestekoa da. Eurek dira taldeen arduradunak, banaka edo binaka. Zapa-tuetako partiduetan jokalariek kontrola egiten dute. Jokalariak animatu, kirol bakoitzaren oinarriak gogorarazi eta aldaketak egiten dituzte, besteak beste.

KIROLA

Kadete mailako ziklisten proba bihar

Olakua sariak 57 kilometro izango ditu, eta 10:30ean hasiko dute

M.B. > OÑATI

Aloña Mendiko txirrindulari sailak antolatuta, kadete mailako ziklistendako proba egingo dute bihar Olakua auzoan. Irteera eta helmuga puntuak auzoan bertan egongo dira.

Txirrindulariek 57 kilometroko ibilbidea egingo dute: Olakua-Zubillaga-Elorregi-Bergara-Elorregi-Zubillaga-Olakua-Udana-Telleriarte-Legazpi-Telleriarte-Udana-Olakua. Guztira, 100 bat ziklista egongo dira irteera puntuak; tartean, Iker Arkauz, Unai Arabaolatz, Mikel Fernandez, Iñaki Mugartza eta Ander Iburguren oñatiarrak.

23. Olakua saria 10:30ean hasiko da, eta lehen ziklistak 12:00ak aldera helduko dira.

URRETXUN NAGUSI

Bestalde, Aloña Mendiko alebin eta infantil mailako ziklistek emaitza onak lortu zituzten Urretxun jokatu proban. Ekaitz Txintxurreta (alebin maila), Iker Alberdi (infantil maila) eta Irati Barrena (alebin maila) lehen tokian sailkatu ziren. Gainera, bigarren tokian sailkatu ziren Eneritz Lizarralde (alebinetan), eta Maider Usandizaga (infantiletan).

Urretxuko proban egon ziren baita ere, Xabier Murgiondo, Xabier Aiastui eta Julen Umerez.

oharrak

OSPAKIZUNA

> 1968an jaiotakoek kintada egingo dute uztailean

Aretxabaletako Baster Alde jatetxean egingo dute. Interesatuak 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0005 32 0051041313 zenbakian.

OSPAKIZUNA

> 1964an jaiotakoek kintada egingo dute uztailean

Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailearen 24an, 14:30ean. 13:00etan Oñati tabernan elkartuko dira txikiteoa egiteko. Bazkarian parte hartu gura dutenek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0005 31 0051041678 zenbakian.

AUZOAK > FESTAK

Garagaltza auzoan San Juan jaiak ospatuko dituzte

Besteak beste, bertso jaialdia eta auzo bazkaria egingo dituzte auzoko ermitaren inguruan

M.B. > OÑATI

Olakuako jaien ostean, bihar eta etzi Garagaltzako bizilagunen txanda da. Hain justu ere, San Juan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran.

AUZO BAZKARIA, BIHAR

Bihar, etxafuego jaurtiketarekin hasiko dituzte jaiak. Ondoren, 13:30ean, herriko bertsolariek saioa egingo dute. 14:00etan auzotarrek bazkaria egingo dute San

Juan ermitaren inguruan. Giroa alaitzeko, soinu-jotzaileek dantzaldia egingo dute. Bazkaldu ondoren, auzotarrendako II. mus txapelketa jokatu dute. Bukatzeke, haurrendako jolasak egingo dituzte; besteak beste, itsulapiko apurketa eta magia ikuskizuna. Era berean, opariak banatuko dituzte umeen artean.

Domekan, auzoan hildakoen aldeko meza egingo dute 12:00etan, eta ondoren luncha.

> JENDARTEA

Gure Txoko elkarteko kideak Getariara doaz bihar, zapatua

Patrua kalean dagoen Gure Txoko elkarteak 75 urte bete ditu, eta horren gaineko ospakizunak egingo dituzte bihar. Hain zuzen ere, Getariara irteera egingo dute. Elkartean bertan hamarretakoa egingo dute, eta ondoren, 11:00etan, autobusa hartu eta Getaria aldera egingo dute. Han, txakolindegian baten bazkalduko dute.

Gure Txoko elkarteak 1935. urtean sortu zuten egun dagoen lokal berean. 50-60 urte arteko 50 bazkide ditu. Jose Mari Altuna, Felix Altuna eta Felix Agirre dira bazkide beteranoak.

> HEZKUNTZA

Ikasturte bukaerako jaiak Elkar Heziko haurtzaindegian

Elkar Hezi ikastetxe haurtzaindegian ikasturte bukaerako jaiak egingo dute gaur, 17:30etik 21:00etara arte. Haurtzaindegiko umeekin eta euren gurasoekin hainbat ekintza egingo dituzte ikastetxe lorategian.

Jaiak hasteko, 17:30ean, Apika taldeak Zorionak delako ikuskizuna eskainiko die 2 urtetik gorako umei. Ondoren, 18:30ean, gurasoek prestatuturiko txitxi-burduntzia probatzeko aukera izango dute. 19:30ean umeendako gozo-eltzea (piñata) jarriko dute. Trikitilariak alaituko dute jaialdia.

OSPAKIZUNA > OHITURAK

Dantza indartu gura dute San Juan bezperan

Herritarrek dantzan egiteko aukera izango dute arratsaldean plazan, eta dantzarien saioa izango da gauean, solstizioari ongiatorria emateko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Eguaztenean, hilak 23, izango da urteko egunik luzeena eta gaurik motzena; hau da, udako solstizioari ongiatorria emateko eguna. Kultura Sailak antolatutako egitaraua hainbat berrikuntzarekin dator aurten, eta dantzek aparteko indarra izango dute.

Ospakizuna hasteko, Leizarra musika eskolak antolatuta, *Plaza dantza* egingo dute Herriko Plazan (18:00). Dantzariak ez dira baserriar jantzita egongo eta asmoa da herritar guztiak animatzea dantzatzera. Horretarako, musika eskolako irakasle Aitor Villarreak gidari lanak egingo ditu eta dantzarik ezagunenak dantzatuko dituzte: *Txulalai, San Petit, Polka pik...* "Guztiondako izango da: txiki, heldu, dantzari, dantzari ohi... Ea giro polita sortzen dugun eta ondo pasatu", diote antolatzaileek.

Hori bukatutakoan buruhandiak aterako dira txistulariek lagunduta.

DANTZARIAK DURANA KALETIK

Gaueko ekitaldien tarteak Imunzio eta Beloki taldearen dantzaldiak hasiko du (21:00). Gero (22:20) Sanjuanetako kalejira egingo dute musika eskolako dantzariak Eroski albotik irtenda, suziak lagun dituztela. Eta plazara ailegatutakoan sanjuanetako zortzikoa eskainiko dute.

Sua piztu ondoren (22:30) San Juan kantua abestuko dute abesbatzako kideek eta dakiten herritarrek. Kantu berezia da hori, Aretxabaletan abesten dutena bakararra delako.

Eta gauerdien bueltan tantaia jasoko dute datorren urtean Santa Ageda neska-mutil izango diren gazteek: 1992an jaiotakoek, hain zuzen.



Herriko plazan egindako San Juan suari begira gaztetxoak, iaz.

M.A.

USADIOAK

Irak eta gurutzeak atarteetan; sorta sutara

Azken bi urteotan iraz estalita agertu dira herriko atarte guztiak San Juan egunean. Sasoi batean ere halaxe egiten zuten baserrietan, eta herritar batzuek ohitura berreskuratzea erabaki dute. Ira horiek aurreko egunean moztu eta jasoko dituzte inguruko basoetan, eta gero, 02:00etan hasi eta 07:00ak bitartean atartez atarte banatu. Egurrezko gurutzeak ere egingo dituzte eta atarteetan jarri kalterik sar ez dadin etxe horietan.

Bestalde, sanjuanetako sorta egingo dute hainbat landare erabilita: kuku-prakak, bitxiloreak, garia, oloa, kipula, berakata... laz egindako sorta Kultura Saileko arduradunek daukate gordeta eta aurtengo sutara botako dute, datozen uztak onak izan daitezzen.

MUSIKA ESKOLA > EMANALDIA

Ikasturte bukaerako kontzertua hilaren 22an

Herriko Plazan izango da (18:00) eta 'Hartzaren ehiza' dantza aurkeztuko dute nagusienek

M.A. > ARETXABALETA

Ikasturteari agur esateko hainbat emanaldi egin dituzte Leizarra musika eskolako ikasleek, baina kontzertu nagusia martitzenean izango da. Ikasle eta irakasleek urtean landu dutena erakutsiko diete guraso, lagun eta herritarrei Herriko Plazan (18:00) egingo duten emanaldian.

HAINBAT INSTRUMENTU

Ikasle txikienek kantuan egingo dute eta gero, hainbat instrumenturekin osatutako talde emanaldiak izango dira. Lehen pausoak ematen dabilen bandak ere hainbat kantu eskainiko ditu. Eta eskolako ikasle nagusienek *Hartzaren ehiza* dantza aurkeztuko dute lehenengoz jendaurrean.



Banda kontzertua eskaintzen iaz, Iturrigorri frontoian.

M.A.

DEIA

Helduek ere badute lekua musika eskolan

Arkupen egoitza duen Leizarra musika eskolak 4 urtetik gorako guztien dako eskaintzen ditu eskolak. Gehienak ume eta gaztetxoak dira, baina helduendako taldeak ere badituztela gogorarazi gura dute arduradunek: batetik, solfeoko eskolak hartzeko; eta bestetik, instrumentuekin bakarka lan egiteko irakasleekin. Ikasturtea datorren astean bukatuko dute, baina irailean izena emateko aukera egongo da.

KULTURA

Heldu eta umeendako ikastaroak uztailean

Ukenduak eta bitxiak egiten, josten... erakutsiko dute adituek

M.A. > ARETXABALETA

Kultura Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu uztaileko. Gehienak helduendako dira eta izenemate epea dagoeneko zabalik dago. Interesatuak Arkupera jo behar dute.

Hiru saioko ikastaroak dira guztiak eta asteka antolatu dituzte, astelehen, eguazten eta egubakoitzean egiteko (11:00-13:00). Lehen astean -uztailak 5, 7 eta 9- imitaziozko bitxiak egiten irakatsiko dute; bigarren astean -uztailak 12, 14 eta 16- pilates saioak egingo dituzte; hirugarren astean -uztailak 19, 21 eta 23- josten eta arropa konponketak egiten irakatsiko dute; eta laugarren astean -uztailak 26, 28 eta 30- ukenduak zelan egin erakutsiko dute. Horiez gain, Photoshop programaren oinarriko ikastaroa egingo dute uztailearen 7an, 8an eta 15ean (15:30-17:30).

Eta umeek pintura ikastaroa trinkoa izango dute uztailearen 5etik 23ra bitartean martitzen, eguazten eta eguenean: 09:30ean, 7 eta 9 urte artekoak; 11:00etan, 10 urte-tik gorakoak.

> LEHIAKETA

Jaietako kartela eta esaldiak aurkezteko azken egunak

Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa deitu zuen Kultura Sailak orain dela hila-bete inguru eta lanak aurkezteko epea uztailearen 2an bukatuko da. Edonork parte har dezake eta kartelean jarri beharrekoak hauxe da: *Andramaixak 2010 Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta*. Irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Bestalde, Prebentzio Zerbitzuak jaiak girotuko dituen esaldi lehiaketa deitu du. Ekainaren 30a bitartean aurkeztu behar dira Arkupen edo udaletxean.

Lehiaketan 12 urtetik gorako aretxabaletarrek parte har dezakete, eta gura beste esaldi egin. Jaietako egitarauan erabiliko dutena asmatutakoari 120 euro emango dizkiote eta pegatinak egiteko erabiliko diren esaldiak egindakoei, 60 euro.

KIROLA > MURRUKIXO ELKARTEA

Bidexka zaharrak berreskuratu gura izan dituzte VI. mendi martxan

Domekan egingo dute irteera; egunean bertan hartuko dituzte izenak, proba hasi baino lehenago

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Murrukixo Mendizale Elkartek VI. mendi martxa egingo du etzi, domeka. Izena oraindik eman barik duten mendizaleek jakin behar dute egunean bertan hartuko dituztela izenak, horretarako egokitutako mahaian. Horren harira, antolatzaileek azaldu dute hasiera Herriko plazan izango dela, 07:30ean, eta izena lehenago eman behar dela han. Izene-mateak 10 euro balio du.

Bi urtean behin antolatzen den martxa horrek azken urteotan egindako antzeko ibilbidea izango du: Aretxabaleta, Urkulu, Muñakolatsa, Degurixa, Leixargarate, Kurtzebarri eta Aretxabaleta. Guztira, 26 kilometro izango ditu.

Antolatzaileek, dena dela, azpimarratu dute bidexka zaha-

rrak berreskuratzeko ahalegina egin dutela aurten, eta batzuek ezezagunak izango direla. Horren harira, gaineratu dute ibilbide guztia ondo seinaleztatuta egongo dela, inor gal ez dadin.

JATEKOA ETA EDATEKOA

Aurreko edizioetan legez, jatekoa eta edatekoa izango dute mendizaleek bidean; hain justu ere, 8. eta 16. kilometroetan, eta baita helmugan ere.

Murrukixo elkarteak martxa herrikoia antolatu gura izan du; euren esanetan, ez da martxa gogorra "mendian ibiltzeko ohitura dutenentzako"; izan ere, gorabehera handirik ez dago eta aldapak ez dira gogorrak. Nork bere martxan egin ahal izango du (helmuga 11:00etan zabalduko dute)



Orain dela bi urte egindako mendi martxa.

GOIENKARIA

eta ez dute itxiera ordurik jarri. Antolatzaileen arabera, ekainaren 26an izango den Hiru Handiak martxarako entrenamendu saio "polita" izan daiteke.

EGURALDIAREN MENPE

Antolatutako azken mendi martxan, orain dela bi urte, oso egu-

raldi txarra egin zuen eta 180 mendizale inguruk hartu zuten parte. Orain dela lau urte, ostera, 300 lagunetik gora izan ziren plazan jarritako irteeran. Hortaz, antolatzaileek uste dute domekan egiten duen eguraldiak zeresan handia izango duela ekimenaren harreran.

DIPLOMA

Bestalde, mendizaleak ez dira esku-hutsik joango Aretxabale-tatik. Guztiek diploma jasoko dute bukaeran eta mendiko materialaren zozketa ere egingo dute. Hortaz, eguraldia portatzea eta jendea animatzea bakarrik falta da orain.

Domina gehiago Odei Vazquez karatekarendako

Ekainaren 5ean jokaturako klubaren arteko kyokushinkai karate txapelketan emaitza onak lortu zituzten aretxabaletarrek. Azpimarratzekoa da 16 urtetik gorako kumite eta kata modalitateetan Odei Vazquezek lortutako lehen postua eta 12-15 urte bitarteko katan Oxel Vazquez lehena geratu zela eta Iker Hervas bigarren. Bestalde, asteburuan Orion elkartu dira kirolariak.



ODILO VAZQUEZ

MUSIKA > DISKO AURKEZPENA

Gaur, Julen Cobos Errastiren kontzertua dago Arkupen

M.B. > ARETXABALETA

Julen Cobos Errastik *Zakonek*, Bartzelonara bizi izatera joan zen abeslari sortzaile aretxabaletarrek, kontzertua emango du gaur, egubakoitza, Arkupeneko Zarea aretoan. Euskara, gaztelania eta katalana erabiliz, Mediterraneoko eta flamenko doinuak eskainiko ditu musikariak. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Bat Gehio, Kataluniako eta euskal diasporako musikariak biltzen zituen taldeko abeslaria

eta konposatzailea izan zen *Zakone*. Hala, *Bihar agian* (2002) eta *Diaspor han* (2004) diskoekin hamaika kontzertu eskaini zituen.

PATAGONIARA INSPIRAZIO BILA

Gero, Patagoniarantz abiatu zen inspirazio bila, eta Ipar Atlantikoko arrantza lekuetan eman ditu azken urteak aretxabaletarrek. Gaurko emanaldian *Kantauriko antxoita* disko berria aurkeztuko die Arkupe- ra joaten direnei.

oharrak

UMEAK

> **Eriz magoa gaur ludotekan**

Gaur, egubakoitza, ikasturteko azken jaia ospatzeko Eriz magoa egongo da ludotekan, 17:30etan. Ekitaldia haur guztiei zabalik dago.

UMEAK

> **Izaskun Muxika ipuin kontalaria dago bihar liburutegian**

Izaskun Muxika ipuin kontalariak munduko ipuinak kon-

tatuko dizkie bihar 4 urtetik aurrerako neska-mutikoei Udal Liburutegian, 11:30ean. Sarrera debalde da.

MUSIKA

> **AC/DC: kontzerturako autobusa**

Autobusa antolatzen dabiltza AC/DC musika taldeak Bilbon eskainiko duen kontzertura joateko. Interesatuok deitu antolatzaileei (690 12 98 13) edo Txikibarrera jo.

KIROLA

> **Udako kanpainarako izenematea**

Udako kirol kanpainako lehen txandan izena emateko epea bukatuko da gaur. Interesatuok Zainduz gimnasia dei dezatela (943 71 26 28).

JAIK

> **Jaietako lehiaketetan aurkeztea**

Andramaixetako kartel eta esaldi lehiaketetara aurkezteko epea hilaren 30ean bukatuko da.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

KULTURA > 'ERREKAN GORA' JAIALDIAREN AURKEZPENA

Ausartak antzerki taldearen estreinaldia uztailaren 17an

Uztailean hirugarrenez egingo duten kultura ekimena aurkeztu zuten joan den martitzenean

Berrikuntzen artean, Bizardunak taldeak Atxorrotzen eskainiko duen kontzertua dago

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Emari handiarekin dator *Errekan gora* kultura jaialdiaren hirugarren edizioa. Martitzenean Azkoaga Enea hotolean egindako agerraldian, gertatutako ekimenen berri eman zuten antolatzaileek eta laguntzaileek.

Berrikuntzen artean, azpimarratzekoa da uztailaren 17an, unibertsitateko aretoan, Ausartak antzerki taldeak egingo duen emanaldia. Herriko Amuska emakume taldeko hainbat kidek osatu berri dute eta ekitaldi hori



Martitzenean egin zuten aurkezpena, Azkoaga Enea hotolean.

MIRIAN BITERI

jendaurrean egiten duten lehengo da. Antzezlanaren izenburua *La cenicienta que no quería comer perdices* da eta Olatz Pagaldai eskoriatzarraren gidaritzapean egingo dute.

Bestalde, egun osoko ekimena ere izango da, uztailaren 24an: Atxorrotzera irteera, hain justu

ere. 12:30ean, indusketen gaineko jardunaldia egingo dute, eta 17:30ean, Bizardunak taldearen kontzertua izango da han. Antolatzaileek azpimarratu zuten Atxorrotzera heltzeko modu bakarra oinez igota izango dela, sarrera guztiak itxita egongo dira eta ibilgailuendako.

Egitaraua, egunez egun

Uztailak 2, egubakoitza

19:00 Oreka TX. Emanaldi didaktikoa, Herriko Plazan. Jarraian, *Nomadak TX* filmaren emanaldia.

Uztailak 9, egubakoitza

22:30 Bostarte haize boskotea, Ibarraundi museoa.

Uztailak 10, zapatua

22:30 Kontzertu liriko instrumentala, Azkoaga Enea hoteleko terrazan.

Uztailak 17, zapatua

22:30 Ausartak antzerki taldearen estreinaldia, unibertsitateko aretoan.

Uztailak 18, domeka

19:30 Five Alarm Fire. Kontzertua, Gernika plazan.

Uztailak 24, zapatua

17:30 Bizardunak taldearen emanaldia, Atxorrotzeko zelaian. 22:30 Azkoaga Enean, DJ Elvis Kainorekin jai bukaera.

Arizmendikoek Eskoriatzako elizateak bisitatu zituzten

Arizmendiko Kulturguneak antolatuta, domekan Eskoriatzako elizateak bisitatu zituzten 50 bat lagunek. Ikasturte osoan sei mendi irteera egin dituzte. Antolatzaileek oso balorazio ona egin dute, eta, horrenbestez, datorren ikasturtean ekimena berriro egiteko asmoa dutela esan dute.



ARIZMENDI IKASTOLA

Villar Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

LENIZ

ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

JENDARTEA > JAIK

San Juan bezperako gau magikoa

Udari ongietorria emateko Oinarin taldeko kideak suaren bueltan ibiliko dira dantzan

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Urteko gau magikoena izaten da San Juan bezperako gaua. Urte osoko gauza txarrak sutan erre eta udari ongietorria emateko gaua izaten da. Hala, ohiturari eutsiz, San Juan sua egingo dute datorren eguaztenean herriko plazan. 20:00etan hasiko dituzte San Juan bezperako gertakizunak, plazan bertan.

ARBOLA JASOTZEA

Plazan erreko duten arbola Udalen sailetatik hartutakoa izango da. Arbola plazara eramateaz arduratuko dira Udaleko zinegotziak, brigadakoak eta baserritarren batzordeko kideak; baina plazan, herritarren laguntza beharko dute arbola jasotzeko. Behin sua piztuta Oinarin datza taldeko kideen txanda iritsiko da.



Iaz Musika Eskolak Torresoroan egin zuen kontzertua.

DANTZA SAIOA

Suaren bueltan Oinarin dantza taldeko kideak ibiliko dira dantzan. Lehenengo, San Juan zortzikoa dantzatuko dute; eta ondoren aurrekoa. Soka-dantza egingo dute gero, aurrelarien eta atzelarien desafioa tarteko. Azkenik, fandangoa eta arin-arina. Ordu erdi inguruko saioa izango da dantzariena.

Dantzak bukatu ondoren, Udalak ardo eta gailetak eskainiko dizkie herritarrei. Aspaldiko ohitura da hori. Bestalde, esan behar da, azkeneko urteetan ez bezala, aurten ez dituztela San Juan suaren ondoren balkoieta-lore lehiaketako sariak banatuko. Aurten, herriko jaietan emango dituzte sariok.

MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA

Eguenean, ekainaren 24an, Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Torresoroan, 18:30ean. Soka taldea, ahots teknika eta koraleko taldea, flauta eta piano ikasleak eta txistulariak igoko dira taula gainera Torresoroan. Kurtso amaierako kontzertua izango da.

> ALARDEA

Astelehenera arte luzatu dute Mairuaren Alardean parte hartu nahi dutenendako izena emateko epea

Datorren astelehenera arte, ekainak 21, eman daiteke izena Mairuaren Alardean parte hartzeko. Interesatuak udaletxera deituta (943 766 246) edo kultura@antzuola.net-era idatzita eman dezakete izena. Mairua biziberritzeko taldea lanean hasita dago aurtengo alardea antolatzen; uztailaren 17an izango da alardea aurten.

> MENDI IRTEERA

Arrola mendi taldeak 'Lakuetako ibilbideak' irteera antolatu du uztaileko bigarren aste bukaerarako

Lehenengo egunean –uztailak 10– Selva de Ozatik Candanchurako tartea egingo dute eta, domekan, Canfranc geltokitik La Moleta mendira eta Ip lakutik Canfrancera. Izena emateko azken eguna ekainaren 30a izango da 07:00etatik 08:00etara Olanen etxean; eta aurretik, 635 205 841 telefonora deituta. Bazkideek 40euro eta ez bazkideek 46 euro.

> UZARRAGAKO IGOERA

Antzuolako challengearen barruan, bihar, zapatua, Uzarragara igoera egingo dute gaztetxoek

Uzarragara igoera bihar izango da. Herriko txirrindulari gaztetxoek 12:00etan hasiko dute lasterketa. Portu motza baina gogorra da Uzarragako; ondorioz, gaztetxoek gogor egin beharko dute lan. Gogoratu behar da Antzuolako challengearen barruan antolatutako proba dela.

oharrak

DEIA

> Mundumiran galdutako objektuak udaletxean jaso dituzte

Udaletik dei egin dute esanez galdutako hainbat objektu jaso zituztela Mundumira ospatu zen aste bukaeran. Norbaitek zerbaite faltan igarri badu, udaletxera joan dadila; han daude galdutako objektuak.

ENTSEGUAK

> Martitzenetan egingo dituzte larrain-dantzako entseguak

Martitzenetan izango dira larrain-dantzako entseguak, eskolan, 20:15ean. Ekainaren 22an hasiberriendako eta oso garbi akordatzen ez direnendako izango da; eta, ekainaren 29an, uztailaren 6an eta 13an nahi duten guztiendako.

DIANA

> Txistulariek diana egingo dute domeka goizean

10:00etan egingo dute diana txistulariek herriko kaleetan.



A.E.

Gimnasia erritmikoko enbustaldia

Urduritasunak alde batera laga eta ezin hobeto dantzatu zituzten koreografiak gimnasia erritmikoko neska-mutikoen, eguaztenean, gurasoen eta lagunen aurrean. 30 lagun inguru ibili ziren pilotalekuan, ikasturtean zehar ikasitakoak erakusten. Txikitxoek taldekako lanak egin zituzten, eta nagusiak bakarka aritu ziren, gimnasiako aparailu ezberdinak erabiliz; adibidez, uztaia. Pilotalekura emanaldia ikustera joan zirenak gustura geratu ziren ikusitakoarekin.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Alex Mendikute > Argazkizalea

"Txoko eder asko ditu Aramaiok, jendeak uste baino gehiago"

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Argazki erakusketa jarri berri du Alex Mendikutek Sastiñan. Dozena bat irudi dira ikusgai jarri dituenak. Joan den urtean, sasoi honetan gainera, erakusketa bera egin zuen Donostiako La Colchoneria tabernan. Orain, herritarren, lagunen aurrean erakutsi nahi izan ditu. Ekainaren 27ra arte izango da erakusketa zabalik.

Naturari buruzko argazki erakusketa ekarri duzu Sastiñara.

Bai; paisaiak eta naturarekin lotutako gauzatxoak dira... Batzuetan begirada urrunera joaten zaizu eta bestetan, aldiz, gertuko gauzetara. Gauza bietatik badago zerbait, eta Aramaio da protagonista nagusia.

Aspaldian zabilta kamerarekin eta Aramaioko txoko guztiak harrapatuko zenituen honezker.

Lehen kamera, 14-15 urte izango nituen, txokolate marka bateko promozioan opari egiten zuten horietako bat. Geroago, reflexa erosi nuen; zuri-beltzeko laborategia ere izan nuen... baina 28 urterekin-edo ekipo osoa saldu nuen. Urte mordo eman nituen argazkirik atera gabe eta umeak etorri zirenean hasi nintzen berriro, baina familiako argazkiekin batez ere, badakizu... Duela hiruzpalau urte reflex digitala eskuratu nuen eta berriro ekin nion, serio, txikitako zale-tasunari.

Aramaiori buruzko fitxategi modukoa ere osatzen zabilta. Zenbat argazki dituzu?

Ba, egia esan, sekula ez ditut zenbatu. 5.000tik gora agian? Aramaiori buruz zerbait idazteko norbait gertu balego, badut materiala, bai... Ni ez naiz gauza idazteko, argi daukat hori, baina badituz argazkiak, planoak, herriko



Alex Mendikute, Sastiña ermitako sarreran, domekan ateratako argazkian.

JULIO CALLEJA

bideen inguruko kontuak... Horri buruzko lanen bat egiteko arazorik gabe utziko nioke edonori material hori guztia.

"Aramaiori buruz zerbait idazteko norbait gertu balego, badut argazki materiala, bai..."

"Urte mordo eman nituen argazkirik atera gabe eta duela urte batzuk ekin nion berriro"

Antza denez, Aramaio da zure inspirazio iturri... Txoko gutukoena, zein?

Aukera pilo bat ditu Aramaiok. Gustura egoteko, bakarrik, Orixolen, amildegi ondoan dagoen harri bat atsegin dut asko; bailara erdi-erdian dagoen Letasur ermita ere bai; Lezia, Etxaguetik Anbotorantz; Albiñako urtegi eta Kurtzeta inguruan ere leku politak daude... Jaiotzez arrasatearra naiz, baina ama aramaiarra da, Uribarriko Zubieta-Etxebarri baserrikoa. Betidanik ibili naiz Aramaion eta 25 urterekin hona bizi izatera etorri nintzen.

Argazkiak ateratzeko sasoi-rik onena?

Udazkena, negu parte, udaberria ere bai... Uda ez zait horrenbeste gustatzen argi larregi dagoelako; nahiago dut argi bila ibili... Bestetik, goizaldea atsegin dut gehien argazkiak egiteko.

Aramaioko Ondarea Berreskuratzeke Taldean ere zabilta...

Bai; Sastiñako atzealdean dagoen bidean lan polita egin berri dugu eta udazkenean-edo harrizko losa batzuk jarriko ditugu bertan.

GERTAERAK > ELKARTASUNA

Oletako Obena baserriaren aldeko jaialdia izango da datorren domekan, hilaren 27an

Obena ondoko landan ahalik eta jende gehien batzea da antolatzaileen asmoa; herri kirolak eta erromeria izango dira



Suteak kalte nabarmenak egin zituen Obena baserriaren, apirilaren 24an.

GOIENKARIA

E.M. > ARAMAIO

Joan den apirilaren 24an sute batek kaltetutako Oletako Obena baserriaren aldeko jaialdia iragarri dute datorren domekarako, hilaren 27rako. Ezbehar haren erruz, bi etxebizitzako baserria erabat suntsiturik gelditu zen eta familia batek etxebizitza galdu du. Herri ekimen batek, Udalaren eta Oletako Kontzejuaren laguntzaz, jaialdia iragarri du ekainaren 27rako, kaltetuei nola-baiteko babesa emateko. Antolatzaileen asmoa ahalik eta jende gehien batzea da.

DIRULAGUNTZA EMATEKO AUKERA
Era berean, Aramaioko udalbatzak erabaki du Euskadiko Kutxan kontu bat eta BBKn beste bat zabaltea *Obena baserriari laguntza* izenarekin (Euskadiko Kutxa: 3035 0161 23 1610007164

eta BBK: 2095 0057 50 9110593759). Jaialdiari dagokionez, 12:00etan hasiko da Obena ondoko landan eta, besteak beste, herri kirolak (Iparraldeko jokoak), segalariak eta Xabi eta Unai taldearekin erromeria izango dira.

> MUSIKA

Deiedra folk taldea gaur Sastiñan eta Quorum Quartet bihar, zapatua, Iturrieta sagardotegian

Barikuetako kontzertuekin jarraituz, Deiedra taldearen emanaldia izango da gaur, barikua, Sastiñan; basque lands estiloko folk emanaldia izango da gaurkoa, 18:30ean hasita.

Bestalde, bihar, zapatua, beste musika hitzordu bat izango da: Quorum Quartet taldeak emanaldia egingo du Iturrieta sagardotegian, 19:30ean.

> KINTADA

1945ean jaiotakoek egun osorako irteera egingo dute Bermeo aldera datorren irailaren 18an

1945ean jaiotako aramaiorrek ospakizuna izango dute datorren irailaren 18an. Egundako irteera egingo dute, Bizkaiko kostaldera, Bermeo aldera. Bazkaria Sukarrietan izango da.

Izenematea uztailearen 31ra arte dago zabalik eta 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako ondoko kontu korrantean: 3035 0001 50 0011 148540.

> KULTURA

'Palabras encadenadas' filma gaur kultura etxean eta gaztetxoendako kandelagintza tailerra bihar

Laura Mañak zuzendutako *Palabras encadenadas* filma emango dute gaur, barikua, kultura etxean, 22:15ean.

Ikasturteko programazioaren barruan, bihar, zapatua, 12 urte-tik gorako neska-mutikoei zuzendutako kandelagintza tailerra izango da gazte lokalean, 16:30ean.

HEZKUNTZA > KURTZO AMAIERA

Ikasturte amaierako jaia ospatuko dute gaur arratsaldean Espaloian

Lehiaketa bat antzetzuz amaiera emango diote aurtengo ikasturteari herri eskolakoek; musika ikasleen amaiera kontzertua 27an izango da

NEREA MENOR > ELGETA

Martitzenean bukatuko dute herri eskolakoek ikasturtea. Goizez eskola eduki eta gero ikasle guztiek herri bazkaria egingo dute txiki-patioan. "Oso giro polita sortzen da. Irakasle eta ikasle guztiak biltzen gara bertan, 2 urte dituztenetik hasi eta 6. mailako haurretara", adierazi digu Emma Igartua zuzendariak.

KURTZO AMAIERAKO JAIA

Oraindik egun batzuk gelditzen dira ikasturteari agur esateko, baina, bien bitartean, kurtso bukaerako jaia ospatuko dute gaur bertan. 15:00etatik 16:00ak

bitartean Espaloia kafe antzokian izango da. Beste urte batzuetan bezala, dantza eta abestu egingo dute ikasleek, baina berezitasun batekin: "1, 2, 3 lehiaketaren antzerako bat egingo dugu, horrela saio bakoitzaren aurretik aurkezpen bat egingo dugu. Ikasleak izango dira aurkezleak", dio zuzendariak. Asteon entseguak izan dituzte Espaloian bertan. Horrela, arrazoizkoa da ikuskizunak lortzen duen arrakasta: "Urtero aretoa beteta egoten da erabat. Gurasoek benetan gustuko dute. Bertan, argia, soinua, beharrezko guztia dugu eskura". Bazkari eta ikuskizunaz gain, kurtsoari

amaiera emateko urtero egiten dute irteeraren bat. "Txuri Urdirin izan ziren ikasleak joan den egubakoitzean".

MUSIKA IKASLEAK

Ekainaren 27an musika ikasleen txanda izango da: ikasturteari amaiera emateko emanaldia egingo dute. Elgetako antzokian izango da, 12:30ean. Guztira, 24 haurrek hartuko dute parte. Pianoa, gitarra eta tronpa joko dute. Gainera, ikasle batek dantza egingo du eta aurre hizkuntzako 1. mailakoak ere izango dira ekitaldian. "Ikasleak desiratzen egoten dira emanaldiko eguna heltzeko, alde batetik, jendearen aurrean kurtsoan zehar ikasi dutena erakusteko, eta beste alde batetik opporen hasiera delako", adierazi digu Lorea Larrañaga musika irakasleak.



Umeak, Guraso Elkarteak eta Udalak antolatutako jolasetan.

LARRAITZ ZEBERIO

OSPAKIZUNAK > SAN JUAN

Umeendako ekintzak izango dira San Juan bezperan

N.M. > ELGETA

Laster helduko da San Juan bezpera. Herri gehienek antolatzen dute zerbait egun horretarako, baina Elgetakoa berezia da erabat.

Arratsaldean hasiko da jaia: *Ametsen fabrika* izeneko umeendako ipuin antzetzua ekarri du Guraso Elkarteak. Aizarnazabalgo Adiskide Bertso Eskolako eskutik, 17:00etan hasiko da, Herriko Plazan. 18:30ean

txotxongilo jaialdia egingo da. Antzerkiaren ostean jolasak egingo dira. 20:30 aldera txitxi-burruntzia egingo da.

SUA PIZTU

"Aurreko urtean hasitakoari jarraipena emanez, aurtan ere umeak deituko ditugu sua presatzeko", adierazi digute Udalean. 22:00 aldera hasiko dira sua pizten eta Elgetako soinu-joleek musika jarriko dute.



MAALA GURASO ELKARTEA

Gipuzkoako Eskola Txikien festan elgetarrak

Gipuzkoako Eskola Txikien festa ospatu zen domekan Altzon. Maala guraso elkarteak antolatuta koadrilatxoa joan zen domekan egun pasa egitera. Goizean goiz abiatu ziren autobusez Altzora. Bertan, harrera ekitaldian parte hartu zuten eta baita orogarririk trukaketa ere.

4 urtekoen gelako Xabier Arrasatek eta Lorea Gartzia 5. eta 6. mailako ikasleek egindako eskulana eman zieten Altzoko eskolako kideei. Eskulanak Elgetan hain esanguratsua den Kataia irudikatzen zuen.

LEINTZ GATZAGA > OSPAIZUNA

Jatekoa eta sua San Juan bezperan

Saiheskia, sardinak eta urdaia eskainiko dituzte

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Ibarreko herri guztietan legez, Gatzagan ere egingo diote ongietorria udari San Juan bezpera

ospatuta. Gurel guraso elkarteak kideek jolasak egiteko asmoa daukate ume eta gaztetxoekin eguzten arratsaldean.

Kultura Sailak, oster, gau parteko ekitaldiak antolatu ditu. Azken urteotan legez, jatekoa egingo da ilunkean San Migel plaza inguruan (21:00): saiheskia, sardinak eta urdaia. Hainbat herritarrek izango dute burruntzian erretzeko ardura eta gero gainerakoei eskaini. Bukatutakoan, San Juan sua piztuko dute plazan bertan, salto egin edo inguruan dantzan egiteko aukerarekin. Ez da izango Gatzagako su bakarria, baserri inguruetan ere egingo dute-eta bakarren batzuek.

> ERRETIRATUAK

Salbadorpe elkarteak kideek urteko kuota kobratzea eta podologo zerbitzua

Salbadorpe elkarteak kideek urteko kuota kobratuko dute domekan honetan. Bazkideek 10 euro eraman beharko dituzte Ozkarbi elkartera 11:00etatik 13:00ak bitartean.

Eguenean, podologia zerbitzua egingo da, erretiratuendako, eguneko zentroan. 15:00etatik 19:00etara izango da. Aldez aurretik txanda hartzea ezinbestekoa da; horretarako, Nati Arrietari deitu: 943 76 80 77 telefonora.

> INFORMATIKA

Aitor Madrid KZgunean izango da astelehen goizean eta hainbat ikastaro egin ahal izango dira

Astelehen goizean, 09:00etatik 13:00etara bitartean, Aitor Madrid tutorea kultura etxeko KZgunean izango da. Horrela, hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute bertara joaten diren herritarrek.

Sare sozialak erabiltzen ikasteko ikastaroa; *Google* tresnak, *Google maps* eta *Earth*, besteak beste; Internet bidez erosteko *Ebay* webgunea eta erosteko sistema segurua, *PayPal*. Software librea eta *Ubuntu* ikastaroa ere egingo dira eskura, beste askoren artean.

> INTERNET

Gaur goizean dago ikastaroak egiteko aukera KZgunean

KZguneako dinamizatzaile Aitor Madrid etorriko da gaur Gatzagara (09:00-13:00). Herritarren zalantzak argitzeko gertu egingo da eta, gainera, ikastaro motzak eskainiko ditu Interneti etekina ateratzen ikasteko: sare sozialak, *Google*-ek eskaintzen dituen tresnak, wi-fi teknologia...

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

ZIKLISMOA > EUSKAL HERRIA TORNEOA ETA EMAKUMEZKOEN SORALUCE SARIA

Mikel Aristik Euskal Herria torneoa irabazi du Izarran eutsi eta gero

Eibarren, Urdulizen eta Izarran lortutako puntuei esker lortu du torneoa irabaztea

Zapatuan egingo dute, Osintxun hasita, emakumezkoen Soraluze saria

XABIER URTZELAI > BERGARA

Sumofic-Lokatza taldeko Mikel Aristik jantzi zuen domekan Euskal Herria torneoko txapeldunaren maillota, lasterketan aurretik zuen abantailari ondo eutsi eta gero.

Bergarakoak nahikoa zuen lehenengo hamabost sailkatuen artean iritsita maillota janzteko, baina, badaezpada, podiumera igota berretsi zuen denboraldian zehar egindako lan ona. Bergarakoak hirugarren egin zuen Izarran, eta aurretik Eibarren (bigarren postua, martxoak 14), eta Urdulizen (lehenengo postua, maiatzak 23) egindako lanaz baliatu zen Euskal Federazioak

antolatzen duen torneoa poltsikoratzeko.

EMAKUMEZKOEN SARIA BIHAR

Zapatuan, 15:30ean hasita, Osintxun egingo dute emakumezkoen Soraluze Koop. saria. Lokatza-ko antolatzaileek 80 ziklista inguru batu nahi dituzte, eta dagoeneko Valentziako eta Madrilgo taldeek baieztatu egin dute irteera puntuan izango direla: "Lasterketa laua izango da, eta asmoa da elitekoek bi itzuli egin ostean Osintxutik pasatzen direnean gazteak irtetea, eta hurrengo itzulian kadeteak; asmoa da tropel polita osatzea", azaldu du Iker Sanchezek.



Mikel Aristi, Euskal Herria torneoko maillotaz.

GOIENKARIA



MIREN MANIAS

Caja Laboral Baskoniako kideak Arrasaten egon dira

Caja Laboral Baskoniak ACB liga irabazi du eta ospakizun nagusia atzo, eguena, iluntzean egin zuten Gasteizen. Baina aurretik, eguerdian, hain zuzen ere, Arrasaten izan ziren taldeko kide guztiak. Baskoniaren babesle izan da aurtien Euskadiko Kutxa eta haren egoitza nagusian izan ziren saskibaloitza taldeko presidentea, jokalariek eta entrenatzaileak, babesleekin batera garaipena ospatzen. Taldeko kide zein babesleak oso pozik agertu ziren lortutako garaipenarekin.

ERREMONTA > BERGARA HIRIA

Bergara Hiria erremonte txapelketako finala da gaur

X. U. > BERGARA

Joan den egubakoitzean jakin genuen ze bikotek jokatu duten gaur, 19:30ean hasita, Etxeberria IV.aren eta Urrutiaren kontrako Bergara Hiria finala.

Bikote horrek orain dela hamabost egun eskuratu zuen

finalerako txartela, eta joan den astean Urtasunek eta Lizasok egin zuten gauza bera, Ezkurra eta Baleztena mendean hartuta (33-40). Hala, bi bikote horien arteko finala egongo da gaur ikusgai. Lehenago, baina, erakustaldiko partidua izango da.

IRUJO ETA TITIN ARRASATEN

San Juan jaien barruan Aspe pilota enpresak antolatutako jaialdia jokatu dute hilaren 27an, domeka, Arrasaten.

Puntako aurrelarien arteko lehia izango da, gainera, Juan Martinez de Irujo eta Titin III.a izango dira eta zein baino zein gehiago (20 euro). Atzean, Irujok Merino izango du lagun eta Titinek Laskurain.

Partidu nagusiaren aurretik, motorrak berotzen joateko beste partidua izango da.

> ZIKLISMOA

Bihar, zapatua, Debagoieneko zikloturista askok Quebrantahuesos probarekin dute hitzordua

Quebrantahuesos zikloturismo probak 20 urte egingo ditu zapatuan, eta, urtero moduan, bertan izango dira Debagoieneko lagun asko. Zenbatekoa, baina, seguruenik beste urte batzuetakoa baino txikiagoa izango da, lasterketa horrek duen oihartzuna dela eta antolatzaileek aurtien zozketa bidez aukeratu behar izan dituztelako 11.000 parte-hartzaileak -20.000 lagunek eman zuten izena-, eta zozketa horretan asko eta asko kanpoan geratu direlako.

Joan den astean, berriz, Irati Extrem proba egin zuten, Otsagabian hasita. Ez da lasterketa, zikloturismo proba baizik, baina Larrauko igoera kronometratua izaten da. Hala, Dorletako Amako Haritz Kortabarriak seigarren denbora onena egin zuen (46:36).

GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP. ELKARTEA BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Data: 2010eko ekainaren 22an.

Ordua: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.

Tokia: Arrasateko Kulturaren izango da, areto nagusian.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2009ko ekainaren 11ko batzar orokorraren aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. GOIENA Komunikazio Zerbitzuak koop. E.ko estatutuetako 40. artikulua aldatzea.
4. GOIENA Komunikazio Zerbitzuak koop. E.ko Barne araudiaren 34. artikulua aldatzea.
5. 2009ko kudeaketaren memoria azaltzea.
6. 2009ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
7. Zaintza batzordeko kideen txostena irakurtzea.
8. Bazkide ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
9. 2010eko kudeaketa plana eta aurrekontuak aurkeztea.
10. Errektore Kontseiluko kide berriak izendatzea.
11. Galderak eta eskaerak.


OHARRA: Legeak agintzen duen bezala, estatutuen aldatetaren zioak eta zergatiak azaltzen dituen txostena eskuragarri dute bazkide guztiak baltzuren egoitza sozialean.

Estepan Plazaola Otadui
Arrasaten, 2010eko ekainaren 7an.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



> **POTEMKIN**
Gaurko kontzertua grabatu egingo dute, DVDan ateratzeko > 30



> **SANJUANAK**
Arrasateko jaien egitaraua eta hainbat eduki interesgarri > 33-57

> **SARA MANZANO**
Kantu ikaslea da, baina artearen beste arlo asko ere gustuko ditu: antzeztea eta marraztea. Karatea ere gustatzen zaio > 58



Dani Carrillo 'stuntman'-a da Motorrero Eguneko izarra

IKUSKIZUNA

Gidari katalanak bi motor erabiliko ditu emanaldia egiteko

JAIA

Hirugarrenez ospatuko dute motorren festa Arrasaten

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Motor hotsak izango dira nagusi bihar Arrasaten. Hirugarrenez Motorrero Eguna ospatuko dute. Antolatzaileek egitarau zabala prestatu dute (ikus beheko taula). Baina, zalantza barik, ekitaldi ikusgarriena Dani Carrillo espezialistaren erakustaldia izango da. Montmeloko (Bartzelona) gidariak *stunt show*-a egingo du bi motorrekin. Denetariko akrobaziak eta salto arrisksuak egingo ditu. Aprestuz Eskola atzean itxita dagoen errepidean egingo du saioa Carrillok. Gidariak GOIENKARIARI esan dio saioa "ikusgarria" izango dela.

PLASTIKOZKO MOTORTXOAK

Motorrero Eguneko antolatzaileen helburua adin guztietako pertsonengana heltzea da. Horregatik, haurrendako ekintzak antolatu dituzte. "Etorkizuneko motorzaleekin" kalejira egingo dute Laubide plazatik. Txikienek plastikozko motortxoak erabiliko dituzte. Umeen artean gozokiak banatuko dituzte.

Bazkalostean ordu eta erdiko ibilaldia egingo dute parte-hartzaileek, eta Laubide plazara helzen direnean jolasak egingo dituzte. Era berean, musikak lekua izango du motor doinuen artean. Dirty Brothers arrasatearrek zuzeneko egingo dute. Disko berriko kantuak eskainiko dituzte, besteak beste.

EGURALDIAREN ZAIN

Antolatzaileek 200 bat parte-hartzaile espero dituzte biharko, baina zerura begira, eguraldiaren zain daude. "Horrelako kontzentrazioetan, eguraldiak zeresan



Dani Carrillo akrobazia ikusgarria egiten; halakoak egingo ditu bihar Arrasaten.

DANI CARRILLO

handia dauka. Astea oso euritsua izan da, baina badirudi bihar ez duela euririk egingo", esan digu antolatzaile taldeko Koldo Atxotegik.

Herritarrak ekitaldietan parte hartzera animatu gura dituzte. "Motorzale izan edo ez, egitarau polita osatu dugu. Motorren erakustaldia ederra izango da, eta Dani Carrillok egingo duen ikuskizuna, sekulakoa. Akrobazia ikaragarriak egingo ditu. Guztiak zaudete gonbidatuta", diote.

Motorrero Eguneko egitaraua

19, zapatua

12:00 Laubide plazako txosnan izenematea zabalik, 5 eurotan.

12:00 Seber Altube plazan gaztetxoek plastikozko motortxoek kontzentrazioa eta kalejira.

12:30 Gaztetxoekin jolasak eta opariak Laubide plazan.

16:00 Motorreroen ibilaldiaren hasiera.

16:30 Parrilla piztuko dute.

18:15 Motorreroen ibilbidearen bukaera.

18:30 Motorreroendako jolasak.

19:30 Dani Carrilloren *stunt show*-a, Aprestuz Eskola atzean.

20:30 Dirty Brothers taldearen kontzertua.

21:00 Motorrero Eguneko zozketa eta opari banaketa.

22:00 Jaiaren amaiera.

Dani Carrillo > Motor gidaria

"Sua egiteko injektorea duen motorrekin ibiliko naiz"

M.B. > ARRASATE

Dani Carrillo gidariak ikuskizun paregabea egingo du bihar. Bi motor erabiliko dituela esan digu, eta horietako baten sua botatzeko injektorea erabiliko duela.

Zer-nolako ikuskizuna eskainiko duzu?

Saioa ordu erdikoa izango da. Lehen 20 minutuetan akrobaziak egingo ditut. Ariketa teknikoak izango dira. Motorren gainean jarriko naiz hanka batekin, esku barik... Azkeneko hamar minutuetan saioa ikusgarriagoa izango da. Ihes-hodi bako eta sua botatzeko injektorea duen motorrekin ibiliko naiz. Besteak beste, pertsonak lurrian etzanda ipini eta euren gainetik egingo dut salto.

Zenbat motor erabiliko dituzu?

Bi. Ariketa teknikoak egiteko Kawasaki 636 delako motorra eta bukaerako ariketak egiteko Suzuki GSX-R motorra.

Zenbat urterekin hasi zinen?

16 urterekin hasi nintzen motor txikia gidatzen. 18 urterekin akrobaziak egiten hasi nintzen eta 19 urterekin motor handia erosi nuen. Orditik hona nabil ikuskizunak egiten. Egun 22 urte ditut.



DANI CARRILLO

MUSIKA > POTEMKIN

Potemkinek gaurko emanaldia grabatuko du, DVDA egiteko

Psilocybenea aretoan izango da, 22:30ean; Discipulos de Dionisos taldearekin batera joko dute oñatiarrek

NEREA MENOR > OÑATI

Potemkin talde oñatiarra Hondarribiko Psilocybenea aretoan izango da gaur gaueko hamarretan. Kontzertua grabatu egingo dute audioan eta bideoan, eta material horrekin DVD bat argitaratuko dute.

KONTZERTU GEHIAGO

Iaz abenduan argitaratu zuen taldeak *Gauaren zaindaria* disko berria. Orduetik hona 15 kontzertu eman dituzte eta dagoeneko oso sasoi onean daudela adierazi digu Iker Martinez de Zuatzogitaristak, "olatuaren gainean".



Potemkin boskotea.

GOIENKARIA

Momentu on hau aprobetxatzeko, kontzertua grabatu eta Gabonak aldera DVDA ateratzeko asmoa dute. Joko dituzten abesti gehienak azkeneko diskokoak

izango diren arren, bertsoiak eta kantu zaharrak ere izango dira entzungai emanaldiak iraungo duen ordu eta erdian. *Gauaren zaindaria*-en harre-

raz galdetu diogu Martinez de Zuatzori: "Diskoa nahiko zabaldu da eta pozik gaude, baina gure helburua jotzea da. Ia astero jotzen gaude", esan digu.



Diseinatzaile gazteak, jantziak prestatzen dituzten lekuan.

JOKIN BEREZIARTUA

MODA > DESFILEA

Diseinatzaile gazteen desfilea bihar 3 aretoan

N.M./J.BEREZIARTUA > ARRASATE

Moda desfile berezia egongo da bihar, 19:30ean, Arrasaten. Herriko Amaia Albes eta Ane Garaik euren diseinuak erakutsiko dituzte 3 aretoan eta ikus-

kizuna ere egingo dute. *Rock it all* da euren marka. Ordu erdi inguru iraungo du, eta gero, diseinatzaileek euren jantzi, osagarri eta bestelakoak salgai jarriko dituzte.

LITERATURA > IPUIN BILDUMA

Gipuzkoako historiaren gaineko ipuinak umeendako

Industrializazioa Bergaran eta 1936ko gerra Elgetan girotuta daude

N.M. > BERGARA

Gipuzkoako historia azaltzen duen *Gipuzkoako historia ipuinen bidez* delako liburu bilduma argitaratu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak eta Elkarrek. Hamaika liburuxkak eta bi DVDk osatzen dute bilduma eta 6 eta 8 urte bitarteko umei zuzendutakoak dira.

BERGARA ETA ELGETA

Ipuin bakoitza Gipuzkoako herri baten kokatu da, garaian

garaiko ohitura eta bizimoduaren berri emanez. Bada, Bergara eta Elgetako ipuinak ere badaude. Gipuzkoako industrializazioa azaltzen dute Bergarakoan, *Hildako semearen itzulera* da izenburua eta 1888. urtean girotuta dago. Pako Aristik idatzi du hori.

Negu luzearen atarian ipuinean 1936ko gerrako istorioak kontatu dituzte. Elgetan bizi diren bi haurren egoera azaltzen du. Xabier Mendiguren Elizegi da egilea.

SALGAI

Ipuinak dagoeneko salgai daude. Banaka eros daitezke bai liburuak baita DVDak ere, edo guztiak batera, 70 euroko prezioan.

LITERATURA

'Biblioporrak' gida kaleratu berri dute liburutegiek

Adin ezberdinetako jendearentzako liburuak, diskoak eta filmak daude gidan

N.M. > BERGARA

Laster amaituko dute ikasturtea Debagoieneko ikasleek. Udako oporrak iristear daude eta horiek une aproposa dira esku artean liburu bat hartzeko.

Hori dela eta, beste behin ere, inguruko liburutegiek *Biblioporrak* egitasmoa jarri dute martxan eta liburu nahiz film edo diskoen gomendioak egin dituzte. Horren helburua irakurketa bultzatzea da.

ADINEN ARABERA SAILKATU

Adinaren arabera banatuta daude aholkuak: 0 urtetik gorakoendako, 6 urtetik gorakoendako, 9 urtetik gorakoendako, 16 urtetik gorakoendako eta helduendako liburuak. Adin tar- te bakoitzak 16 proposamen ditu da honetarako. Drama, komedia, abentura eta askotariko generoak aurki daitezke bertan. Euskarazko eta gaztelaniazko liburuak daude.

Azkeneko orrietan disko proposamenak eta film proposamenak bildu dituzte liburutegiek.

Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Legazpi eta Oñatiko liburutegiek parte hartu dute gidan.

> GRABAZIOA

Asier Altunak 'Artalde' film laburra grabatuko du asteburuan

Asteburuan filmatuko du zuzendari bergararrak *Artalde* izeneko bere azken lana Bilbon. Hiritarrez osatutako artalde handi bat osatu nahi du zuzendariak. Zapatuan (15:45) kafe antzoki ondoan eta domekan (09:45) Gran Viako Corte Ingles ondoan izango da grabazioa. Helburua lortzeko jendearen partaidetza behar du.

> KLOWN

'Inozentzio Xou' ikuskizuna eguenean Pol-Pol tabernan

Ahozko narrazio zirkuituari datorren ikasturteari agur esan eta gero, ekainean helduei zuzendutako euskarazko clown antzerkia eskainiko du Oihulari Klown taldeak Pol Polen. 22:30ean izango da saioa.

Andoni Egaña Mendaroko pailazoa izango da ikuskizunaren protagonista.

Gora, Sanjuan jaiak!

ARPE

Ile apaindegiko artikulua

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

eya Ondo pasatu Sanjuanak

estilo guztietako lanparak

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxe: 943 77 20 51
ARRASATE

Haritza Bergara > Idazlea

"Gaur egun gertatzen zaigu ospatzen ditugun jai asko zergatik ospatzen ditugun ere ez dakigula"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Haritza Bergara (Sestao, 1972) idazlea eta euskal kulturari lotutako ekimen berrien sortzaile eta bultzatzailea da. Jardunek antolatuta, hilaren 22an udako solstizioaren gainean berbaldia egingo du Bergaran (19:00, kultura etxea). Orain momentuan buru-belarri dabil irailan argitaratuko duen lanean: *Euskal Herriko mitologia, jentilen aztarnen atzetik*.

Udako solstizioaren gainean egingo duzu berba; zer aurrea dezakezu?

Hasteko, argitu nahi dudana da gai horiek atsegin ditudanez nik dakidan apurra besteei erakustea dela asmoa, baina gai horren gainean informazio mordoa dagoela liburuetan, nahi duenaren esku.

Hala, berbaldian udako solstizioarekin batera neguko solstizioaren gainean ere egingo dugu berba, zergatik ospatzen ditugun eta ze esangura duten. Izan ere, gaur egun gertatzen zaigu ospatzen ditugun jai asko zergatik ospatzen ditugun ere ez dakigula, eta ospakizun horiek guztiek badute euren zergatia, hemen eta beste leku askotan.

Kristautasunak bere egin ditu lehenago ere ospatzen ziren jaiak, ala?

Halaxe da, baina ez hemen bakarrik, mundu osoan gertatu den fenomeno delako. Trasposizio izenarekin ezagutzen dugu hori; hau da, antzinako jaiak baztertu beharrean erlijioan barneratu zituzten; hala, udako eta neguko solstizioetan sanjuanak eta Jesusen jaiotza ospatzen ditugu. Horrekin batera, eliza, basiliza edo katedral asko paganoendako leku bereziak ziren lekuetan eraiki zituzten, lehenago ere gurtzarako lekuak zirelako.

Lehen, urtaro aldaketak oso bereziak ziren, jendeak lurra-

"Antzinako jaiak baztertu beharrean, erlijioak barneratu egin zituen"

"Urtaro aldaketak ospatzearena sinismenetan errotuta zegoen; orain ez"

rekin harreman estua zuelako. Egun, galdu egin da hori.

Galdu egin da mahai gainean jatekoa izateko ez gaudelako uztari begira, edo lehorte edo uholdeen menpe. Solstizioa, azken baten, gertaera fisiko-astro nomiko bat da, eta urtean zehar badira lau momentu lurraren eta eguzkiaren artean bereziak direnak. Bi solstizioak, batetik: egun horietan urteko egun luzeena edo gau luzeena izaten dugu. Eta bi ekinozioak, bestetik: egun horietan egunaren eta gauaren iraupena berbera izaten da.

Bestalde, urtaro aldaketak ospatzearena sinismenetan ere errotuta zegoen. Hau da, urtaro aldaketa horien atzean sinismen konkretu batzuk zeuden, baina gaur egun badakigu, zientziak aurrera egin duelako, aldaketa horien zergatiak beste batzuk direla.

Eta solstizio aldaketa bakoitza ez da berdina ospatzen.

Ez, urtaroaren arabera ospakizuna aldatu egiten zen. Udako solstizioa komunitatean ospatzen zen, eguraldiak lagundu egiten zuelako. Eta neguko solstizioa etxe barruan ospatzen zuten.



Haritza Bergara.

GOIENKARIA

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00

**HILEKO
3. ZAPATUAN**

ekainak 19
uztailak 17
irailak 18
urriak 16

ARRASATEKO UDALA
ARRASATEKO UDALAKO KULTURAREN ZERBITZUA

ARRASATEKO UDALAKO KULTURAREN ZERBITZUA
ARRASATEKO UDALAKO KULTURAREN ZERBITZUA

*San Juan; ez beste inora fan
Arrasaten dauketzu
nahikue plan!*



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

San Juanak 2010



**Arrasateko
jaiak**

ARGAZKILARIA IMANOL SORIANO

Hemen
GARBIKETAK
BRILLO PROFESIONAL

www.hemen-garbiketok.com

ONDO PASA SAN JUANAK!!

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA



943 71 48 45

SAN JUANAK 2010



**Ametz
Bengoa
Branka
Ederra
Iamai
Itzala
Lora
Monte
Okoretegi
Rumba
Sampry
Txoko**

**DRAGOIAREN GARRA,
GEUREAN BARRA-BARRA!**

agurra



Ino Galparsoro
Arrasateko alkatea

Kaixo, arrasatear guztioi

Borobil-borobila, 2010ak zenbakia bakarrik dakarrela esanez hasi beharra daukagu aurten. Izan ere, gure artean beharrak jota daukagu herritar asko; baina, aldi berean, sinisturik gaude gauzak egiteko gauza garena.

Aspalditxotik dator krisiaren herensugea, aurrean harrapatzen duena irentsi guran. Eta gu, errementariok, beti bezala, berriro ere, egoerari aurre egiteko modua aurkitu guran.

Egoera zail honetara boteredu-nen berekoikeriak ekarri gaitu, eta elkartasunak bakarrik atera gaitzake ataka honetatik. Uste sendokoak gara; beldurra gainditzeko ikasiak; jaiak duen bezala, gauaren iluna eta egunaren argia elkarlotuz, badakigu zelan egin aurre nahigabeari.

Eta zergatik ez, alaitasunez, lana eta jaiak elkarturik eramanez, merezi duen moduan, maite ditugun bazterrak lanbroturik egon edo ez.

Eta beti bezala, ez dezagun etsi; ez gaur, ez bihar, ez etzi. Har dezagun ekimenaren suzia, geure erara, inor alboratu barik.

Ez dugu ahaztu gura ezer, ezta inor ere, eta are gutxiago dispersio politikaren eraginez gugandik urrundurik dauden herritarrak.

Eta esandakora: jai egiteko gauza garenaz, ondo-ondo pasau!

koplak

Antton Errarte



Antton Errarte.

San Juan bezpera dugu Mundraueko jaiek ospa ditzagun danok jator ta alaikek.

Su haundi bat eitteko pilatu abarrak bertan erre daitezen gure grina txarrak.

Noizbaiten izan ziren hemen su ta garrak ez gaitezen berriro izan hain kaxkarrak!

Errementariaren mailu lan gogorrek aurreratu zituen lehengo mundrautarrak.

Orain errementari soinu eta dantza saltoka jartzen gaitu herriko enparantza.

Adi herensugea poztutzeko auzua zure arnas beruaz piztu San Juan sua!

Lehengo sua, oraingo jaia

Herriko jaiak ez dauzka saltzeko Antton Errartek. Horien omenez idatzi zituen ondoko koplak. Arrasaten oso ezaguna da.

argazki zaharra

Danbor hots barik San Juanak ez dira berdin

Helduen danborradak 50 urte beteko ditu aurten; desfilea berezia izango da. Urteurren gain, badaude aurten danborrada berezia izateko beste arrazoi batzuk: Danok-Bat elkarteak 75 urte bete ditu eta haren ereserkia joko du danborradak elkartearen atarian. Eta ez hori bakarrik: Reala Lehenengo Mailara itzuli dela ez da oharkabea pasako: *Txuri-urdin* ere joko dute. Bestalde, bihar egingo da sanjuanen atarian hutsik


egiten ez duen haurren danborrada. Etxeko txikienean desfileak 30 urte inguru daramatza herriko kaleak astintzen eta danbor hotsek luzerako joko dutela dirudi. Izan ere, urtez urte haur gehiago dabilta.

Ondoko irudiak 25 urte bete ditu, mende laurdena, hain zuzen: desfilea, Laubidera heldu berri, Portaloira bidean doa.

Argazkia: Juan Luis Arkauz (SUDC).
Testua: GOIENKARIA.
Urtea: 1985.



ONDO PASA SAN JUANAK!



Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94



Matrikulazio epea zabalik

Kurtsoak

Ile apainketa | Estetika | Hobekuntza
Automakillajea = 6 ordu

Nazioarteko titulu ofiziala
Goi mailako diplomatura

Mundu mailan aitortutako titulua
Nazioarteko lan-poltsa

30 urteko esperientzia



Orraztu: 7 €-tik aurrera | Moztu: 4,50 € | Tintea: 11,50 €
Metxak: 10 € | Ile-luzatzeak (Buru osoa eta ile naturala) 120 €

Olagibel kalea 61 B | GASTEIZ | tel.: 945 12 03 60 | formacionprofesionalces@gmail.com

Jaietako egitaraua

Egubakoitza, 18

- > **Skate jaia**
Zaldibarren, 17:00etan.
- > **Gimnasia erritmikoa**
Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeak erakustaldia egingo du. Seber Altuben, 17:30ean.
- > **Arrasate Musikal**
Ikasturte amaierako kontzertua. Amaia antzokian, 18:30ean.

Zapatua, 19

- > **6. Herensugea margo lehiaketa**
Goiz osoan alde zaharrea, Arrasate Margo Taldeak antolatuta.
- > **Molto motorren kontzentrazioa**
Seber Altube plazan kontzentratuko dira, 12:00etan.
- > **Txosnak, zabalik**
Laubide plazan, 12:00etan.
- > **Sari banaketa**
Margo lehiaketako sariak banatuko dituzte Harresi aretoan, 14:30ean.
- > **Motorzaleen eguna**
Laubide plazan, 15:00etan hasita, motorzaleen bira, DJak, parrillada eta Dirty Brothers taldearen kontzertua.
- > **14. Mus txapelketa**
Doke kafetegian, 16:30ean.
- > **Stuntman baten emanaldia**
Motorzaleen jaiaren barruan, Zerrajera kalean, 19:00etan.
- > **Umeen danborrada**
19:00etan hasiko da.
- > **Moda desfilea**
Rock it all delako moda

desfilea, Ane Garai eta Amaia Albes diseinatzaileekin, eta Zuriñe Lopez eta Cristina Gartzia makillatzaileekin. 3 aretoan, 19:30ean.

Domeka, 20

- > **Haur Dantzarien Eguna**
Zaldibar pilotalekuan batuko dira haur dantzarien taldeak, 10:00etan.
- > **Dantza erakustaldia**
Herriko kaleetan barrena. 11:15ean hasiko da.
- > **Dantzariak, plazan**
13:30ean batuko dira.
- > **Dantza jarduna eta agurra**
Herriko Plazan, 17:15ean.
- Gero, dantzaldia egongo da.
- > **Capoeira erakustaldia**
Monterron plazan, 19:30ean.



Helduen danborrada.

ARTXIBOA

Astelehena, 21

- > **Goikobalu Txiki**
Kontzertua egingo du Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

Eguaztena, 23, San Juan bezpera

- > **Txupinazoa**
Ferrerriasko plaza nagusian, 12:00etan.
- > **Triki-poteoa**
12:30ean hasita.
- > **Koadrilen arteko bazkaria**
Gaztetxean, 14:30ean.
- Txartela eta kamiseta, 18 euro.
- > **Txistulariekin, diana**
16:00etan.



Errementari dantza.

ARTXIBOA

> Etxafuegoak eta granada japoniarrak

- Herriko Plazan, 16:30ean.
- > **Kiki, Koko eta Moko pailazoak**
Herriko Plazan, 17:00etan.

> Txopopoteoa

17:30ean.

> Makala jasotzea eta Joseba Iglesiasi omenaldia

Herriko Plazan, 19:00etan.

> Salve solemnea

San Juan Bataiatzailearen parrokiaren, 19:30ean.

> Batukada

Katü Bürü taldearekin, 20:00etan.

> Errementari-dantza

Arrasateko euskal musika eta dantza taldeekin, 21:30ean.

> San Juan sua

Herriko Plazan, 22:30ean.

> Helduen danborrada

23:00etan hasiko da.

> Dantzaldia

Danborrada bukatutakoan, dantzaldia girotuko du Gaubela taldeak, Herriko Plazan.

Eguena, 24, San Juan eguna

> Txokolatada

Txokogaita Sound System taldea egongo da Seber Altube plazan, 08:00etan.

> Gaitariekin, diana

08:30ean.

> Entzierroa

Ferrerrias kaletik irtengo da, 09:00etan. Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazako zezen-plazan bukatuko da; gero, zaleandako bigantxak zezen-plazan.

> Meza nagusia

San Juan bataiatzailearen parrokiaren, 11:00etan.

> Erraldoi eta kilikien konpartsaren kalejira

11:00etan hasiko da.

> Ohorezko aureskua eta San Juan zortzikoa

Herriko Plazan, 12:00etan.





NACEX

San Andres auzoa, Azeri 7, 20500 ARRASATE
TEL.: 943 79 92 77 / 666 44 41 00
Orokorra: 900 10 00 00
E-posta: 2021.operativa@nacex.es / www.nacex.com

ONDO PASAU SAN JUANETAN!





Ondo pasau San Juanetan!

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK, GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...



JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE



Ezkerreko argazkian, Governors taldea Frenetikodrome diskoa aurkezteko kontzertu baten; eskumakoan, Never Surrender taldearen 108. kontzertuko une bat, gaztetxean.

GOIENKARIA

MUSIKA > EMANALDIK

Kontzertu gehienak, Arrasateko taldeenak

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE
Txosna batzordeak ere hainbat ekintza antolatu ditu; horien artean, kontzertuak. Nabarmen-tekoea da Arrasatekoak direla joko duten talde gehienak.

Kontzertuak txosna gunean eta gaztetxean izango dira.

GAUERO KONTZERTUAK

Eguenean, San Juan eguna, Darkness by Oath eta Anger taldeen kontzertuak izango dira; biak ala biak, Arrasateko taldeak.

Darkness by Oath taldeak *Fear yourself* diskoa argitaratu

zuen iaz, eta hango abestiak joko dituzte. Suediako *Gothenburg soinu* delakoa da euren eragin nabarmenena. Angerrek, bestalde, beti bezain kementsu jarraitzen du, hamarkada bat baino gehiago bete ondoren. *Sedukzioaz* diskoa argitaratu zuten iaz.

Horrenbestez, rocka, hardcorea eta ñabardura askotariko musika jorratuko dute taldeok. Kontzertu horiek doan izango dira, gaztetxean.

Barikuan, aldiz, txosnetan bi estilotako musika jorratuko dute: alde batetik, 23:30ean,

Never Surrender talde arrasatearrak emango dio hasiera gauari bere musikarekin. Ondoren, eta zeharo estiloz aldatuta, tolosaldeko Kantuki erromeria taldea izango dute. Horiek euskal musikan indarra izan duten taldeen kantuak jotzen dituzte, baina erromeria eta berbena estiloa zaintzen dituzte.

Eta zapatuan doinu gogorrik joko dituzte sei taldek: arratsaldean, Dirty Acoustic Brothers izango da eszenatokira igotzen lehena; Dirty Brothers talde sortu berria, estilo akustikoa lantzen. Ondoren Cool Circuseko

boskoteak, kaleratu berri duen *More circus that ever* diskoaren aurkezpena egingo du. Yago Goronaeta taldeko gitarra jotzailearen esanetan, entzun duen jendeari asko gustatu zaio lana. Rock-and-roll garbiena entzuteko aukera izango dute, beraz, txosnagunera gerturatzen direnak. Musika mota aldetik, bate-tik, ZZ Top eta Aerosmith taldeen ukitua, eta bestetik, baita Hellcopters eta Dictatorsen ukituak ere badituzten kantuak joko dituzte Cool Circusekoek.

Arratsaldean azkeneko taldea Gorroto izango da.

'FRENETIKODROME'

Gauean, berriz, Golpe de Estado Oñatiko taldea izango da lehena. Gero, Los Cretinos talde ezagunaren garage eta punk estiloko rock-and-rolla eta, azkenik, guztiak itxaroten egongo diren Governorsek daukan onena emango du oholdza gainean.

Bestalde, Juan Sangreren Governors taldeak Bergarako jaietan aurkeztu zuen azken diskoa, *Frenetikodrome* izeneko lana, eta 3 aretoan ere bai. Orain, herriko jaien berotasunean joko dituzte horko abestiak.

Egitaraua

24, eguena

19:00 Gaztetxean, kontzertua.
> Darkness by Oath.
> Anger.

25 barikua

23:30 Txosnagunean, kontzertua.
> Never Surrender.
> Kantuki.

26, zapatua

19:00 Txosnagunean, kontzertua.
> Dirty Acoustic Brothers.
> Cool Circus.
> Gorroto.
23:00 Txosnagunean, kontzertua.
> Golpe de Estado.
> Los Cretinos.
> Governors.

UDAKO IKASTAROAK MATRIKULA ZABALIK




- INFORMATIKA
- MEKANOGRAFIA
- ADMINISTRAZIOA

- INGENIARITZA
- DISEINUA
- LAGUNTZA KLASEAK

ONDO PASA SAN JUANAK!

Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33 • Faxe: 943 79 06 28 • formakuntzamariasun@bastida.es



oinesku

fisioterapia . podologia

Tel.: 943 77 07 89 Zarugalde 16 behea Arrasate

Eider Zabala Casteig (Kolg. Zenb.: 520)
Fisioterapia
Osteopatia
R.P.G. Berreziketa postural orokorra

Idurre Osa Salegi (Kolg. Zenb.: 239)
Podologoa

Ondo pasa San Juanak

Carrefour GORBEIA

Ekainaren 23ra arte

Prezio baxuena Carrefour bermearekin



Carrefour Discount aurkezten dizugu

Zure etxeko beharrak beteko dituen produktu sorta dugu. Elkadura, bazarra, produktu freskoak, perfumeria eta drogeria.

300 artikulu baino gehiago, Carrefourren bermearekin, prezio merkearekin.



Olioa olio bitarteko truke
Carrefour Discount
1 l

2,25€



Olioa oso gortia
Carrefour Discount
(Bardaguruntzakoak)
1,5 kg

1,79€



Carrefour Discount
Urdul Discount
100cm
Euzkuntza pakete

1,43€

Etiketa C2DE, lan-eremotuen da



Eten-oso, berrizale gogortutua
Carrefour Discount
1 l

0,48€



Martxanada gortia
Carrefour Discount
600g

0,55€

Etiketa C2DE, lan-eremotuen da



Kafea oso
naturala eta nabarmena
Carrefour Discount
200g

0,84€

Etiketa C2DE, lan-eremotuen da



Kalitateko azukre zuria
Carrefour Discount
1kg

0,69€



Bukaltzeko papera
Carrefour Discount
4 eremotuko pakete

1€

Etiketa C2DE, lan-eremotuen da



Papiro...Flexia ikuskizunaren irudi bat.

GOIENKARIA

ARRASATE > IKUSKIZUNA

'Papiro...Flexia' multimedia eta dantza ikuskizuna Monterronen

Logela Multimedia eta Circle of Trust taldeen eskutik dator

Eguenean izango da 23:00etatik aurrera

NEREA MENOR > ARRASATE

Logela Multimedia musika eta *performance* taldeak eta Circle of Trust konpainiak prestatutako ikuskizuna izango da San Juan jailetako beste ekintza azpimarragarri bat.

Monterron parkean izango dira ekainaren 24an, gaueko hamaiketan hasita. Sarrera

debalde izango da. Euria eginez gero, Amaia antzokira eramango dute emanaldia.

Duela urtebete baino zertxobait gehiago izan zen Logela Multimedia azkeneko herrian, eta *Papiro... Flexia* saioa eskaini zuten orduan ere. "Amaia antzokian izan zen. Oraingoan, ikuskizuna moldatu egin dute kan-

poko agertokietan egiteko", adierazi digute Udaleko Kultura arduradunek.

BIDEO SORMENA ETA BREAKDANCEA

Papiro... Flexia breakdance multimedia ikuskizuna eskainiko dute. Dantza moderno horrek ikus-entzuzko teknologia berri-tzaileenekin bat egiten du lane-

Bideo-sormenak eta break danceak bat egiten dute, ilusio optikoak eraginez, musikak girotutako goi mailako ikuskizuna sortuz

an. Papiroflexiaren artea giza-kion sormen prozesuarekin alderatzea da helburua.

Circle of Trust konpainiak dantza ekarriko du ikuskizunera eta Logela Multimedia musikak eta bideo-sormena. Aktore batek hainbat gauza sortzen ditu paperarekin eta beste objektu batzuekin; prozesu osoak irauten duen bitartean, kamera batek pantaila handi baten proiektatzen ditu irudiak eta dantzariak haiekin elkar eragiten dute. Biek batera ilusio optikoak sortzen dituzte; ur baso baten barruan dantza egitea, adibidez. Emanaldiaren hasiera orri zuri bat da.

12 urtetik gorakoentzako ikuskizuna da, ordubate ingurukoa.

"Amaian egon zirenean goi mailako ikuskizuna zela ikusi genuen eta oraingoan Monterronera ekarri nahi izan dugu", diote Udaleko arduradunek.

DANTZA ETA MULTIMEDIA

Circle of Trust Break-Boy taldea duela 8 urte sortu zen. Marka ospetsuetarako emanaldiak sortu dituzte eta European, Asian eta Ameriketako Estatu Batuetan zehar erakutsi dituzte euren abileziak.

Papiro...Flexia egin aurretik beste zortzi ikuskizun egin dituzte: *Non demontre*, *Ohe handi bat* eta *Klonk*, besteak beste.

**belaunaldiz belaunaldi
herriko sena landuz**

*gora arrasate,
gora san juan*

JMA®



ARRASATE BIDAIAK

GURE
IRUDI
BERRIA



PREZIO PAREGABEAK!

Uda osoan %7ko deskontua eta beste hainbat deskontu paregabe ere!

KROAZIA

Hegaldia bakarrik
Abuztuan 15 egunerako
Bilbotik

465
euro



KARIBEA

Uztailean

700
eurotik aurrera



EGIPTO

Sharm el Sheikh
Urpean ibiltzeko aukera
Madrildik hegaldi zuzena

762
euro



AUTOKARABANA

Bidai ezazu zure kontura.

Bizikleta-eramatekoa
6 pertsonendako.

- Ekainaren 28tik uztailearen 2ra 400 €.
- Uztailearen 25etik 30era 500 €.
- Irailen eguna 90 €.



ARRASATE BIDAIAK

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 / 943 79 74 55

Oharrak: tasak eta erregaia ez daude barruan.

ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

IBILGAILUAK > ZIRKULAZIOA ETA APARKALEKUAK

Zirkulazioan ez dute aldaketa handirik eragingo jaiek

Danborradetan, entzierroetan eta errementari-dantzan hainbat kale itxi egingo dira

Gaueko autobus zerbitzuak jarriko dituzte Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarara

NEREA MENOR > ARRASATE

Jaietan, ohiko egunetan ez bezala, hainbat agertoki eta txosna jarriko dira. Gainera, zenbait kale eta plaza oinezkoendako soilik uzten dituzte, autoekin arazorik ez sortzeko. Horren ondorioz, aparkalekuak kentzen dituzte eta zirkulazioan aldaketak gertatzen dira.

KALEAK MOZTU

Sanjuanetan horixe bera gertatuko da. Udaltzaingoarekin egin dugu berba eta zirkulazioaren gaineko informazioa eman digu. "Jaiek ez dute aldaketa handirik eragingo zirkulazioan", adierazi digute. "Arazo handienak haurren danborradan, nagusien danborradan, entzierroetan eta errementari-dantzaren momentuan izango dira". Haurren danborradan, hura bukatu arte itxita egongo dira Nafarroa etorbidea,

Biteriko bidea, Garibai etorbidea eta Maalako biribilgune ingurua.

Nagusien danborradan gauza bera gertatuko da, baina zerrenda horretako kaleei Arabako biribilgunearen ingurua gehitu beharko zaie, haraino itxiko dute eta kale hori.

Entzierro egunetan Garibai etorbidea itxiko dute - Maalako biribilguneetik - eta Kontzezinoko biribilgunearen ingurua.

Bukatzeke, errementari-dantzaren ondorioz, Hotel Mondragondik Biteri arteko zatia itxita egongo da, baita Garibai etorbidearen zati bat ere.

BARRAKAK

Musakolako kiroldegiko aparkalekua ezin izango da erabili, barraketako jabeek bertan jarriko dituzte-eta euren karabanak eta bizilekuak.



Autobus zerbitzu bereziak jarriko dituzte San Juanetan.

GOIENKARIA

TXOSNAK

Monterron alboan jarriko dituzte txosnak. Horretarako, ingurunea itxi egingo dute zirkulaziorako, eta parkearen aldameneko Ignacio Zuloaga bidetik ezin izan-

go dira ibilgailuak pasatu. "Hilaren 19an hasiko gara beharrezko seinaleztapena jartzen. Lekua horrela geldituko da ekainaren 23tik jaien bukaera arte", diote udaltzainek.

Erdialdeari dagokionez, zirkulazioa ohi bezala, aldaketa barik arautuko dela esan digute udaltzainek; baina makala jasotzeko, neurri bereziak izango direla.

UDALAREN OHARRAK


Autoa aparkatzeko oharrak eta gaueko autobus zerbitzu bereziak

Ohiko aparkaleku gehienak erabiltzeko moduan egoten diren arren, kanpotik datozenek arazoak izaten dituzte jaietan aparkatzeko lekua topatzeko.

Horri aurre egiteko aparkaleku berezirik ez dela jarriko adierazi digute Udaltzaingokoek, baina herrian badagoela aparkatzeko nahikoa leku, kanpoko autoak hartzeko adina. "Biteriko aparkalekua erabiltzea da onena", adierazi digute. Herriaren erdi-erdian dago parkinga, eta, beraz, gertuen dagoena. Hala ere,

ordaindu nahi ez duenak Zigorrolako industrialdera jo dezake aparkatzeko. "Erdialdetik urrunago dago, baina 200 metrora besterik ez", diote Udaltzainek.

Autoa etxean utzi nahi dutenendako gaueko autobus zerbitzu berezia egongo da, orduro, ekainaren 23an, 24an eta 25ean. Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarara joango dira, eta gaueko hamaiketatik goizeko seiak inguru arte irtengo dira Arrasateko erdialdeko geralekutik.



HORTZ KLINIKA
UARKAPE

Nicolas Bermejo doktorea

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

Jaiegun hauetan PRIMERAN pasa El Boulevard-en



Markarik hoberenak moda, elektronika eta etxeko erosketetarako zerbitzu eta erraztasun guztiekin. Eta aisialdiko eta jatetxeetako eskaintza osatuena eta dibertigarriena zuretzat eta zure familiarentzat: laser abenturak, kartelerako azken estreinaldiak, bolon dibertsioa eta nazioarteko sukaldaritzako xarma osoa... zure zain daude El Boulevard-en bigarren solairuan.

San Juan zoriontsua opa dizuegu!

Dibertsioz beteto, ZUTAZ beteto



www.el-boulevard.com
Bezeroentzako arreta zerbitzua: 943 100 440

Ondo pasa San Juanak !!

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura

EGUZZKIGRAF

inprimategia

ESKALADA > SANJUANETAKO TXAPELKETA

"Gaztetxeko horman egindako lana erakutsiko dugu"

Egubakoitzean, hilaren 25ean, egingo dute Joseba Iglesiasen omenezko eskalada txapelketa

Gaztetxearen kanpoko horman egokitutako hiru bideak erabiliko dituzte txapelketa egiteko

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Iazko *streetboulder* txapelketak izan zuen harrera onaren haritik, aurtan sanjuanetako lehen eskalada txapelketa egingo dute, baina kaleko horma inprobisatuetan beharrean, gaztetxearen kanpoko aldeko hormetan egindako hiru bideak aprobeztatu dituzte.

Iaz erantzun ona izan zuen kaleko txapelketak, jai giroan eskalatazailerak Arrasateko alde zaharrean ibili zirelako hainbat horma eskalatzeko, eta tartean tabernetan atseden hartzen. Aurtan, berriz, gaztetxeko horman egindako lana aprobeztatu nahi dute: "Sanjuanetan egingo duen eguraldi onarekin Uarkapeko boulderrean txapelketa egin beharrean kalean egin nahi genuen. Hainbat lagunek lan polita egin dute gaztetxearen kanpoko horman eskalatzeko hiru bide zabalduz, orain laugarrenarekin dabilta lanean, eta txapelketa erabili nahi dugu lan hori erakusteko; jendeak ikus dezala sokekin eskalatzeko kanpora joan beharrean

herrian bertan badagoela horretarako aukera, posible dela hor eskalatzeko", azaldu digu Txosna batzordeko ordezkari Jon Ugartek.

IZENEMATEA, BERTAN

Egubakoitzean 17:00etan hasiko dute txapelketa, eta antolatzaileek adierazi dute izenematea egunean bertan egin ahal izango dela: "Izenematea doan izango da, eta nahikoa izango da 16:30 inguruan jendea gaztetxe ingurura gerturatzeko bada, kategoriak antola-

tzen joateko. Sarien gainean ere ez dugu apartekorik prestatu, baina, esaterako, txosnetarako tikeak emango ditugu".

MATERIALA, ANTOLATZAILEEK

Eskalada txapelketan esku hartzeko antolatzaileek jarriko dituzte sokak: "Arnesa daukatenek ekar ditzatela, baina arnesik ez duenak antolatzaileok jarriko ditugunak erabili ahal izango ditu".


Bideen zailtasunei dagokienez, Ugartek onartu digu denetik dagoela: "Bide luzeenak 20-25 metro izango ditu, pilotalekuko sabaia duen garaiera, eta bai, diotenez bideren bat nahiko zaila da". Egunotako eguraldia ikusita, txapelketa egiteko ezinbestekoa izango da ateri egotea: "Begara ibili gara, eta badirudi eguraldi ona izango dela".

ESANAK

"Hainbat lagunek lan polita egin dute gaztetxearen kanpoko horman hiru bide zabalduz; laugarren bidearekin dabilta"

Jon Ugarte > Txosna batzordeko kidea

"Eguraldi txarra egiten badu ezingo da txapelketa aire zabalean egin, baina ibili gara begira eta ona egingo du"



Mikel Velasco eskalatazailerak arrasatearra, gaztetxe pareko horman.

J. BEREZIARTUA

NEVER
LOOK
BACK

www.citroen.es

ANTI RETRO

Citroënek OSDA nahiago.
Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): DS3: 3,8-6,9 / 99-158

Iragara, bere garaian, zoragarria izango zen, baina gaur gaur da eta bihar, zer esanik ez. Ezin duzu altxera begiratu, han zure itzala besterik ez dago. Zuk, dena dakizun horiek eta dena gura duzun horiek, etorkizunean egon behar duzu paragrafo honen azken letrakik hasita. Hortaz, azkar ibili eta har ezazu berriena, berehala pasako da eta.

Begiratu aurretik, goitik, atzetik, 360 graduan, barutik, kanpotik. Haren baruan dago zure etorkizun hurbil eta perfektoa? Guk bertan ikusten zaitezugu? Eta zuk ikusten duzu zure burua?

Ekipamendua: nortasun anizkoltza, kolore infinituak (38 kolore-kombinazio karozerian eta sabelan), atzerako ispiak personalizatze osagarriak, moldurak, sabelak, ilantak eta barnaldea, bolante eta eserleku deportiboak. ESP, Connecting Box, Hi-Fi System, Leds eguneko argiak eta May Way nabigatzailea.

Talleres Chapime, S.C.L.
Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5, Arrasate | Tel.: 943 79 45 22

Tallerreko ordutegia: Asteleheneetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapaburua, enpresa eta langile autonomoel zuzendutako mafiante lan zerbitzua. (Aurrez deltu)

ONDO PASA SAN JUANAK!



Carrascal
aroztegia

SUKALDEKO ALTZARIAK
HORMA-ARMAIRUAK
BAINURAKO ALTZARIAK.
BESTELAKO ARMAIRUAK

EKUTIO KALEA 4, 14-15 PAB.
URIBARRI AUZOA
20500 ARRASATE
Tel./faxes: 943 79 01 82
scarrasc_@infonegocio.com

Zeure neurrira, zeure gustura



Grupo Amantegi

anpazar
obate
— harrobiak —

Ondo pasau San Juanetako jaixetan

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

KANPANZAR HARROBIA S.A.

Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxes: 943 77 00 25

KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.

Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxes: 943 77 02 51

HERRITARRAK > ELKARRIZKETAK

Festetako sei pertsona ezagun berbetan

Sanjuanak gertutik bizi dituzten sei lagunekin izan gara; lanean ibiliko dira gehienak, baina ondo pasatzeko tarte ere hartuta



> **'HARRISTI'**
Arrasate

"Azken urteetan ez dut hutsik egin jaietan. Errementari-dantzan parte hartuko dut lehenengo. Gero, arropa aldatu eta danborradan irtengo naiz Arranoko batailoiko zuzendari moduan. Aurretik danbor-jole ere irtendakoa naiz, baina azken bost urteetan pozik irten naiz zuzendari. Hurrengo urterako, gazteak ekitaldi desberdinetan parte hartzera deitzen ditut".



> **ALBERTO MATILLA**
Arrasate

"Aurten, hamargarren urtez, tabernaren atzeko aldean izango naiz lanean sanjuanetan ere. Egun dibertigarriak izaten dira, ohi baino jende gehiago ibiltzen da, gainera. Hala ere, festak asteburu izango balira, jende gehiago ibiliko litzateke-ela uste dut. Egun bakarra edukiko dut libre; beraz, orduan ahal dudana guztia aprobetxatzen saiatuko naiz. Eta gero, gerokoak!"



> **ITXARO ARTOLA**
Arrasate

"AEDn maiatzean hasten gara sanjuanak antolatzen. Ekainaren 23an, hurrengo egunerako indarrak gordetzeko, lasai ibiliko naizela uste dut. Izan ere, 24an lan egin beharko dugu dragoi-janean. Eta hilaren 25a izango da niretzat jai egun handiena. Haurrak ditut eta haiekin Eguzki Laru ikustera joango gara eta arratsaldean Pirritx eta Porrotxen ikuskizunera".



> **IRUNE GABILONDO**
Arrasate

"Txatxilipurdin orain hilabete hasi ginen guztia antolatzen. Eta Eguzki Laruren egunean, 30 lagun inguru izango gara guztia zaintzen. Hala ere, parranda egiteko denbora ere hartuko dut jaietan eta gorputzak ahal duenera arte kalean izango naiz. Aurten, gainera, jaiak bukatu ostean asteburu daukagu; beraz, orduan izango dugu deskantsatzeko aukera. Bitartean, jaiekin disfrutatzen!"



> **MAURI ZUBILLAGA**
Arrasate

"Sanjuanak jai handiak dira arrasatearrentzat. Baina nik 20-30 urte bitartean disfrutatu nuen disfrutatu beharrekoak. Orduan egin nituen nire juergak. Orain, berriz, ez zait askorik gustatzen jai giroa. Eta deskonektatu nahian eta airez aldatzeko, Hondarribiko kanpinera joango naiz egun horietan. Hala ere, hilaren 27an jokatuko diren pilota partiduak ikustera etorriko naiz".



> **AIZPEA OTXANDIANO**
Arrasate

"Txosna batzordean apiril amaieran hasi ginen prestaketekin eta jaietan lan egitea tokatuko zait. Hala ere, jai herrikoi bat bultzatzen dugunez, herriko koadrilak ere ibiliko dira barra atzean lanean. Bestalde, hilaren 23a izango da niretzat potenteena: bazkariaren ostean, txopopoteoa egingo dugu eta ondoren parranda. Festetan gelditu gabe ibiliko naizela uste dut".

Ondo pasau jaietan!



Karmele Bikuña eta Ane Lasagabaster

ANE LASAGABASTER
HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora 18 solairuartea B • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita



Piztu San Juan sua!



Gizartean erroturik,
bertako kulturari eta sasoiko jaietan parte-hartzaile aktiboak gara

Ondo ibili!

www.mondragon.edu



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatuz s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Umeask, pozik Eguzki Larurekin.

ARTXIBOA



Jolasparkea.

ARTXIBOA



Txalupak haur parkean.

ARTXIBOA



Porrotx.

ARTXIBOA



Puzgarriak.

ARTXIBOA

UMEAK > ASKOTARIKO EKINTZAK

Eguzki Laruk jolasak, apar jolasa eta beste ekintza asko ekarriko ditu

Puzgarriak, txalupak, balance bike zirkuitua, kohete txirrista eta beste ekintza asko, ekainaren 25ean

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE

Arrasateko haur eta gaztetxo guztiak hilaren 25a noiz iritsiko zain egongo dira dagoeneko. Eguzki Larurekin egoteko eta Zaldibar-ko frontoia umeen paradisu bihurtzeko geroz eta gutxiago gelditzen da.

Egun handia izaten da hori gaztetxoentzako, eta aurten ere Txatxilipurdik antolatu du.

EGUZKI LARURI ONGIETORRIA

10:30ean Eguzki Laruri ongietorria egingo diote Garibai plazan eta guztiak batera kalejiran Zaldibarrera joango dira.

Hala, Eguzki Laruk jaiari hasiera emango dio umeei egun polita opa eta asko disfruta dezaten esanez. Gero, Eguzki Laru tailerretan parte hartzen ibiliko da.

ESKAINITZA UGARI

Parkean txoko hauek egongo dira: haur parkea, karaokea eta eskulan txokoa.

Haur parkean ludoteka puzgarria, txalupak, kohete txirrista eta balance bike zirkuitua egongo dira. Eskulan txokoa, berriz, itxuraldatze tailerra, tatuajeak, sorkuntza txokoa eta hatzetako txotxongiloak izango dira.

Garibai plazan 13:30ean apar jolasa egongo da; beraz, bainujantziak eramateko dei egin dute antolatzaileek.

PIRRITX ETA PORROTX

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen 19:00etan Monterronen *Irrien lagunak* ikuskizuna eskainiko diete umeei eta gurasoei, eta sarrera doan izango da.

Altzari denda

Ikerleku zeharbidea • BERGARA • Tel.: 943 03 46 30



Proiektuak • Koltxoiak • Horma-armairuak • Altzariak neurria

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia

San Juan 1a • BERGARA • Tel.: 943 76 54 91 • Faxe: 943 76 08 04

Ateak • Eskailerak • Leihoak • Tarimak • Egur lanak orokorren



ondo
pasau
Sanjuanak!



LUKAS ZERKAOSTETA

- Delikatessen
- Ardo denda
- Jatetxea
- Berzitasunak

-Eguneko menuak
-Menu bereziak
-Oilaskoak erretzen dira.

Iturriotz 11, behea
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 48 79 / 943 79 22 76
Faxe: 943 71 27 89
info@zerkaosteta.com

www.zerkaosteta.com



nº R.P.S. 297 / 05.



Amagara

Erdiko kalea 54 behea 20500
ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

KABITAZIOA

- Liposukzioari alternatiba
- Emaizta frogatuak

TRATAMENDU MEDIKO-ESTETIKOAK

- Aurpegiaren foto-gaztetzea laser bidez
- Betetze teknikak hazido hialuronikoarekin
- Botoxa...



Itsaso (estetizista)

Cristina Arruabarrena
doktorea kolg. Zbakia 6073

Máite Agirre
zentroko zuzendaria

Elena (estetizista)



Ehun adiposoa
Slim SUSstem Cell
metodoarekin
tratamendua egin
aurretik.



Tratamenduaren
ondoren
adipositateak
nabarmen
txikitzen dira.

Ondo pasa Sanjuanetan!

Zure diseinua gauzatzeko dugu.

■ Serie laburrak

■ Prototipoak

■ Kontrol tresnak



Serie laburren fabrikazioa erronka handia da enpresa askorentzat. Ekide, ordea, espezialista da serie laburretan.

Gure elkar-ingeniaritza zerbitzuak, bezeroen lantaldeekin batera lan eginda, prozesuak eta materialak optimizatzea posible egiten du emaitzarik hoberekin eskainiz.

12 teknologiatik gara integratzen dugu eta prototipoak eta kontrolerako tresnak ere fabrikatzen ditugu. Honela, sektore ugarietako enpresen beharrei erantzuten diegu.

Ondo ibili  San Juanetan!

Eñaut Iturbe > Sanjuanetako kartel lehiaketako irabazlea

"Udako solstizioaren ospakizuna adierazi nahi nuen kartelarekin"

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Eñaut Iturbe 21 urteko gaztea izan da Arrasateko Udalak deitutako sanjuanetako kartel lehiaketako irabazlea. 750 euroko saria jaso du. Diseinu Industrialeko Ingeniaritza ikasketak egin ditu eta karrera amaierako proiektuarekin dabil orain. Santa Marina auzokoa da.

Lehen aldia da horrelako sari bat eskuratzen duzuna?

Bai, esan daiteke lehen saria hura dela... Unibertsitatean, arrautza jaurtiketarena ere irabazi nuen lagun batzuekin batera, baina ez du zerikusirik honekin, noski.

Iargia, Udalatx eta San Juan sua batu dituzu kartelean. Nola bururatu zitzaizun ideia?

Idea sinplea zen: adierazi nahi nuen udako solstizioaren ospakizuna zen. Euskal Herrian ohitura honek garrantzi handia izan du betidanik. Oso gau magikoa izaten denez, ilargi betea jarri nuen hori adierazteko, nahiz eta ilargi betea ekainaren 26an izan. Amaitzeko, ospakizuna ere transmititu nahi izan nuen. Horretarako, suaren ingurukoari akelarre ukitua eman nahi izan nion. Dantzan ari den jendearekin, berriz, herri honek behar duen askatasunaren desira adierazi nahi izan nuen. Kar-

tela egiteko ordenagailua erabili dut, zehazki Photoshop eta Illustrator programak.

Zuretako zer dira sanjuanak?

Txikitan, sekulako magia zeukaten egunak ziren. Suaren berotasunaren inguruan errementari-dantza ikustea oso gogoko dut, nahiz eta gaur egun gero eta jende gutxiago egoten den. Gazteon artean giro oso sanoa egoten da: herri bazkaria, makala jasotzea, txosnetako jokoak... Izan ere, oso egun aproposak dira koadrilaren mugak apurtu eta herriko beste gazteekin ere erlazionatzeko.

Herriko jaietan huts egiten ez duen horietakoa zara ala nahiago duzu alde egin?

Azkeneko hiru urteetan azterketak direla-eta ez ditut behar bezala aprobetxatu, baina aurt-

"Txikitan, sekulako magia zeukaten egunak ziren sanjuanak; suaren inguruan dantza..."

"Sanjuanetatik txosnetan sortzen den giroa da gehien gustatzen zaidana"

ez daukadanez ikasi beharrik, ondo aprobetxatuko ditut.

Sanjuanetako egunik bereziena zein da, zuretako?

Bezpera; suak indarra ematen du, eta, gaua motza denez, egunez bueltatzea oso ohikoa da. Ekitaldirik gustukoena? Txosnetan sortzen den giroa. Faltan zerbait? Aurtan ere ez garela denok egongo.

Zein da, zure iritziz, Arrasateko jaiegunik kutunena, bereziena?

Santamasak, Gabonen atarian, eta Beti26 (uztailak 26).

Parrandazalea zara? Jairik onenak, zeintzuk?

Bai, nahiko parrandazalea naiz. Jairik onenak Euskal Herrikoak orokorrean esango nuke.

Mendizalea ere bazara...

Bai. Inguruan mendi asko ditut gustuko: Anboto, Aloña, Aizkorri, Kurtzebarri, Aitzorrotx, Orixol... baina, egia esan, Udalatx da gogokoena. Tontorreko zelaietan egoteak ez du konparaziorik. Baina, azkenaldian, ziztrin batzuk egiten ari diren sarraskia dela eta, ez naiz Udalatxera igotzen. Lehen bilatzen nuen lasaitasuna desagerrarazten ari direlako, goibelduta jaisten naiz.



Eñaut Iturbe, kartelaren egilea.

OXEL ARRIETA

Paraje eder baten kokatua

Stazio horren ardo berezitarain elkartzeko aukera bikaina
Bazkaria hurreko beste modu berzi bat

• Menu bereziak aukeratu: 15 €

• Kartak

Arteaga

Landabuen

Arteaga baserris
Garaipartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 043 71 18 81
Faxa: 043 71 18 82



BEREYA
elektrizitatea



- ALARMAK. TB. SATELITEAK
 - ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
 - TB ZERBITZU TEKNIKOAK
 - INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 - SOINU INSTALAZIOAK
- KONPONKETAK OROKORREAN
 - ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- TDT ANTENAK (Lurreko telebista digitala)



Ondo pasau San Juanetan!

Etxagibel Notarioa 1 - 2. Pab - ARRASATE

Tel.: 943 79 13 79 / 670 08 34 10 Faxa.: 943 77 15 34

**Aprobetxa ditzagun gogotik sanjuanak,
ahaztu gabe gure Euskal Herriaren
askatasun eta Alkartasun beharrak.**



Ignacio Zuboga 6. behea
30.500 Arrasate
943 712 755
arrasate@euskalartasuna.org



Herritarren ekitaldi gustokoenetarikoa bat da dragoi-jana.

ARTXIBOA

AFARIA > DRAGOI-JANA

Umeendako menua emango dute aurtengo dragoi-janean

Egindako aldaketekin txartel guztiak saltzea espero dute antolatzaileek

Eguraldi txarra egiten badu, afaria frontoian izango da, beste urte batzuetan moduan

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE
Aurten ere, AED eta AEK-k antolatuta San Juan bezperan dragoi-jana egingo dute. Krisi kontuak ahaztu, eta jaietan euskaraz egiteko aitzakiarekin, adin askotako 400 pertsona elkartzea espero dute. Gainera, hainbat aldaketa egingo dituzte.

UMEENDAKO 50 TXARTEL
Betiko menuaz gain, etxeko txikiendako menu berezia ere izango da lehen aldiz: makarroiak dragoi-saltsarekin eta izozkia. Antolatzaileek herritarren beste urte batzuetako iritziak kon-

tuan hartu dituzte: txuleta ez zirela ondo aprobetxatzen zioten. Horregatik, haurrendako 50 txartel jarri dituzte salgai, eta ez dituzte txartel gehiago jarriko; beraz, azkar ibili behar da.

AFALDU ETA GERO, IKUSKIZUNAK
Dragoi-janean egongo diren mesedetan, su artifizialak, ekainaren 24an barik, 25ean izango dira. Beraz, afalosteko giroari eusteko ahalegin berezia egingo

MENUAREN PREZIOA

Menua, kafea eta kopa, 15 eurotan

Betiko menuan kafea eta kopa ere gehitu dituzte, eta horregatik bazkariko txartelak 15 euro balioko ditu, aurreko urtean baino 3 euro garestiago. Hala ere, beti bezala, edaria norberaren kontu izango da.

Bestalde, aurten estreinakoz jarritako dragoikume menuak, 8 eurotan salduko dituzte.

DATUA

400

TXARTEL

Guztira, 400 txartel jarri dituzte salgai. Horietatik, 350 helduendako menuak izango dira eta 50, umeen menu bereziak. Salgai daude Irati, Monte, Kajoi eta Ederra tabernetan.

DATUA

200

KILO TXULETA

Kilo erdiko Giokela dragoi-okela banatuko da txartel bakoitzeko. Eta herriko erretzaile profesionalak izango dira horiek prestatzen. Dragoikumeen menuarekin, baina, ez da txuletarik banatuko.

dute antolatzaileek. *Dragoia jan eta gero, euskaraz jo ta ke* lelopean, ikuskizunak 22:00etan hasita egingo dituzte.

Hasteko, Ukeleke jaunak zirku trebetasunez betea dagoen ikuskizun umoretsu eta parte-hartzailea ekarriko du. Boluntarioen laguntzaz, gainera, jolas dibertigarri eta zirikatzaileak proposatuko ditu.

Ondoren, helduendako jolasak eta zozketak ere izango dira eta trikiti eskolakoek giro polita jarriko dute. Horrez gain, kantu paperak banatu, eta euskal abestiak kantatuko dira guztien artean.

Amaitzeko, Oihan Vegarekin disko-festa izango da. Beraz, gaua lagun artean pasatzeko egun proposa izango da.



MANDOÍN S.L.

**MANDOÍN
ERAIKUNTZAK S.L.**

GORA, SAN JUANAK!

- ERAIKUNTZAK
- IGELTSEROTZA
- ERREFORMAK OROKORREAN
- GREMIOEN KOORDINAZIOA

San Andres, 2-A2 pabiloia ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 79 72 52 Mug.: 629 49 00 77
Biltegia. San Andres auzoa, 2 -2.(Lana) e-posta: mandoin@terra.es



Goiz Argi

Etxez etxeko laguntza

- Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza.
- Personal aditua.

San Juan jai zoriontsuak!

Simon Arrieta 2a (Solairu artea B) Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23

*Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.*

*Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?*

*Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.*



Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.**

**ARRASATEKO
SANJUANAK 2010**



San Juan bezperan koadrilak dira protagonista. Aurten, iaz moduan, argazki koloretsua aterako dute Herriko Plazan, makala jaso ostean. Ea aurten ere lehenengoan jasotzen duten...

ARTXIBOA

JAI BATZORDEA > EGITARAUUA

Jaietako azken txanpa indartu gura du aurten batzordeak: asteburua aprobetxatuz, musika izango da protagonista

Jai batzordeko kide izan zen Joseba Iglesiasi omenaldi hunkigarria egingo diote, bezperan

Bezperan giro beroa eta kolorea, eta osteko ajearendako, musika

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Ahalik eta gazte gehien erakartzeko egitaraua prestatu du sanjuanetan ezinbestekoa den Jai batzordeak. Gazte arrasatearrek herrian geratu –oporretara joatea "debekatuta" dago, diotenez– eta jaietan parte hartzea gura dute. Horretarako amua botata dago dagoeneko, eta orain gazteek amu hori irenstea besterik ez da falta.

Azken txanpa indartu egin dute asteburua dela aprobetxatuta, arrakasta ziurtatzen duen eskaintzarekin; hau da, zuzeneko musikarekin. Hala, egubakoitzean, hilak 25, presoan senideei omenaldia egiteaz gain –Joxepa Arregik protagonismo berezia izango du–, parrillada egingo dute txosnetan, kontzertuen aurretik. Gainera, aurten behar den moduan agur-

tuko dituzte sanjuanak: sei talde igoko dira txosnaguneko agertokira hilaren 26an.

Izan ere, bezperako giro beroa eta kolorea ziurtatuta dago. Hilaren 11n jarri zituzten salgai herri bazkarirako sarrerak eta egun gutxitan saldu zituzten txartel guztiak. 160 dira guztira, eta txartelarekin batera urtero ateratzen duten kamiseta emango dute.

GAUA BAI, BAINA EGUNA ERE BAI

Jon Ugarte Jai batzordeko kideak azaldu duenez, "saiakera berezia" egingo dute aurten eguneko giroa indartzeko. Hortik aurten aukeratu duen leloa: *In deigun gaba egun*. Askok gaupasarako gonbidapen moduan ulertuko dute; errespetu falta barik eta herriko bazterrak alaitzeko asmoz egiten badute, *gaupaseroak* ongie-



JOSE ARANZABAL SUKALDEAK



Bañez doktorea 2

Tel.: 943 79 18 92

aranzabal.cocina@euskalnet.net

**Deskontu bereziak bazkide eta promozioendako
Finantzaketa • Ibai-Arteko bazkide
Esperientzia eta bermea**

Ondo pasa Sanjuanetan!



IRUROK. S. L.
Eraikuntzak

Ondo pasa San Juanak!

Jon Ugarte > Jai batzordeko kidea

"Gauean giro polita egon ohi da eta giro hori egunera ekarri gura dugu"

J.B. > ARRASATE

Ohiko ekitaldiez gain, aurtengo egitarautik Joseba Iglesiasi omenaldia eta gaztetxean egingo den eskalada txapelketa nabarmendu ditu Jon Ugarte (Arrasate, 1985) Jai batzordeko partaideak.

Zeintzuk dira berritasunak aurtentzen?

Joseba Iglesiasi omenaldia eta gaztetxeko I. eskalada txapelketa nabarmenduko nituzke.

In deigun gaba egun aukeratu duzue lelo.

Eguneko giroa indartzeko asmoa, akaso?

Egunean zehar jende gaztea apenas irteten da. Gauean, berriz, giro polita egon ohi da; gaueko giroa egunera ekarri gura dugu.

Txosnagunea eta gaztetxea dira Jai batzordeak aukeratu dituen festagunak. Bada horretarako arrazoi berezirik?

Gazteendako antolatutako ekitaldi gehienak. Gaztetxeak gazteen etxea izan behar duelako antolatutako ditugu zenbait ekitaldi bertan. Bestalde, eguraldi ona aprobetxatuz, kalean izan behar du jaiak; horretarako oso leku aproposa da txosnagunea.

Udalak jaietako aurrekontua murriztu egin behar izan du. Asko eragin dizue?

Kanpoko musika taldeak erakartzeko orduan ez dugu aukera handirik izan. Edozelan ere, herriko taldeei egin diegu txosnagunean jotzeko gonbita.

Herritar asko oportretan joaten da sanjuanetan. Baduzue hori ebitatzeko formularik?

Azken urteetan kalean izan den giroa ez da askorik jaitsi, mantendu egin da. Aurtentzen jaiak aste bukaeran bukatzen direla aprobetxatuz, egubakoitza eta zapatua indartzen saiatu gara.



Jon Ugarte.

J.B.

Jai batzordearen egitaraua

23, eguaztena

12:00 Txupinazoa Ferreriasko iturriaren plazan.
12:30 Triki-poteoa herriko kaleetan zehar.
14:30 Koadrilen arteko bazkaria gaztetxean. 160 txartel atera dituzte. Bazkaria eta kamiseta gorria, urdina, horia edo berdea: 18 euro.
17:30 Txopo-poteoa Dragoialde txarangak girotuta.
19:00 Makalaren igoera. Joseba Iglesiasi omenaldia: agurra eta haren banderatxo jartzea.

24, eguna

8:00 Txokolate-jana Seber Altube plazan.
19:00 Sexmetraia gaztetxean: film pornografikoaren III. bikoizketa lehiaketa.
Ondoren, pintxo dastaketa eta kontzertuak: Darkness by Oath eta Anger.

25, egubakoitza

17:00 Eskalada txapelketa gaztetxeko rokodromo berrian.
19:30 Azken Ostirala, Herriko Plazan.
20:00 Kalejira eta presoen senideei omenaldia txosnagunean.
21:00-23:00 Parrillada txosnagunean.
23:30 Kontzertuak txosnagunean: Never Surrender eta Kantuki berbera taldea.

26, zapatua

19:00-21:30/23:00-2:00 Musika maratoia txosnagunean:
• Dirty Brothers (Arrasate)
• Cool Circus (Arrasate)
• Gorroto (Aramaió)
• Golpe de Estado (Oñati)
• Los Cretinos (Arrasate)
• Governors (Arrasate)
01:00 Urrezko Dragoia saria emango dute txosnagunean.

torriak izango dira. Jaiak ez dira eta berdin *gaupasero* barik.

SUARENA EZ DEN GARRA, BIZIRIK

Aurtentzen hutsune berezia sumatuko dute gazte arrasatearrek eta Jai batzordeak, azken urteetan batzordeko kide izan den Joseba Iglesias *Pajero* ez delako egongo. Haren garrak sanjuanetako suarenarekin bat egingo du jaiak iraun artean.

Omenaldi xumea egingo diote Koadrilen Egunean, hilaren 23an, makala igo aurretik. Edozelan ere, batzordearen asmoa da, Iglesiasiek egingo zukeen moduan, jaiak ahalik eta gehien aprobetxatu eta ondo pasatzea.

OMENALDIA



Iglesias, iaz, makala jasotzen.

Joseba Iglesiasen hutsunea bereziki igarriko da: makala igo aurretik, omenaldi xumea

2010eko otsailaren 28an Udalatxan hil zen Joseba Iglesias gazte arrasatearren hutsunea asko igarriko da sanjuanetan. Jai batzordeko kidea zen *Pajero*, AGAKOko eta beste talde eta elkarte batzuetako kide izateaz gain. Herriko jai nagusiak ahalik eta parte-hartzaileenak izateko gogor egin zuen lan. Ez zuen ulertzen gazte arrasatearrak jaietan kanpora irtetea; 2008ko ekain hasieran *Asteleheneko Goienkaria*-n egindako elkarrizketa baten honakoa zioen Iglesiasiek, Jai batzordearen izenean: "Guk bereziki gazteei egiten diegu herrian geratzeko deia; [...] gera zaitzete herrian, sekulako giroa egongo da-eta!"

Koadrilek omenaldi xumea egingo diote San Juan bezperan, makala jasotzen hasi aurretik. Gaztetxeko kideek eta lagunek aureskua dantzatu diote eta haren omenezko *garezur hegalaria*ren banderatxo -tatuatu zuen irudian oinarritua- zintzilikatuko dute makalean, haren ikurra jaiak amaitu arte haizearekin dantzan ibil dadin.

ONDO PASAU SAN JUANAK!

ARROPA

JAI

DENDA

Diarte kalea 9
Tel.: 943 79 86 82
Arrasate

Jai zoriontsuak izan!

Garibai etorbidea z/g
Tel.: 943 79 59 00 / 943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11

"la Caixa"

KIROLAK > PILOTA

Martinez de Irujo eta Titin III.ak indarrak neurtuko dituzte elkarrekin

Mtz. de Irujo eta Merino Titin III.a eta Laskurainen kontra arituko dira

Cabrerizok eta Galartzak Ongay eta Ceciliorekin egingo dute norgehiagoka

AMAIA TXINTXURRETA > ARRASATE
Ekainaren 27an, domekan, Uarkapeko pilotalekuan bi partidu jokatuko dituzte zortzi pilotarik.

Arratsaldeko bostetan, Cabrerizok eta Galartzak Ongayren eta Cecilioren aurka jokatu dute.

Eta ondoren, Martinez de Irujok eta Merinok indarrak neurtuko dituzte Titin III.aren eta Laskurainen aurka.

PARTIDU NAGUSIA

Merino izango da berritasun nagusia; izan ere, duela gutxi hasi zen partidu nagusietan jokatzeko.

Arrasateko pilota eskolako Mauri Zubillagak esan zigun Irujo *betizu* moduan ezagutzen dutela; hau da, pilotari basatia dela, eta bere momentu gorenean dagoela. "Eskua luzatu eta pilota jotzen" Irujo dela denetan onena.



Juan Mtz. de Irujo, jokoan sartuta.

GOIENKARIA

Kontuan hartu beharko da enpresaburuak pilota motela aukeratzen badu, mugimendu handiagoa izango duela partiduak.

Zubillagaren esanetan, Laskurain ondo badago partidu "interesgarria" izango da. Laskurainek eta Titin III.ak irabazteko, Laskurainek pilota Irujoren gainetik pasa beharko du, eta Titinek aurrean egon beharko du tantoa egiteko.

LEHENENGO PARTIDUA

Ongayk ikuskizun polita eman dezakeela azaldu zigun Zubillagak. Beste maila baten, baina Titin III.aren pausoak jarraitzen dabilela.

Galartzak, 18 urteko pilotariak, dozena bat partidu egin ditu profesionaletan, eta, aita bezala, semea ere elegantea da jokatzeko orduan. Ziur ikuskizuna izango dela Uarkapen.

SARRERAK

Sarrerak salgai ASPEn eta frontoian

Sarrerak lortu nahi dituztenek partiduaren eguna baino lehen ASPera deitu eta erreserba egiteko aukera izango dute, 943 82 04 06 telefono zenbakira.

Bestalde, egunean bertan ere, hilak 27, frontoian izango dira sarrerak salgai 20 eurotan. Guztira, 1.000

sarreratik gora jarriko dituzte.

Antolatzaileek giro polita espero dute partiduaren egunean. Beraz, herritarrek pilota ikustera gonbidatu nahi dituzte. Oraingoan, gainera, herrian bertan gozatu ahal izango dute profesionalen partiduez.

Trinkoak

Duaren utzalean eta inleian... ez duzu ordu mugarik izango.

Udaleku irekiak

Hauetako jabeen eta ordu positiboen dute bitartean Ingeles ikasteko aukera dute. Honek guri, gure komunitateko pertsona da, utzalean euren seme-abok-akintza baten esku hartzen dute eta.

Ikastaroak atzerrian

Informazio eskatu.

ingelese, euskara, frantsesa, alemana... 2010eko uda

Mondrago Zabalk

ARRASATE
Arda etorbidea, 4
943 71 20 55

www.mondragonlingua.com


ORATI
Oskua, 14
943 71 80 00

jai zoriontsuak

Ehune

Apainketa

Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE



Sara Manzano > Kantu ikaslea

"Nire ahotsa ezagutu nahi nuen, eta horregatik apuntatu nintzen kantura"

Antzerkia txikitatik du gustuko Sara Manzanok, baina herrian halakorik aurkitu ez zuenez, kantuko eskoletara apuntatu zen. Horrez gain, karatea egin du orain dela gutxira arte, eta jarraitzeko asmoa du. Marraztea ere gogoko du bergararrak. Eta azken hilabeteetan hainbat ekitalditan izan da aurkezle lanak egiten. Hori gutxi balitz, DBHko 4. maila egiten dihardu.

NAROA ODRIUZOLA > BERGARA

Sara Manzanoren ametsetak bat aktore izatea da. Kantu eskolei esker hainbat musikaletan parte hartu du eta antzezteko aukera izan du. Gainera, hainbat ekitalditan aurkezle lanetan aritu da. Hala ere, horiek ez dira egiten dituen gauza bakarrak. Horregatik, gehiago jakiteko, harekin izan gara.

Antzerkia ezin egin eta kantuan hasi zinen; nolatan?

Abesten dudan bigarren urtea da hau. Betidanik gustatu izan zait antzezteko, baina Bergaran ez zegoen horrekin lotutako ezer. Oso ahots polita nuela esaten zidaten, eta, ahotsa lantzea antzerkirako oso ona denez, kantuko eskoletan apuntatzea erabaki nuen. Orain, biak egiten ditut; izan ere, zenbait musikal egin ditugu.

Zergatik duzu gustuko abestea?

Betidanik gustatu izan zait musika, eta kantuko eskoletara kuriositatez apuntatu nintzen, nire ahotsa ezagutzeko.

Nola sentitzen zara abesten duzunean?

Ondo. Hala ere, batzuetan, kantatzen duzunean urduri baldin bazaude antzeman egiten zaizu eta ahotsa behartzen duzu. Baina ahotsa berotu duzunean edo lasai zaudenean, oso ona da.

Nolakoak dira kantuko eskolak?

Lehenik eta behin, beroketak egiten ditugu. Ondoren, sudurreko ariketekin hasten gara eta gero, teknika errespetatzen, beste hainbat ariketa egiten ditugu ahotsa lantzeko. Azkenik, abestu egiten dugu. Astean behin izaten dut eskola. Ordu erdiko saioa izaten da eta bakarka egiten da. Hala ere, orain duoak lantzen ari garenez, Amy Kerkhof eta biok ordubetaz aritzen gara.

Zein motatako abestiak kantatzen dituzue?

Denetik kantatzen dugu, baina klasikoa gustatzen zait gehien. Izan ere, tonu altuak kantatzea dut gogoko eta normalean kontzertuetan altuak jartzen dizkirate.

Honezkeroko kontzertuak ere emango zenituzten, ezta?

Bai; banaka zein taldeka eman ditugu, Udal Pilotalekuan. Kantuko kontzertuak ere egin ditugu eta bakoitzak duo bat edo solo bat abestu behar izan du. Nik solo gutxi egin ditut, denbora laburra noalako.



NAROA ODRIUZOLA

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 15 urte. **Ikasketak:** DBHko laugarren maila egiten dihardut Ipintzan. **Zaletasunak:** Abestea, antzezteko, karatea egitea eta marraztea. **Irakurritako azken liburua:** John Boyneren *El niño con el pijama de rayas*. **Gustuko film bat:** *Mise-*

ableak, Bille Augustena. **Abeslari bat:** Tiziano Ferro. **Gustuko abesti bat:** *El regalo más grande*. **Bizi izateko herri bat:** Bergara. **Bisitatu nahiko zenukeen herrialde bat:** Suitza. **Kolore bat:** Gorria. **Amets bat:** Aktore izatea.

Ikasgelan edo pilotalekuan abestea erabat desberdina da.

Bai, oso desberdina da. Hasieran urduritasun handia pasatzen da, baina gero, denbora pasa ahala, ohitu egiten zara. Gainera, Bergaran ia beti jende beraren aurrean abesten dugu, eta, azkenean, konfiantza hartzen da.

Horrez gain, aurkezle lanak egin dituzu.

Bai; maiatzean egindako udaberriko kontzertua aurkeztu nuen beste bi lagunekin batera. Oso esperientzia polita izan zen. Lehenengo aldia zen horrelako zerbait egiten genuena. Beti emakume batek aurkeztu du, baina ez zegoen aukera hori eta guri esan ziguten. Uste dut gure kantuko irakasleari bururatu zitzaizola antzerki moduko bat egitea, eta, gustuko dugula badaukienez, proposatu egin zigun. Horrez gain, maiatzaren 29an Koldo Eleizalde lehiaketako sariak banatu ziren eta ni egon nintzen aurkezle lanetan.

Kirolaria ere bazara, ezta?

Egun baten, karatea nola egiten zuten ikustera joan nintzen eta atentzioa eman zidan. Oso polita iruditu zitzaidan. Amari esan nion izena eman nahi nuela eta 10 urterekin karatea egiten hasi nintzen. Baina heldu zen momentu bat gauza asko pila-tuta nituela. Orduan, karatea lagatzea erabaki nuen, denbora luzean kentzen zidalako. Hala ere, datorren urtean berriz eman nahi dut izena. Askok gustatzen zait, fisikoki laguntzeaz gain mentalki ere asko laguntzen duelako. Gerriko marroia daukat eta beltza lortu nahi dut.

Horiez gain, beste zaletasunik badaukazu?

Bai, marraztea ere gogoko dut. Betidanik marraztu izan dut eta eskoletara joaten naiz ikasteko. Marrazteaz gain, eskulanak ere egiten ditut. Gainera, hizkuntzak ere asko gustatzen zaizkit. Gaztelania, euskara eta ingelesa dakizkit eta frantsesa ikasten ari naiz. Italiara ikasi nahiko nuke.

Ikasketei dagokienez, zer ari zara egiten?

Ipintzan nago Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila egiten. Gero zer egin pentsatzeko denbora luzea daukat oraindik, baina antzerkia egin nahiko nuke denbora librean.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 110 m²ko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berrituta. 65 metro koa droko ganbarak. Berehala bizi izatera joateko aukera. Oso prezio interesgarria. 673 32 78 91.

Arrasate. Bi etxebizitza salgai erdigunean. Pablo Uranga eta Iturriotz kaleetan. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. 630 39 36 50.

Elgeta. 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guztiz jantzita. 180.000 euro negoziagarri. Aukera proposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685 75 18 91.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela, egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 €. 659 72 06 64.

Oñati. Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egon-gela, hiruro logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro. Gara-jaea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04.

Oñati. San Anton kalean etxebizitza salgai, estreinatuzko. Bi logela, egongela, sukaldea eta komunak. Egoera onean eta jantzita. Trastelekuak eta patioa ere baditu. 665 71 77 96.

Oñati. San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Biteri plazan. Sukaldea, egongela, komunak, hiruro logela eta ganbarak. 605 43 29 31.

Cadizen. Puerto Santa Marian, Valdelegрана, Valdemar urbanizazioa. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Uztail osoan eta abuztuan lehenengo hamabostaldian. Bi logela, apartakalea, igerilekua, tenisko pista, aire girotua. 677 50 39 18.

Marina D’Or. Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea, bi komun eta terraza. Apartatzeko plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88.

Pefñiscola (Castello). Apartamentuak errentan. Hamabostaldia. Bi logelakoa. Guztiz jantziak eta hornitua. Hondartzatik 50 metrora. 616 95 04 00 edo 948 41 00 79.

Ribadesella (Asturias). Udara-ko etxebizitza ematen da errentan. Bost pertsonarendako egokia. 80 euro egunean. 695 78 22 47.

Torrevieja (Alacant). Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkartzeko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

Eskoriatzan ikasten ari garen hiruro neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010eko iraila-2011ko ekaina) etxea alokatu nahiko genuke. Hiruro logela izan beharko litzuzke eta ez litzaziguke inportatuko etxeak lau logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. 635 75 97 10.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Arrasatearra etxerako kide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro, gastuak barne. 606 74 42 37.

Arrasate. Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653 71 44 57.

Arrasate. Logela ematen da errentan. 619 78 63 41.

Bergara. Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68.

Bergara. Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655 71 41 24.

Debagoiena. Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibersitaterra (Huhezi) etorriko diren Erasmus ikasleentzako logelak behar dira. Txema. 656 77 66 32.

Oñati. Oñatiko neska gaztea naiz eta neska baten bila nabil etxea osatzeko uztailaren 1etik aurrera. 677 37 04 81.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu. 662 34 77 77.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arexabaleta eta inguruetan bertako neska gazte gertu uztailan, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663 73 49 95.

Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egingo litzuzke. 617 52 15 17.

Arrasate. 20 urteko mutila gertu erakuntzan, garbitzen edo zerbitzari izateko. 619 78 63 41.

Arrasate. Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko, edo garbitzaile zein zerbitzari. 679 04 42 68.

Arrasate. Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarrekin garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordutegi maigua. Dorleta. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

Basolanak. Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653 01 83 43.

Bergara. Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695 75 42 45.

Bergara. Harakina lan egiteko gertu; hezugabetzen esperientziaduna. Beste lan mota batzuk egiteko ere gertu. 610 91 33 40.

Bergara. Lan bila dabilen emakumea naiz; pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 695 75 42 45.

Bergara. Ohitura oneko gizona naiz, eta lan bila nabil; pertsona helduak zaintzen, tabernak garbitzen... 697 54 22 45.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu. 665 72 57 64.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu, etxeak garbitu edo eskola partikularrak emateko gertu. 667 80 69 99.

Debagoiena. 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 634 43 28 87.

Debagoiena. 18 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 678 02 04 36.

Debagoiena. 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izana. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688 80 21 29 edo 943 79 51 28.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarria bertan behera utzerik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)
MODULO 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 21 € (+ BEZ).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 28 € (+ BEZ).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

502. EMAN

Arexabaletan eta inguruetan neska gaztea prest dago uztailan 15 urtera arteko gazteei eskola partikularrak emateko (euskara, ingelese, matematika...). 663 73 49 95.

Debagoiena. Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 646 16 53 87.

Debagoiena. Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 660 13 94 95.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbitzen lanak egiteko. 646 77 85 31.

Debagoiena. Gizona gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo etxean egoteko prest. 697 54 28 76.

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari, garbiketari, iturgin laguntzaile edo peoi lanetan jarduteko. 671 84 71 71.

Debagoiena. Neska batek lan egingo luke orduka. 677 73 79 59.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo etxeko-lan eta garbiketarako egiteko. 678 80 11 54.

Debagoiena. Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Maria Mercedes. Deitu 680 60 18 24 telefonora

Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketari lanak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. 638 93 11 48.

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketari lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600 24 58 27

Debagoiena. Neska gertu elkarrekin, atari edota tabernak garbitzeko. Deitu 699 60 91 90 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. Deitu 649 72 00 23 telefono zenbakira.

Debagoiena. Tabernan urte askoan ibilitakoa naiz, zerbitzari. Herriko jaietan edo aste bukatuarekin lan egingo nuke. Edorta.edortamendi@yahoo.es. 617 89 41 03.

Edozein lan. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Arexabaletan edo Bergaran. 662 08 22 03

Oñati. Oñatiko neska gaztea gertu umeak zaintzeko edo dendan laguntzaile moduan edo tabernan lan egiteko, uztailaren 1etik aurrera. Deitu 677 37 04 81 telefonora.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

DBHko eskolak jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera deitu 605 26 24 62 telefonora.

Pitbulla salgai. Atigratua. Bi hilabete ditu. Enrique. Deitu 685 79 74 63 telefonora.

Txakurkumeak. Bi hilabete txakurkumeak salgai. Ama artzain-txakur alemana da. Etxea zaintzeko egokiak. Deitu 685 70 60 14 telefonora.

703. EMAN

Euskal artzain-txakurrak ematen dira opari. Zuriak. Hiruro hila-beteakoak. Deitu 618 62 78 93 edo 661 72 96 telefonora.

Hamster grisa opari egiten da Arrasaten. Kaiola ere opari egiten da. Galdetu Haizeagatik. Deitu 626 32 11 33 edo 943 79 53 83 zenbakietara.

8/ DENETARIK

801. SALDU

BMX bizikleta salgai, ez delako erabiltzen. Oso egoera onean dago eta ez du erabilpen handirik izan. Manillar, kubierto eta freno berriei 130 eurotan. 600 71 81 15.

Bateria elektronikoa salgai. Roland TD 12 bateria elektronikoa salgai, oso egoera onean. EDIROLa eta MIDI kableak opari PCra konektatu ahal izateko. 635 75 20 08.

Bateria salgai. Oso egoera onean dago eta ia ez du erabilpenik izan, pare bat hilabete gutxi gorabehera; eta prezio ezin hobea, merke-merke. Stagg markakoa da eta prezioa negoziagarria da. 600 71 81 15.

Gurpildun aulki elektrikoak salgai. 2009ko azaroren erositakoak: berria, inoiz erabili gabekoa. Prezio onean. 652 76 00 16 edo 943 25 23 64. Asier.

Ikeako Bjursta mahai luzagarria. Zabaldi barik 4 pertsonarendako eta zabalik 8 pertsonarendako. Beltza da eta muntatuta. Berri dago. Gutxiengo luzera: 140 cm. Gehieneko luzera: 220 cm. Zabalera: 84 cm. Altuera: 74 cm. 658 74 26 44.

Ikeako Gilbert aulkiak. 4 aulki, beltz kolorekoak. Muntatuta eta berriak. 658 74 26 44.

Karabana. Burtstner FUN 490TK salgai. Hiruro logelakoa, bainua, sukaldea, berogailua eta abar. Egoera onean. 943 76 50 97 edo 678 47 43 52.

Karro-denda, sukaldea eta osagarriak. Gama altuko Inesca Europa karro-denda handia. Somierdun oheekin. Sukalde osoa (denda + suak) eta komun kimikoa opari. Baita kanpinera-ko osagarri guztiak ere: klabijak, kable eta lanparak... 950 euro. 3 urtez erabilia. 649 54 87 59 edo 660 43 64 29.

Korrika egiteko zinta. Domydos etxekoa. Oso gutxi erabilia. Berria. 400 euro. 659 79 48 75.

Mahaia salgai. Gerezi kolorekoa. 1.36x90 cm gehi luzagarria. Asier.Debagoienean. Deitu 617 17 15 88 telefonora.

Snow-taula salgai. US-40 markakoa da. Taula, fijazioak eta oinetakoak 100 eurotan saltzen ditut. Material guztia ondo dago eta gutxi erabilitakoa da. 671 92 06 49.

Sofa. Bi jarlekuko sofa beltza salgai. Berri-berria eta garantiarekin. 85x165 cm. Deitu 653 74 35 80 telefonora.

802. EROSI

Bizikletak eramateko. Nire Volkswagen furgonetaren atzealderako bizikleta-eramateko bat erosi gura dut. Deitu 671 84 15 63 telefonora.

Hormigoimakina erosiko nuke. 628 61 02 91

Lursaila erosiko nuke Bergaran, Arrasaten edo Elgeta inguruan. 618 05 65 17.

804. HARTU

Eskaladarako harriak. Arrasateko gaztearekin ari garen rokodromorako presak behar ditugu. Hauetakorik izanez gero eta emateko prest egonez gero, bidali mezuzat *arrasatekogaztetxea@gmail.com* helbidera, mesedez.

806. GALDU

Belarritakoak Arexabaletan. Ostiralean, ekainaren 11n, Swaroski markako belarritako parea galdu nuen Herriko Plaza inguruan. Harri grisa daukate eta "Dyrberg/Kern" jartzen duen poltsa beltz baten sartuta zeuden. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. 943 79 10 96.

Betaurrekoak. Aiba mendi mar-txan, graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen,

zorroan sartuta. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 943 53 42 55 edo 636 38 20 23 telefono zenbakira.

Betaurrekoak galdu ditut, eguzkitakoak eta graduatutako. Mundumirako aste bukatu galdu nituen, Bergaran edo Antzuolan. Aurkituz gero, deitu 943 76 17 77 telefono zenbakira.

Eraztuna Zubiaurren. Maiatzaren 24an eraztuna ahaztu nuen Zubiaurreko plaza txikiko banku baten. Aurkitu baldin baduzu, mesedez, dei iezadazu 637 77 45 57 telefono zenbakira. Aldez aurretik mila Esker.

Zapata gorria galdu nuen Arexabaletan. 19 zenbakia. Chupetin markakoa. Mesedez, norbaitek aurkitu baldin badu, dei dezala 649 96 07 57 telefono zenbakira.

807. AURKITU

Eskoriatza. Giltza batzuk aurkitu nituen Txomin Txapel egunean Naira tabernan. Sei giltza, labana eta 25 pezetako txanpona dauzka. Tabernan bertan utzi nituen..

Umeen plastikozko motorra. Ondarreko jaietan umeen plastikozko motor bat agertu zen auzoan. Galdu duenak (guraso-eta-ko batek, jakina) dei diezadala. 650 31 03 43.

808. BESTELAKOAK

'Mobil homea' ematen da errentan uztail eta abuzturako. Aubisque inguruan, Laruns herrian. Bi logela, sukalde-egongela eta komunak. Bost pertsonarendako egokia. 637 41 97 14.

Bergara-Gasteiz. Egunean, Bergara edo Arrasate ingururik Gasteizera (Eje aldera) joateko autoa konpartitzeko norbaiten bila gabiltza. Gure ordutegia: 08:00-14:30. Autoa konpartitu nahi baduzu deitu 637 91 33 81 telefonora.

Bizikleta falta. Maiatzaren 14an, gauean, mutikoaren mendiko bizikleta eroan ziguten Antzuolatik. BH Jumper bat da, gorria eta grisa. Nonbait ikusi baduzu edo norbaitek saldu nahi izan badituzue, dei iezaguzu, mesedez 650 31 03 43 telefono zenbakira. Eskerririk asko!

Ortuta egiteko lursaila eskaintzen da Arrasate erdigunean. 647 57 84 81.



DEBA GARAIA

INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranrekale, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- San Lorenzo, 78 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekuak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte, 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza, 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarereka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.



GOIENKARIA

Hondakinen gaineko erreportajea

Atez ateko sistemak askotariko iritziak sortu ditu. Horregatik, hondakinak batzeko sistemen inguruko erreportajea egin du Julen Iriando kazetariak. Horretarako, Italian egon da Debagoieneko hainbat ordezkariarekin.

GOITB, 'Erreportajea'
> Eguaztena, 22:15



GOIENKARIA

San Juan jaien inguruko tarte berezia GOITBn

San Juan jaiak heltzear dira, eta, horregatik, egunean saio berezia izango dugu *Goiena Magazine*-n. Bertan, San Juan jaiak ospatzeko egiten diren ekintzez hitz egingo da: San Juan sua, danborrada, errementeri-dantza...

GOITB, 'Goiena Magazine'
> Eguena, 19:45, 23:30

astea GOITBn

Egubakoitza, 18	Zapatua, 19	Domeka, 20	Astelehena, 21	Martitzena, 22	Eguaztena, 23	Eguena, 24
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Animalia.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Jaiak: Lazkaoko festak	13:45 Ur eta Lur	13:45 Ikusmira.	13:45 Erreportajea: zaborraren kudeaketa.
14:15 Onein	11:30 Jaiak: Lazkaoko festak	11:30 Kliik.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.		12:00 Jazz jaialdia..	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur	12:00 Goiena Magazinea.	12:30 Tokika: Bidarra.	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Jazz jaialdia.	13:00 Eltze beroa.	13:00 Ur eta lur.	15:45 Ikusmira: Lekeitioko Ondarazabal Hondartza itsasuntzia.	15:50 Kiroleroak.	15:50 Onein.	15:45 Kliik.
16:15 Ikusten.	13:30 Harmailatik.	13:30 Onein.	16:15 28 Klip.	16:20 Erloklip.	16:20 28 Klip	16:15 Ikusmira
16:45 Berriak.	14:30 Barrebusa.	14:00 Goiena Magazinea.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Marrazki bizidunak.	15:00 Gipuzkoa Kultura.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean	18:00 Ur eta lur	15:30 Marrazki bizidunak.	17:35 Eskuokin	17:35 Eskuokin	17:35 Harmailatik.	17:45 Eskuokin.
18:45 Berriak.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	18:00 Eskuokin.	17:55 Kurtulzulo.	17:55 Kurtulzulo.	18:15 Ur eta Lur.	18:00 Onein.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:00 Kliik.	18:15 Barrebusa.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Tokika: Bidarra.	19:15 Harmailatik.	18:45 Ilunpean.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Gipuzkoa kultura.	20:00 Goiena Magazinea.	20:15 Kiroleroak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ilunpean.	20:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Harmailatik.	20:45 Ilunpean	20:45 Erreportajea: zaborraren kudeaketa.
22:15 Jaiak: Lazkaoko festak.	21:45 Jaiak: Lazkaoko festak	21:45 Gipuzkoa Kultura.	20:45 Harmailatik	21:30 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:45 Ikusmira.
	22:15 Gipuzkoa kultura	22:15 Ilunpean	21:30 Goiena Magazinea.	22:30 Ilunpean: Jokin Lacalle.	22:15 Erreportajea: zaborraren kudeaketa.	22:15 Gipuzkoakultura.
22:45 Kiroleroak	22:45 Animalia.	23:00 Kulturzulo	22:30 Harmailatik: Reala	23:00 28 Klip	23:15 Jazz jaialdia	22:45 Kulturzulo.
23:15 Kliik.	23:15 Harmailatik	23:15 Jazz jaialdia	23:00 Gipuzkoakultura.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:00 Erloklip..
23:45 Goiena Magazinea	00:15 28 Klip.	23:45 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.		00:30 Emisio amaiera.			00:45 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kiroalak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen erreposoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga))
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 19	Fernandez	Maisu Aranberri, 1	943 79 22 26
Domeka, 20	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 21	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 22	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Eguaztena, 23	Ruiz Perez	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Eguena, 24	Etxeberria	Zarrugalde, 42	943 77 16 30
Egubakoitza, 25	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapatua, 19	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Domeka, 20	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Astelehena, 21	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Martitzena, 22	Urritikoetxea	Oxirondo Plaza, 4	943 76 11 74
Eguaztena, 23	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 24	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitza, 25	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 19	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 20	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 21	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 23	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 24	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 25	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 19	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Domeka, 20	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Astelehena, 21	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Martitzena, 22	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Eguaztena, 23	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Eguena, 24	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 25	Agirre	Gorosarri Plaza (Esko.)	943 71 48 28

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

ESKER ONA

Eusebio Lazkano Lizarralde

Bitoria Oruetaren alarguna

Oñatin hil zen 2010eko ekainaren 14an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Oñatin, 2010eko ekainaren 18an.

ESKER ONA

Eduardo Etxabe Fernandez de Arroyabe

Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 12an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko ekainaren 18an.

ESKER ONA

Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria

Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 8an, 44 urte zituela.

Ziur gaude hemendik aurrera argia emango digun zeruko izarrik ederrena zu izango zarela.

Zuen babesa eta elkartasuna oso lagunak izan dira guretzat hain zailak izan diren egun hauetan. Eskerrik asko bihotz-bihotzez senideen izenean.



Bergaran, 2010eko ekainaren 18an.

ESKER ONA

M. Carmen Balerdi Arabaolaza

Arrasaten hil zen 2010eko ekainaren 12an, 96 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko ekainaren 18an.



Eskoriatzako **Tamara Garcia** eta Aretxabaletako **Imanol Etxebarrieta** bihar ezkonduko dira Eskoriatzako San Pedro parrokian. Bazkaria Gure-Ametsan izango da. Eztei-bidaian AEB eta Polinesiarra joango dira. "Zorionak, familia eta lagunen partetik!"



Idiazabalgo **Aloña Telleria** eta Arrasateko **Harkaitz Gainzarain** bihar, zapatua, Beasainen ezkonduko dira. Japoniara joango dira eztei-bidaian. "Zorionak eta ondo-ondo pasatu zuen egunean. Zuen familiaren partetik, patxo handi bat!"



Arrasateko **Rakel** eta Aretxabaletako **Bixen** bihar, ekainak 19, ezkonduko dira Loiolako basilikan. Bazkaria Salegi jatetxean izango da. Eztei-bidaian AEB, Mexiko eta Bahametara joango dira. "Zorionak, bihotz-bihotzez, familiakoen eta lagunen partetik!"



Arrasateko **Natalia Valor** eta **Igor Cobas** ekainaren 12an ezkondu ziren Arrasateko udal-etxean eta bazkaria Oñatikoko Etxe-Aundi jatetxean egin zuten. "Zorionak, bikote, eta urte askotarako, zuen familia eta laguneren partetik! *Bon voyage!*"



Oñatikoko **Eider Ugarte** eta **Igor Biain** bihar, ekainak 19, ezkonduko dira Asentzioko ermitan. Ospakizuna Zelai-Zabal jatetxean egingo dute. "Zorionak, bihotz-bihotzez, eta ondo pasatu, laguneren eta familiaren partetik!"



Oñatikoko **Udane Plazaola** eta **Xanti Peñagarikano** ekainaren 12an ezkondu ziren Loiolan. Ondoren, bazkaria egin zuten Kirurin. Eztei-bidaian Japoniara eta Zeelanda Berriara doaz. "Ondo pasatu, bikote, eta zorionak!"



Bergarako **M. Carmen Fernandez** eta **Jose Luis Gabilondo** San Juan egunean, ekainak 24, ezkonduko dira Bergarako epaitegian. Horregatik, familia guztiaren partetik, zorionak eta ondo pasatu, bikote!



Eskoriatzako **Itziar Urtzelai** eta **Jesus Arroibe** 1960ko ekainaren 18an ezkondu ziren. Hori dela eta, gaur urrezko ezteiak bete dituzte. "Ondo pasatu zuen urrezko ezteiegunean, etxekoen partetik!"

hildakoak

- **M. Carmen Balerdi Arabaolaza.** Arrasaten, ekainaren 12an. 96 urte.
- **Eduardo Etxabe Fernandez de Arroyabe.** Bergaran, ekainaren 12an. 77 urte.
- **Irene Larrañaga Telleria.** Bergaran, ekainaren 13an. 86 urte.
- **M. Luisa Aranzeta Alberdi.** Elgetan, ekainaren 12an. 91 urte.
- **Esperanza Elorza Bergaretxe.** Aramaion, ekainaren 9an. 69 urte.
- **Eusebio Lazkano Lizarralde.** Oñatin, ekainaren 14an. 92 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera.

URTEURRENA

Maria Luisa Alberdi Arrese

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 20an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ixabel Altuna Letamendi

Gazteizen hil zen 2006ko ekainaren 15ean, 44 urte zituela.

Laugarren urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 19an, 19:00etan, Mikel Goiainguruaren parrokiaren ospatuko da.

Egunero pizten da zure argia gure bihotzetan zure irudia, hitzak eta maitasuna gurekin ditugu beti. Urrun egon arren, alboan zaitugu.



Zure familia.
Oñatin, 2010eko ekainaren 18an.

OROIGARRIA

Izaskun Bengoa Arakama

Aretxabaletan hil zen 2009ko ekainaren 20an, 25 urte zituela.

Saminez pasa dugu denbora hostoz estalitako urazalari begira. Jada ur gardenetan islatzen zara, zure irrifar goxoz guri begira.



Kuadrilakuak.
Aretxabaletan, 2010eko ekainaren 18an.

URTEURRENA

Resu Aranguren Beitia

2009ko ekainaren 12an hil zen, 74 urte zituela.

Bere sendiak haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela domekan, ekainaren 20an, 11:50ean, Aretxabaletako parrokiaren eguingo den lehen urteurreneko mezara.



Aldez aurretik, mila esker sendikoen izenean.

URTEURRENA

Iker Uribebarria Azurmendi

Bosgarren urteurreneko meza eguaztenean, ekainaren 25an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Ekainak 18-24

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Antzerkia



ARETXABALETA

> Izaskun Muxikak ipuinak kontatuko dizkie 4 urtetik gorako umeei

Izaskun Muxika aktore eta ipuin-kontalari urnietarrak *Munduko ipuinak* izeneko emanaldia egingo du bihar, zapatua, liburategian, 11:30ean. 4 urtetik gorako umeei zuzenduta dago, eta sarrera doakoa da.

Dantza



BERGARA

> Umeendako 'Animaliak' dantza ikuskizuna egingo du La Dinamikak

Antzoki Sareak antolatu duen dantza garaikidearen VI. zirkuituaren barruan, ikuskizuna izango da bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:00etan. Big Bangetik hasita, landarez eta animaliaz betetako mundua aurkezten zaigu.

Musika



ARAMAIO

> Deiedra taldeak zeltar eta euskal folk musika emanaldia egingo du

Hibai Deiedrak 2007an sortutako Deiedra taldeak zeltar folka, euskal folka eta AEBetako *bluegrass* estiloa ditu eragin nagusizat. *Legegabeen kondairak* diskoko abestiak joko ditu gaur, egubakoitza, Sastiñan, 18:30ean.

OÑATI

> Elkar Heziko haurtzaindegiko ikasturte bukaerako jaia

Elkar Heziko haurtzaindegikoek ikasturte bukaera ospatuko dute. Lehenengo, Apika taldeak *Zorionak* ikuskizuna egingo du 2 urtetik gorakoendako (17:30); gurasoek txitxi-burduntzia prestatuko dute (18:30); eta umeendako piñata izango da (19:30).

Gaur, egubakoitza, Elkar Hezi ikastetxeko lorategian, 17:30-21:00.

Erakusketak

BERGARA

> Ion Erramun Etxebarriaren argazkiak ikusgai daude

Ion Erramun Etxebarriaren argazki erakusketa dago Aroztegi aretoan. Zabalik egongo da hilaren 27ra arte.

Ordutegia: astelehenetik egubakoitze-
ra: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta
18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

Musika

OÑATI

> Ganbara kantu eskolako ume eta gaztetxoaren emanaldia

Ganbara kantu eskolako ume eta gaztetxoek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute. Azken kontzertua da oporrak hartu aurretik. Hasteko, *Eskolopendra* izeneko ipuin musikala egingo dute.

Sarrerak kultur etxean daude, 5 eurotan.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA

> Bergarako orfeoiko harrobiko umeen kontzertua

Orfeoiko harrobiko umeek ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute. Musika erlijiosoa, euskal folklorea, polifonia, munduko folklorea... landuko dituzte.

Etzi, domeka, Mariaren Lagundiaren elizan, 19:00etan.

ARRASATE

> Oi! The Arrase, Aggressive Combat eta Fight to Life

Oi! The Arrase talde ezagunak kontzertua egingo du. Arrasateko Aggressive Combat eta Fight to Life taldeek ere joko dute. Sarrera 10 euro da alde aurretik, eta 12, leihatilan.

Bihar, zapatua, 3 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

> Kontzertuak izango dira aste bukaeran gaztetxean

Gaztetxearen 10. urteurreneko ospakizunak aste bukaeran amaituko dira. Gaur, egubakoitza, Bergarako taldeek kontzertua egingo dute (22:30): Katabatik, Red District, Rombos Negros eta Extorsion. Bihar, zapatua, poteoa (12:00), bertso-bazkaria (14:30), grafiti

erakustaldia (18:00) eta Fly Shit, Fugu eta DJ Elvis Cainoren kontzertuak (22:00) izango dira.

Bergarako taldeen kontzertua gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ARETXABALETA

> Julen Cobos Errasti 'Zakone' aretxabaletarraren kontzertua

Bartzelonan bizi den Julen Cobos Errasti *Zakone* kantautore aretxabaletarrak emanaldia egingo du. Sarrera 4 euro da.

Gaur, egubakoitza, Zaria aretoan, 22:00etan.

ARRASATE

> Goikobalu Txiki taldeak kontzertua egingo du

Goikobalu Txikik kontzertua egingo du hilaren 21ean. Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

ARRASATE

> Arrasate Musikalek hainbat kontzertu egingo ditu

Honako emanaldiak izango dira: ikasturte bukaerako kontzertua (gaur) eta musika bandarena (hilaren 24an, Monterron parkean, 13:00etan).

Ikasturte bukaerako kontzertua gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:00etan.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Haur danborrada eta Haur Dantzarien Eguna asteburuan, jai-giroa pizten hasteko

Bihar, haurren danborrada ibiliko da Arrasateko kaleetan, 19:00etan; eta etzi, domeka, Haur Dantzarien Eguna izango da. Zaldibar pilotalekuan batuko dira taldeak, 10:00etan, eta dantza erakustaldia egingo dute herriko kaleetatik barrena, 11:15ean. Herriko Plazan batuko dira 13:30ean. Arratsaldean, dantza jarduna eta agurra egingo dituzte plazan, 17:15ean, eta bukatzeko, dantzaldia.

Etzi, domeka, 10:00etan hasita.

Ospakizunak

BERGARA

> Gazte jaia ospatuko dute hainbat koadrilak

Honako ekintzak izango dituzte: paella prestatzen hasteko batuko dira (koadrila bakoitzak bere janaria eta edaria eramango ditu), 13:30ean; 14:30ean, bazkaldu egingo dute; 15:00etan, paella onena sarituko dute; bazkalostean, koadrilen arteko jokoak izango dira; eta 18:30-21:30, dantzaldia.

Bihar, zapatua, Munibe plazan.

OÑATI

> Josu Garaik ateratako munduko argazkien erakusketa

Josu Garaik oñatiarrak *Munduan zehar* delako argazki erakusketa ipini du kultur etxean. Ekainaren 22ra arte egongo da zabalik. Hainbat bidaiatan ateratako argazkiak dira, herrialde askotakoak: India, Kuba, Mongolia, Kirgistan, Uzbekistan eta Mali, adibidez.

Egunero egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO!!

Asteburu honetan, ohiko planetarium, simulagailu, erakusketa eta ikuskizunet gain:

BIODOMINO EFEKTUA

- Familia osoari zuzendutako animazio berria

Larunbatean, ekainak 19, 17:45ean

Igandean, ekainak 20, 17:00etan



Informazio gehiagorako: www.miramón.org webgunean
943 01 24 78



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

ESKORIATZA

> **Koldo Gojenolaren olio erakusketa, hil osoan**

Koldo Gojenolaren olio erakusketa dago ekain osoan. Gaur, egubakoitza, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00 ordutegian; astelehenetik aurrera, 12:00etatik 14:00etara. Ibarraundin.

ARETXABALETA

> **Eskulan eta zeramika ikastaroko kideen erakusketa**

Eskulan eta zeramika ikastaroen dabilzanek euren lanak ikusgai ipini dituzte Arkupen. Hil osoan izango da erakusketa zabalik.

Astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00.

ARRASATE

> **Ikusgai jarraitzen du Jose Luis Zumetaren erakusketak**

San Juan de Dios ospitale psikiatrikoko gaixoez egindako *Globo rojo* aldizkarian oinarrituta, Jose Luis Zumetak 38 serigrafiako erakusketa egin du, *Oi! Bihotz*. Orain arte izan duen arrakasta kontuan hartuta, ekainaren 20ra arte luzatzea erabaki du Udalak. Kulturaten, ekainaren 20ra arte.

BERGARA

> **Ingurumenaren gaineko beste erakusketa bat udaletxean**

Emausek antolatuta, *3Rs = CO2* delako erakusketa dago udaletxean. Ehun-hondakinen ingurukoa da. Ekainaren 26ra bitartean egongo da udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00; zapatuak, 12:00-14:00.

ARAMAIO

> **Alex Mendikutek argazki erakusketa dauka**

Alex Mendikutek hainbat argazki daude erakusketan Sastiñan. Ekainaren 27ra arte dago zabalik erakusketa.

Astelehenetik zapatuta, 19:00-20:00; domeketan, 12:30etik aurrera.

Bestelakoak

BERGARA

> **II. Udaleku Musikaletarako izenematea zabalik dago**

Uztailaren 9ra arte izango dira. Antzerki eskolak emango ditu Aitziber Garmendiak, eta dantza eskolak, Patxi Montorok. Miren Garikanok ahotsa landuko du, eta Nerea Murua-mendiaratzek, ahotsa.

5 eta 12 urte arteko umeendako da, eta izenematea zabalik dago ekainaren 8ra arte.

Izenematea: 943 76 57 80 (15:30-19:30).

OÑATI

> **Hondurasekiko elkartasun-bazkaria egingo dute**

Hondurasi laguntzeko bazkaria egongo du Acoes-Honduras taldeak. Aita Patrizio misiolaria izango da han. Txartelak Ekhi eder ekodendan, Juanitosa bazarrean eta Antton tabernan, 30 eurotan.

Bihar, zapatua, Sorraluze ostatuan, 14:00etan.

Zinema

ARRASATE

GAZTETXEA

Después de la boda
Domeka: 17:30.

BERGARA

ZABALOTEGI

Coach Carter
Martitzena: 19:00.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Que se mueran los feos
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELGETA

ESPALOIA

Up in the air
Eguaztena: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Palabras encadenadas
Egubakoitza: 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

The blind side
17:30, 20:00, 22:30.

Robin Hood
20:00, 22:30.

Marmaduke
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Sexo en Nueva York 2
17:30, 20:00, 22:30.

La última canción
17:30.

Campamento Flipy
17:00, 18:45.

El príncipe de Persia
17:30, 20:00.

La última cima
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Crónica de un engaño
20:30, 22:30.

Kick ass
22:30.

FLORIDA-GURIDI

Air doll
18:00, 20:15, 22:30.

Dos hermanos
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzetik eguaztenera), 18:00, 20:30 (eguna).

Villa Amalia
18:00, 20:15, 22:30.

La venganza de Ira Vamp
18:00, 20:15, 22:30.

Vincere
18:00, 20:15, 22:30.

80 egunean
18:00, 22:30.

Que se mueran los feos
20:15.

El retrato de Dorian Gray
18:00, 20:15, 22:30.

Ekainaren 18tik 24ra.

YELMO CINEPLEX

La venganza de Ira Vamp

16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Street dance (3D emanaldiak)
22:00, 00:00.

Cómo entrenar a tu dragón
15:40 (zapatua eta domeka).

El príncipe de Persia
15:45 (zapatua eta domeka), 17:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

Robin Hood
15:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

Jacuzzi al pasado
16:10 (zapatua eta domeka), 00:40.

El retrato de Dorian Gray
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

Alicia en el país de las maravillas (3D emanaldiak)
20:00.

Que se mueran los feos
18:10, 20:20, 22:30.

Campamento Flipy
16:40 (zapatua eta domeka), 18:30.

Sexo en Nueva York 2
16:00 (zapatua eta domeka), 18:45, 21:45, 00:30.

Marmaduke
16:20 (zapatua eta domeka), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Garfield y su pandilla (3D emanaldiak)
16:00 (zapatua eta domeka), 18:00.

Un ciudadano ejemplar
20:05, 22:10, 00:15.

Two lovers
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45.

Legión
16:30 (zapatua eta domeka), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El escritor
21:45, 00:10.

Kick ass
20:20, 22:35, 00:50.

La última canción
16:05 (zapatua eta domeka), 18:05.

La última cima
19:15.

Ekainaren 18tik 24ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzetan eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Robin Hood
16:05, 19:00, 22:00.

Que se mueran los feos
22:15.

La venganza de Ira Vamp
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

The crazies
16:00, 18:05.

Campamento Flipy
16:15, 18:15, 20:15.

El retrato de Dorian Gray
15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

Two lovers
16:10, 18:20.

Alicia en el país de las maravillas
16:00, 18:10.

Un sueño posible
15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.

Un ciudadano ejemplar
20:15, 22:30.

Legión
20:30, 22:40.

El príncipe de Persia
15:45, 18:00, 20:20, 22:35, 01:00.

Kick ass
20:20, 22:40, 01:00.

Sexo en Nueva York 2
16:00, 19:00, 22:00, 00:45.

La última canción
16:10, 18:15, 20:30, 22:40, 00:45.

Marmaduke
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Ekainaren 18tik 24ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzetan eta zapatuan.



LA ÚLTIMA ESTACIÓN ***

Aktoreen lan erakargarria

> **Zuzendaria:** Michael Hoffman.
> **Aktoreak:** Helen Mirren, Christopher Plummer, James McAvoy, Paul Giamatti.
> Alemania-Erresuma Batua-Erresusia, 2009.
> 114 min.

La última estación-en kon-tatzen zaigun istorioa Leon Tolstoinen bizitzako azkeneko hilabeteetan kokaturik dago. Jay Parinik horri buruzko eleberri bat idatzi zuen eta Michael Hoffman-ek hitzak irudi bihurtu ditu. Garai hartan Tolstoik bizitzaren gaineko ideia berezi batzuk zituen eta filosofia antzeko horrek jarraitzaile ugari zituen. Horren jarraitzaileek indarra egiten idazleak bere liburu-egile-eskubideak Errusiako herriari uzteko eta Tolstoinen emazteak eskubide horiek familian geratzea eskatzen zuen. Horrela, bi taldeek tirabira askoko harremanak izango dituzte, eta bien erdian idazlea eta bere idazkari gaztea izango dira.

Michael Hoffman-ek istorioari komedia tonua eman nahi dio gero, azken partean, idazlearen heriotza gerturatzenean, drama eta senti-

menduzko osagaietara jotzeko. Eta bukaerako zati hori lehenengoa baino hobeto dago. Hasieran zuzendariak filmari fartsa tonua edo ukitu xeble bat eman nahi dio, eta zati horretan istorioa zerbait erre-pikatzen da aurrera egin gabe. Bi taldeen jokaerak ikusten ditugun arren, ez da gehiegi sakontzen bakoitzaren izaeran, ezta Tolstoinen filosofian.

La última estación film ona izatera heltzen ez bada ere, baditu osagai erakargarriak; bereziki, aktoreen lana. Filmaren bikoiztutako bertsioa ikusteko aukera izan dugu, eta horrela aktoreen lana nahiko mugatuta heltzen bazaigu ere, Helen Mirren eta Christopher Plummerren interpretazioak bikainak dira; indarra, distira eta egia ematen diete pertsonaiei, eta kontuan hartzekoa da ere beste aktoreek eskaintzen diguten maila. Horrela, istorioaren intentsitateak gorantz egiten duenean aktoreek aukera handiagosta dute euren ahalmena erakusteko eta filmaren interesa igotzea lortzen dute.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa



Arautz aldetik ikusita txantxiku baten bizkarraren itxura hartzen du mendi honek. Ze mendi da argazkian ikusten dena?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Bergarako **Elena Agirre**.
Erantzun zuzena: **Moutorre** edo **Moiua dorrea**.



ETXEA ETXEO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** Goienako edozein egoitzara

Zapatilen ezkutuko mezuak

'SHOEFITI' Gero eta ohikoagoa da zapatilak argindar eta telefono kableetatik zintzilik ikustea

MISTERIOA Denetariko teoriak daude, baina inork ez daki zehatz-mehatz zer esan nahi duen fenomeno horrek

GUREAN Debagoiengan ere badugu 'shoefiti' delakoa; Arrasaten eta Oñatin, esaterako, ikus daitezke zapatilak

ARRITXU BARRUSO > OÑATI
Zer esan nahi du zapatila pare batek argindar edo telefono kable batetik zintzilik? Teoria eta istorio asko dauden arren, inork ez daki erantzun zehatza ematen, baina kontua da azken urteotan gero eta gehiago ikusten direla; baita gure ibarrean ere. Batzuek espresio artistikoa dela diote, edo arte urbanoa. Jatorria edo arrazoa ez jakin arren, fenomeno arraro horrek badauka izena: *shoefiti*.

ZAPATILEN LENGOAIA
Argi dagoena da zintzilik dauden zapatila horiek guztiek mezu bat transmititu nahi dutela. Zein? Auskalo. Denetariko azalpenak irakur daitezke Interneten.

AEBetan jaiotako fenomeno omen da. Batzuek diote auzo istilutsuetan agertu zirela lehenengo aldiz eta tribu urbanoek eremua markatzeko erabiltzen zituztela zapatilok. Toki horretan droga saltzen dela ohartarazteko ere erabiltzen direla diote

beste batzuek, edo heriotza bat gertatu denean dolu seinale moduan ere bai.

Dena dela, badaude teoria atseginagoak eta alaiagoak. Izan ere, beste azalpen batzuek diote ikasleek kurtso amaieran ikasketak amaitu dituztela ospatzeko eskegitzen zituztela zapatilak kableetan. Soldadutzarekin ere lotzen dute beste batzuek *shoefiti* delakoa; garai baten soldadutzatik etxera itzultzen ziren gizonen ospakizun modura botak eskegitzen zituztela, alegia. Ezkontza bat iragartzeko ere erabiltzen dela esaten da.

DEBAGOIENEN KALEETAN
Gure ibarreko kaleetan ere ikus daitezke zapatila misteriotsu horiek. Arrasaten, esaterako, Otalora kalean edota Mondragon Unibertsitateko Eskola Politeknikoaren inguruko kaleetan aurkituko dituzue. Oñatin ere ikusi ditugu, Euskadi etorbidean eta Atzeko kalean. Batek daki zapatila debagoiendar horiek ze istorio ezkututzen dituzten...



OÑATI Atzeko kalean argindar kable baten zapatila pare bat zintzilik.

TXOMIN MADINA

ahobero

"Euskarak ezin du parte hartu literatura orokorrean eta zientifikoan, munduan inork ez duelako ulertzen"

Jürgen Untermann
> Hizkuntzalaria
Aurtengo kulturako *Principe de Viana* sariduna da Untermann. Zenbait hedabidetan euskarara itzuli dituzte haren hitzak edo aurreiritziak, eta munduan bizi garen baten batzuek ulertu ditugu ba!

iturri onetik

'Txuri-uridin' joko dute Arrasateko danborradan Mikel Gonzalezekin batera

Arrasateko San Juan bezperako danborradak 50 urte beteko ditu aurten. Urteurren hori ospatzeaz gain, izango dute beste ospakizun bat: Realaren itzulera lehenengo mailara. Hori horrela, antolatzaileek azaldu dute danborradan Realaren *Txuri-uridin* ereserkia ere joko dutela.

Mikel Gonzalez bera ere, gainera, danborrari moduan ibiliko da gaztetxe taldearekin batera.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Errekan gora

Eskegitzeko kultur ekimena aurkeztu dugu asteon eta hirugarren edizioa trinko ageri da, gogotsu. Eta berritu egin zait hasierako asmoa, eta izena esplikatzen duen hausnarketa: "(...) Errekan gora daude iturri garbiak, paradisu gordeak, tribu ezezagunak. (...) Errekan gora deitu diogu ekimenari gure kokapenaren egokia aldarrikatzeko, mundu berriaren sarean puntu bakoitza izan daitekeelako erdigune".

Hiru urte pasata, are argiago dago kontua. Munduan egoteko beste modu bat ere bada ibar goienak aldarrikatzea eta guk hemen goian eraikitzea komunitate beregain eta osatuak. Eta hori egitean lurralde orekaren alde ari gara, helburu komunari laguntzen. Beraz, ez kikildu. Errekan goitik esan dezakegu ozen: "Ez gara gu urrun daudenak!".

ai, ene!



Etxeko egongela, zelaian etzanda moduan egoteko

Zertarako joan mendira piknika egitera? Sofa xeble horrekin etxeko egongelan piknika egin dezakezu telebista ikusiaz bat.

www.paringa.net



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



SYMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

ESKAINZA BEREZIAK
erakusketa aldaketagatik